ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko apirilaren 12a > Astelehena > VI. urtea > 272. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 urte · www.goiena.net · TOKIKOM



"Batzuek, oraindik ere, erreparoa diote lehen gertatutakoa gogorazteari"

**Lourdes Herrasti**
Arkeologoa > 08

**G2a** Antzuolako emakumeak, iruditan > 29

**ARAMAIO** 'Baserri barri' proiekturako eraikina egiten hasiko dira > 11

**ARRASATE** Arrasateko gaztetxeak 19 urte bete ditu eta ospakizunetan ari dira > 15

**UDA** Aretxabaletak Zamudiori irabazi eta bizirik jarraitzen du > 22



**ATXIKIMENDUA** Aramaioko alkate Asier Agirre, Arrasateko eta Otxandioko alkateekin eta Aramaioko udal gobernuko kideekin, herri galdeketa zigortuko duen epaiketa salatuz. JOSETXO ARANTZABAL

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Asier Agirreri babesa, epaiketaren aurrean

**KONTZENTRAZIOA** Eguaztenerako, 09:30ean, bilkura deitu dute Arabako Auzitegi Probintzialean

**UDALAK** Dagoeneko 40 bat udalek eman diote babesa Agirreri, eta onartu dute haren aldeko mozioa > 04

**ZIKLISMOA** > EUSKALTEL

## Velasco, Tourrerako taldean

Itzulian lan bikaina egin eta berri ona eman diote > 26

**TURISMOA** > PAZKO ASTEA

## Bisitari kopurua, lehengoan

Iaz beste turista izan dugu aurten Debagoienean > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**BERGARA** > ONDAREA

## Akordiorik ez, Arrizuriaga jauregira UNED eroateko

UNED Patronatuak Donostian egin zuen batzarrak ez zuen fruiturik eman, eta Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permutak luze joko du. Kultura diputatu Maria Jesus Aranbururen esanetan, permuta ez gauzatzeko arrazoiak diru falta eta Jaurlaritzaren balizko eskuhartzea aztertzea izan dira. Akordio ezaren aurrean, haserre agertu da Bergarako alkate Agurne Barruso eta erantzukizun falta leporatu dio Aldundiari, udalbatza permutaren alde agertu zelako eta 2008tik herria Errege Seminarioarekin zer gertatuko den zain dagoelako. > 05

ESAIT-eko termiko berdea eta bisera opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

Goiena kluba



Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

## ZOZKETAREN SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

# Amaia Ugarte Bolibar Zorionak!



Aramaioko Amaia Ugarte Bolibar eta bere alaba saria eskuan dutela.

**Zuk ere hurrengo sari nagusia irabazi nahi?**

**Parte hartu zozketan**

(zoaz 7. orrialdera)

## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

## Deskontu bereziak

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

Barceló Bidaiak

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***

**JENDARTEA** > LOREAK

# Kolorea iritsiko da laster kaleko lorat
egi eta etxeko balkoietara

**MAIATZA** Neguko loreak oraindik loretan daude eta hortaz, maiatzera arte ez dituzte gertu izango lorezaintza zerbitzuek kaleetako lorategiak

**NAHASKETA** Betiko begonia, surfinia, baltsamina eta tajeteak hain ezagunak ez diren eta emaitza ona ematen dutenekin nahastuko dituzte; esaterako, gaurekin

**HIRU LORATEGI BERRI** Bergaran eta Oñatin, gutxienez, hiru toki berri apainduko dituzte; Bergaran, Amillagan eta Oñatin, Correos ondoan eta Uarkalden

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Udaberriarekin batera, gure herrietako kaleetan sakabanatuta dauden lorategiak aldatzeko garaia heltzen da. Horietan oraindik neguko loreak ikus daitezkeen arren, laster udako lore koloretsuek hartuko dute horien tokia. Bergarako lorezaintza lantaldea dagoeneko hasi da lorategietako belarra mozten. Hango arduradun Arkaitz Tolosak jakinarazi digu negua luze joan dela eta eguraldiak atzeratu egin duela talde horren lana: "Lorategiak txukuntzen ari gara orain, maiatzerako lore berriak jartzeko. Oso goiz landatzen baldin baditugu, lorea goiz joaten da eta asmoa da irailera arte mantentzea. Udazkenean jarritakoak, gainera, oraindik loretan daude".

Oñatin ere antzera dabiltza. Nartzisoen garaia pasa da eta orain udazkenean lur azpian sartutako tulipen eta pentsamenduen txanda da. Horiek pasatu arte, ez dituzte kenduko. Lorelan Lurez kooperatiba elkarteko arduradun Jokin Bengoak ere azaldu digu maiatzean jarriko dituztela sasoi beroko loreak eta landareak.



Bergarako Amillagan egindako lorategietan loreak jarriko dituzte aurten lehen aldiz. MIRIAN BITERI

**URTERO ALDATZEN DITUZTE**

Udaberriari eta udari begira, jarriko diren loreak askotarikoak dira. Herri bietako arduradunek aipatu dute urtero aldatzen saiatzen direla. Tolosaren esanetan, haztegiek eskaintzen dutenaren eta aurreko urteetan emaitza onak eman dituen landareen arabera egiten dute batez ere aukeraketa. Sei hilabete lehenago egiten dute eskaera Bergaran.

Bestalde, herritarren gustua ere kontuan izaten saiatzen direla dio: "Jendeari bereziki gustatzen zaiona loreak dira. Oso ohituta daude betiko geranio eta begonietara. Dena dela, saiatzen gara berrikuntzak ere sartzen".

**LOREEN KOLOREEKIN JOKATU**

Aurten, Bergarako lorategietan ikusiko dugunaz egin digute berba esandako bi herrietako lorezaintzaz arduratzen direnek. Honako hauek ikusi ahalko ditugu: urterokoetan, begoniak, baltsaminak, surfiniak, tajeteak eta antzekoak sartzen dira. Bengoaren esanetan, "Oñatin lore horien koloreekin jokatzen dugu".

Berrikuntza bezala, besteak beste, gaurak, intsentsu-belarrak, kleomeak eta lilak jarriko dituzte. Oñatin, gainera, iraunkorrak diren landareekin nahastuko dituzte; esaterako, bibasak.

**LORATEGI BERRIAK**

Bergarako lorezaintza zerbitzua osatzen duten zazpi lagunek, guztira, 12 lorategi apainduko dituzte; hain justu ere, herritik zehar banatuta dauden 400 metro karratu inguru. Horren harira, Tolosak esan digu aurten, lehen aldiz, Amillagako biribilgunean egindako lorategi berrian jarriko dituztela loreak. Bestelako tokietan ere jartzea aztertzen dabiltza.

Bengoak esan digu Oñatin ere bi toki berri apainduko dituztela aurten: "Correos ondoan eta Enpresagintza fakultatearen eraikin berriaren ondoan egin duten biribilgunean eta Uarkalden egindako etxebizitza berrietan egindako loratzegian jarriko ditugu". Toki horiei Erle, Bidaurre, Olakua eta Santa Anakoa gehitu behar zaizkiei.

**KRISIAREN ERAGINA**

Bestalde, Tolosak esan digu krisia dela-eta, lorezaintzarako aurrekontua "asko" murriztu egin dela eta orain aztertzen ari direla udazkenean loreak jartzea. Horren arabera, "beste hainbat herrietan aurten ez dira udazkeneko loreak jarri eta Bergaran, agian, hori egin beharko dugu".

Amaitu aurretik, herritarrendako mezua zabaldu nahi izan du: lorategiak errespeta ditzatela, hain justu ere.

ESANAK

## "Correos ondoan egin duten biribilgunean eta Uarkaldeko etxe berrien ingurunean loreak jarriko ditugu aurten lehen aldiz"

**Jokin Bengoa** > Lorelan Lurez

## "Beste hainbat herritan aurten ez dira udazkeneko loreak jarri eta Bergaran, agian, hori egin beharko dugu"

**Arkaitz Tolosa** > Lorezaina

ETXEKO BALKOIAK

## "Etengabeko arreta" eskaini behar zaie loreei

Kaleetako lorategiak txukuntzeaz gain, etxeko balkoiak apaintzeko ordua ere iritsi da. Bergarako Ninika loradendako Ana Revueltak lore ederrak izan nahi dituenak "etengabeko arreta" eskaini behar diela dio: "Ez da zaila, baina tarte bat atera behar dugu zaintzeko". Esan digu, normalean, Aste Santuko oporren ostean hasten dela jendea loreak eta landareak erosten; nagusien artean, geranioak, eta gazteetan, surfiniak, petuniak eta gutxi zaintzen dutenek landareak zuhaixkak dira eskaera handiena dutenak. Revueltak uste du aurtengo denboraldia "ona" izango dela: "Negu gogorra eta iluna izan dugu eta jendeak balkoi koloretsuak nahi ditu".

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Aramaioarrek eta hainbat udaletako ordezkariek, atxikimendua alkateari

Etzi, eguaztena, Aramaioko alkate Asier Agirre Gasteizen epaituko dute, 2007an Aramaion AHTren gaineko herri galdeketa egin zelako



Domekan alkatearen aldeko kontzentrazioa egin zuten herritarrek Aramaion. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Zapatuan prentsaurrekoa egin zuten Aramaioko Udaletxean Asier Agirre alkatearen alde. Arrasateko alkate Ino Galparsorok, Otxandioko alkate Haritz Otxandianok eta Aramaioko udal gobernuko hainbat ordezkarik esku hartu zuten. Salatu zuten Agirre herriari iritzia galdetzeagatik epaituko dutela.

Etzi, eguaztena, alkatea Gasteizen, Arabako Audientzia Probintzialean, epaituko dute, 2007an Aramaion AHTren gaineko herri galdeketa egin zelako.

Aramaioko udal gobernuko kideek azaldu zuten 2006ko azaroan 685 herritarrek eta Aramaioko hainbat elkartek Udalari eskatu ziotela AHTren gaineko kontsulta egiteko. Baina Estatu Abokatutzak bultzatuta, Arabako Audientzia Probintzialak debekatu zuela gaineratu zuten. Gerora, 2007ko udal hauteskundeen ostean, herritarrek eskaera bera egin zuten; eta irailean galdeketa egin zen. Herritarren %56k esku hartu zuen eta horietatik %98k AHTren kontra bozkatu zuen. Horren ondorioz, Estatuko Abokatutzak alkatearen kontra jo zuen.

### 40 BAT UDALEN ATXIKIMENDUA

Aramaion alkatearen aldeko mozio bat onartu zuten, EAJ eta EAren kontrako botoekin. Gerora, 40 bat udaletan mozio bera onartu dute. Udal horien ordezkari moduan, Arrasateko eta Otxandioko alkateak izan ziren.

Haritz Otxandianok jakinarazi zuen "ulertezina" dela alkate bat herriari hitz emateagatik epaitzea; eta "demokraziak parte-hartzailea behar duela izan". Eta Ino Galparsorok gaineratu zuen epaiketak "intentzionalitate politikoa" daukala: "Ez da kasualitatea zer motatako galdeketa den, ezta alkateak zer tendentzia politikoa duen".

### KONTZENTRAZIOA DEITU DUTE

Atzo, domeka, 80 bat herritarrek kontzentrazioa egin zuten Aramaion; eta eguaztenerako udaletako ordezkariek eta herritarrek kontzentrazioa deitu dute Gasteizen, Arabako Audientzia Probintzialaren parean, 09:30ean.

**PRESOAK** > 'BATASUNA' AUZIA

# Elkororentzat 10 urteko zigorra eskatu du fiskalak

Fiskalak ETAko kide izatea egozten dio preso dagoen ezker abertzaleko militante historikoari; osasun egoera delikatua du

**JULEN IRIONDO/I.B.** > BERGARA
18/98 auziagatik dago kartzelan Jose Luis Elkoro bergararra. Bada, orain, beste 10 urteko kartzela zigorra eskatu du Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak ezker abertzaleko militante historikoarendako. 35/02 edo herriko tabernena deitutako auzian eskatu du fiskalak Elkororendako zigorra. ETAko kide izatea egozten dio bergararri, beste 19 laguni moduan.

### OSASUN DELIKATUA

Jose Luis Elkoro 2009ko maiatzetik dago espetxean, Palentzian. 75 urte ditu eta osasun egoera delikatua. Hori dela-eta, Elkororen egoera giza eskubideen kontrakoa delakoan, lan-taldea osatu eta haren askatasuna lortzeko tramiteak hasi zituzten otsailean. Lan-talde hori 1976. urtetik Bergarako udalean hautetsi izan diren 71 pertsonak osatzen dute, eta alderdi desberdinetakoak dira. Azken albistea, ordea, horren kontrakoa da. Beste 10 urteko zigorra eskatu du fiskalak bergarararrarentzat.

### 'BATASUNA' AUZIA

Baltasar Garzonek 2002an hasitako instrukzioa bukatzera doa eta fiskalak 40 lagun auziperatu ditu. Zigor handiena, 12 urte, Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Rufi Etxebarriarentzat, ETAko buruzagi izatea leporatuta.


Jose Luis Elkoro artxiboko argazki batean, bere etxean. GOIENKARIA





Oraingoz Errege Seminarioaren eraikinean jarraituko du UNEDek; erabakia hartu artean obrak egingo ditu Aldundiak. GOIENKARIA

**ONDAREA** > ERREGE SEMINARIOAREN PERMUTA

# Akordiorik ez oraindik, UNED Arrizuriaga jauregira eroateko

Eraikinen arteko trukea urtebete atzeratu da eta Udala haserre dago; Maria Jesus Aranburu diputatuak dio orain trukerako dirurik ez dagoela

**A. BARRUSO/J. BEREZIARTUA** > BERGARA
UNED Patronatuak egubakoitzean Donostian egin zuen bilerak ez zuen fruiturik eman, eta Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permutak luze joko du. Permuta ez gauzatzeko diru falta izan da arrazoi nagusia. Hala, auziak urtebete gehiago egingo du mahai gainean.

Urteetako tirabiren ostean, 2009ko abenduan Bergarako Errege Seminarioa UNED Patronatuaren esku utzi zuen Espainiako Gobernuko Hazienda Ministerioak. Hala, bazirudien eraikinen arteko trukea gero eta gertuago zegoela. Izan ere, 2009ko apirilean Bergarako udalbatzak onartu zuen UNED Patronatuari bi eraikinen arteko permuta eskatzea; EAJ izan zen kontra bozkatu zuen alderdi bakarra.

Akordio ezaren aurrean haserre agertu da Bergarako alkatea. Agurne Barrusok erantzukizun falta leporatu dio Aldundiari eta uste du erantzukizun falta dela Bergara 2008tik Errege Seminarioarekin zer gertatuko den zain edukitzea. Are gehiago, udalbatza permuta gauzatzearen alde azaldu denean. Baina Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuak azaldu du orain ez dagoela dirurik eta nahiago dutela Jaurlaritzaren esku-hartze posiblea aztertzea. Hala ere, bitartean Aldundiak UNEDen behar diren obrak egingo ditu: eraikinaren egitura eta teilatua hobetu eta traba arkitektonikoak kendu. Bestalde, UNEDeko zuzendari Juanjo Alvarezek ez du adierazpenik egin gura izan.

**ARANZADI, POZIK**

Aldiz, Patronatuak Aranzadi ikastolaren handitze proposamena onartu du. Hala, Aranzadiko zuzendari Ane Barruso pozik dago, eta "ahalik eta lasterren" hasiko dira obrekin. Seminarioaren hiru solairu hartuko ditu Aranzadik, noblea ez den gunea. Beheko solairuan 0 eta 6 urte artekoendako gelak egokituko dituzte eta gainontzeko solairuetan, Martinez de Iralako egungo gelak bertan egokitzea da asmoa.

**etxeko leihotik**



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

## Aurreko astekoak

Egon da albisterik opor sasoian bai! Egunkariak hartu, eta hango Gürtell eta hemengo Garzon, besterik ez da entzun eta irakurri hain berezia den eta sufritzea egokitu zaigun Zuzenbide Estatu honetan. Horrela deitzen diote agintzen dutenek. Nahiago, demokrazia indartsu bat balitz. Herritarrok zeresana izango genuke behintzat. Gaur egun gure berbek ezer gutxi balio dute lau urtetik lau urtera papertxo bat hautestontzian sartzeko ez bada.

Baina hara non ikusten ditugun "zuzenbide estatua" eta konstituzio monarkikoaren defendatzaile sutsuenak, eskuak inoren patriketan sartzen behin eta berriro. Gürtell kasua da orain; lehen Filesa, Naseiro, Matesa…

Epaileetan handienaren lagun izan zirenak berriz, gero aurka, eta gaur berriro alde. Eta alderantziz; segun eta haizeak nondik jotzen duen.

Gurean, Ezker abertzaleko buruak enegarrenez auzipetuak, eta Estatua neurri gabeko kartzela zigorrak eskatzen. Kasu honetan bai, Estatuak ederki asko daki nondik jotzen dion haizeak.

Estatuak ez du nahi Ezker abertzaleak bake biderako bere estrategia propioa gara dezan. Ezker Abertzaleak probokazio hauek eta gehiago jasan beharko ditu. Gaizki egingo luke joko horretan eroriko balitz, bake egoerak gertu izan direnetan agerian geratu baita daukan indarra. Jarrai beza tinko bide politiko soiletatik, herri honek bake egarria du-eta.

**"Gaur egun gure berbek ezer gutxi balio dute lau urtetik lau urtera ez bada"**

**> Arriskutsu** bihurtzen ari dira Manos Limpias eta eskuin muturreko hainbat talde. Estatuaren barruan fiskaltza paralelo bat ari dira sortzen. Eta *Egunkaria*, Ibarretxe eta beste batzuen aurka jotzen zutenean? Orduan ez?

**> Oñatiko udalak** bidegorri sarea eraikitzeari ekin behar diola jakin dugu. Herritarren partaidetzaz erabakitakoa ei da ekimena. Noizean behin, arnasa hartzeko moduko albisteak! Bizikletei hautsa kentzen hasi behar orain.

**ELKARTASUNA** > SAHARA

# Gaur hasiko da sahararren giza eskubideen aldeko astea

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatin hainbat ekitaldi egingo dituzte asteon

**J.B.** > BERGARA
Herri sahararraren giza eskubideen aldeko astea hasiko da gaur Debagoienean. Nubi eta Iesbaa elkarteek antolatuta, egunero izango da ekitaldiren bat gaur hasi eta egubakoitzera arte. Ekitaldiok Oñatin, Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan izango dira. Gaur bertan *Un grito desde el Sahara* dokumentala ikusi ahalko da Aretxabaletako Arkupe kultura etxean (19:00). Dokumental hori bera etzi, eguaztena, ikusi ahalko da Oñatiko kultura etxeko areto nagusian, 19:00etan. Bihar, berriz, AFAPRESA saharar preso desagertu eta senitartekoen elkartearen hitzaldia egingo dute Arrasateko Biteri ikastetxean (18:30). Mendebaldeko Sahararen egoera izango dute berbagai. Eguenean, berriz, Mendebaldeko Sahararen egoeraren gaineko afari tertulia egingo dute Eskoriatzako Elizoste elkartean.

**AMAITZEKO, ISMAEL SERRANO**

Elkartasun asteari amaiera emateko, Ismael Serrano musikari madrildarraren kontzertua izango da Arrasateko Amaia antzokian. Serranok *Acuérdate de vivir* kaleratu berri duen diskoa aurkeztuko du Amaian. Sarrerak Internetez eros daitezke, servikutxa zerbitzuaren bitartez.



Ume sahararrak Bergarako San Martin plazan. I.BARANDIARAN

**TURISMOA** > ASTE SANTUA

# Egunotan bisitatu gaituztenen kopurua mantendu egin da

## Jai egunetan 1.069 lagun izan ziren Arrikrutzeko kobetako bisita gidatuetan

## Bergaran mugimendua egon da; 300 bisitari inguru pasa dira turismo bulegotik

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Gertuko bisitariak izan ditugu batez ere aurten gurean. Hori da, behintzat, bailarako turismo bulegoetan igarri dutena. Urtero bezala, Aste Santuko jaiegunetan egon zen mugimendu gehien eta Pazko Astea nahiko lasaia izan zen.

Oñatiko Arrikrutzeko kobetan 1.069 bisita izan ziren apirilaren 1etik 5era bitartean; joan den urtekoaren antzera. Euskaldunak ziren gehienak; kataluniarrak eta madrildarrez gain, Kalifornia eta Kanadako taldeek ere ezagutu zituzten kobazuloak.

Bestalde, Oñatiko bulegotik turista gutxiago pasa dira aurten. 2009an, 666 izan ziren eta aurten, berriz, 511. Bisita gidatuei dagokionez, aurten, 271 lagunek ikusi zituzten unibertsitatea eta parrokia; iaz, 340 lagunek. Turismo bulegoan dagoen errotak, berriz, 50 bisita jaso zituen, joan den urtean baino 10 gehiago. Pazko Astea lasaia izan bazen ere, egubakoitz goizean Zaragozatik etorritako 55 erretiratu izan ziren.

**BERGARAN, HILAREN 18RA ARTE**
Bergarako turismo bulegoan ere gertu dituzte aurtengo datuak: 300 lagun inguru izan ditu. Aipatu digute oporretako egunak ondo joan direla eta mugimendua egon dela herrian; Euskal Autonomi Erkidegoko bisitariak izan dira gehienak. Aste Santuko kanpaina domekan amaituko da.


Zaragozako erretiratuen taldea joan den egubakoitzean, Oñatiko unibertsitatea bisitatu aurretik. MIRIAN BITERI

BISITARIEN IRITZIAK


**Agustina Peña**
Zaragoza

### "Aukera baldin badaukat, berriro bueltatuko naiz"

"Ez da lehenengo aldia Euskal Herrira natorrela; gaztea nintzenean, Zarautzen izan nintzen lan egiten eta oso oroitzapen onak ditut. Bergaran ere egonda nago aurretik; oso herri polita iruditzen zait, bailaran oso sartuta badago ere. Aukera baldin badaukat, berriro bueltatuko naiz".


**Txabi Fernandez-Monica Serraveñas**
Bartzelona

### "Oñati gustuko dugu, bisitatzea merezi duten eraikinak ditu"

"Debagoiena aukeratu dugu, aurretik Bilbon eta Donostian egonda geundelako eta barnealdea ikusi nahi genuelako. Pazkoa asteko martitzenera arte egongo gara Elgetako nekazal turismoan. Oñati gustuko dugu, bisitatzea merezi duten eraikinak ditu. Gero Arantzazura eta Bergarara joango gara".


**Victoria Perez**
Zaragoza

### "Orain arte asko gustatu zaigu ikusi duguna"

"Pazkoa Astean etorri gara eta sei egun emango ditugu hemen. Eibarren dugu ostatua hartuta. Dagoeneko toki asko bisitatu ditugu; tartean, hiriburuak. Oñatin unibertsitatea eta parrokia ezagutuko ditugu. Orain arte asko gustatu zaigu ikusi duguna. Jendea, gainera, oso jatorra da".

**OGASUNA**

# Apirilaren 20an hasiko da errenta kanpaina

## Eguaztenean, autolikidazio proposamenak onartu ahalko dira

**M.B.** > BERGARA
2009ko zerga ekitaldiko kanpaina apirilaren 20an hasiko bada ere, errentako autolikidazio proposamenak apirilaren 14an onartu ahal izango dira. Zergadunen erdiak baino gehiagok jasoko du datozen egunotan horren gaineko proposamena. Azken kanpainan 177.165 proposamen onartu ziren, bidalitakoen (205.443) %86,2. Errenta mekanizaturako hitzorduak, berriz, hilaren 19an eskatu ahalko dira.

**EUSKARAZ EGITEKO DEIA**
Bestalde, Debagoieneko udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko esku-orriak banatuko dituzte aurten ere. Hain justu ere, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuola, Elgeta eta Aramaion banatuko dituzte apirilaren 16tik aurrera.

> SARIA

### Eroskik Errealitate Eleaniztunaren Sustapen Saria jaso du

Kataluniako Generalitateak, Eusko Jaurlaritzak, Balear Uharteetako Governak eta Galiziako Xuntak aurtengo Espainiako Estatuko Errealitate Eleaniztunaren Sustapen Saria eman diote Eroski kooperatibari, hizkuntz aniztasunaren gaian zeregin eredugarria garatzeagatik. Hain justu ere, errealitate eleaniztuna sustatzeagatik eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza koofizialak hedatzeagatik jaso du sari hori.

> OSASUNA

### Meditazioaren gaineko hitzaldiak egingo dituzte

Datozen bi asteotan meditazioaren eta norberaren ezagutzaren gaineko hitzaldiak egongo dira bailaran. Bergaran, apirilaren 14an eta 21ean izango dira, 20:00etatik 21:30era, kultura etxean; eta Oñatin, hilaren 13an eta 19an egingo dituzte, 19:00etatik 20:30era, kultura etxean. Arrasaten, apirilaren 15ean eta 22an egiteko asmoa dute, 19:00etatik 20:30era, Kulturaten.

**AHT** > BERGARA-ANTZUOLA

# Etzira arte aurkez daitezke alegazioak proiektuari

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA
Abiadura Handiko Trenaren Bergara eta Antzuola tarteko desjabetzeen espedientea bidali dute dagoeneko Antzuolako Udalera. Proiektu horri alegazioak egiteko epea etzi, eguaztena, bukatuko da. Bestalde, Beasain-Durango autobideko Bergara eta Zumarraga arteko zatiaren proiektua ere udaletxean dago eta horren gaineko alegazioak aurkez daitezke apirilaren 20a bitartean.

**ERAKUSKETA ETA HITZALDIA**
Herritarrei informazioa errazteko asmoz, Udalak erakusketa eta hitzaldia antolatu zituen joan den astean bi proiektu horien harira.


Joan den astean, AHTren harira, Antzuolan egindako hitzaldia. ANDER MONEDERO

auzorik auzo

**MAZMELA** > Mazmela Eskoriatzako elizatea Atxorrotz eta Aramaioko muga bitartean kokatuta dago. Bere barruan dago Gaztañadi auzoa. Azkeneko urteetako arazo nagusiak azpiegitura handiek sortutakoak izan dira.

**Juan Karlos Beloki** > Mazmelako auzo-alkatea

# "Orain arte oso lasaia eta isila izan da auzoa, eta orain, azpiegiturek aldatu egin dute"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

**Laster 25 urte egingo ditu Juan Karlos Belokik Mazmelako auzo-alkate lanetan; hala, aldaketarako garaia iritsi dela uste du. Belokik esku artean dituen proiektuen artean auzo lokala egitea dago; dagoeneko hasi dira proiektuarekin.**


Beloki, Jasokundearen elizaren aurrealdean. A.E.

**Biztanle kopurua behera doala diozu, batez ere jaiotza gutxi izan direlako azkenaldian.**

Bai, azkeneko urteetan biztanle kopurua behera doa, osasun txarra dauka auzoak; beherakada izan da, batez ere oso jaiotza gutxi izan ditugulako azkeneko urteetan. 82 biztanle inguru gara.

**Gainera, azkeneko urteetan Mazmela asko aldatu da.**

Azken urteetako arazoak izan dira azpiegiturak. Orain arte oso lasaia eta isila izan da auzoa, baina azken urteetan asko aldatu da. Azpiegituraz josita geratu gara. Ekialdetik mendebalera lau azpiegitura ditugu: Arlaban, Leintz Gatzagako errepidea, autobidea eta AHT.

Autobidearena penagarria izan da; gainera, esan behar da oso erantzun txarra izan dugula obretan ibili diren taldeen aldetik. Orain, Abiadura Handiko Trenaren obrak ditugu. Esango nuke haiek, behintzat, beste errespetu batekin dabiltzala bideak garbitzen. Auzoko errepidea zabaldu digute, autoak eta kamioiak ondo ibiltzeko.

**Autobideko lanek utzitako zaborra noiz kenduko dute?**

Autobidea joan den urteko maiatzean bukatu zuten, eta oraindik hemen daukate garabi eta txatarra mordoa. Bideak eta inguruak konpondu barik utzi dituzte.

**Orain, trenaren lanak hasi dira.**

Orain arteko arazoa hori izan da, eta orain trenarena daukagu. Trenak moztuta uzten du bailara; trena lurpetik joan arren, tunelak egiteko lurra atera egin behar da; hortaz, auzoan uzten dute lur hori. Ondorioz, mendira ganaduarekin joateko-edo moztuta daude bideak. Auzoa ez dago zatituta, baina bai pinudiak eta hara joateko bideak.

**Argia, ura, komunikazioak... zelan zabiltzate auzoan?**

Momentu honetan, argiaren arazoarekin gabiltza. Farolak eskatu ditugu, baina ez dizkigute jartzen. Eskatu duguna da puntu batzuetan, baserri inguruetan farolak jartzea.

BIDEGORRIA

## "Eskatzen dugu tramu batzuk mendi pistak ere izatea"

Eskoriatzatik irten eta lehengo bideak eta lehengo trenbide zaharra erabiliz, ibilbide polita dago Mazmela auzoraino. Aurrera begira, badago proiektu bat bidegorria egiteko Landaraino. "Izango litzateke hiru metro eta erdiko zabalerakoa. Guretako ondo dago, baina eskatzen duguna da tramu batzuetan bidegorria bakarrik ez izatea, baita mendi pista ere. Gogorra izan dadila, traktoreak eta kamioiak ere pasatzeko. Izan ere, horko lurjabeek ikusten dutena da jendea dabilen tokian arriskua egon daitekeela; adibidez, suteak izateko", dio Belokik.

**Gaur egun, esku artean daukazuen proiektu nagusia auzo-lokala da. Zelan dago?**

Abade etxean egiteko proiektua daukagu. Akordio batera iritsi gara baxu guztian lokala egiteko. Zerbitzuak badaude, baina herrian. Hara joan egin behar da, eta baita etorri ere; eta ez daukagu garraio publikorik. Udalak lizentzia eman digu eta gure asmoa da aurten egitea, ez badira gauzak okertzen, behintzat.

**Zer ikusi edo egin daiteke auzoan?**

Auzoan dagoen toki politena San Bartolome baseliza ingurua da; egoera oso kaxkarrean dago, baina ingurunea polita da, artadi eder batek inguratzen du-eta. Erdi Aroko moduan erabiltzen dena, eta beste aldean karobia dago. Inguruan iturri polit bat dago. Eskoriatzatik etorriz gero, leku polita da. Gaztañadui auzoan Errota baserria dago; bertan errota dago, ez dakit erabiltzen den, baina egoera onean dago. Gainera, mendi ibilaldiak egiteko toki ederrak daude.



"Hilotzak deshilobatzen, duintasunak berreskuratzen" erakusketa dago zabalik Bergarako Aroztegi aretoan hilaren 18ra arte. 10 urte dira Aranzadi Zientzia Elkartea gerra zibileko hilobiak topatzen eta ikertzen hasi zela, eta urteurren horren harira prestatu du erakusketa ibiltari hori. Asteazkenean hitzaldia emango du Lourdes Herrasti arkeologoak, 19:00etan.

**Lourdes Herrasti** > Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa

# "Batzuek, oraindik ere, erreparoa diote lehen gertatutakoa gogorarazteari"


Lourdes Herrasti. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**"Hilotzak deshilobatzeko prozesu honetan bi aldiz ikusten ditugu negarrez senideak: ikerketa egiteko eskatzen dutenean tristuragatik egiten dute negar eta hilotzak entregatzen dizkiegunean, berriz, pozagatik", dio Lourdes Herrastik.**

**Zer erakutsi gura du Aranzadi Zientzia Elkarteak erakusketa horren bidez?**
10 urte hauetan lana nola egin dugun, zenbat zatitan banatzen den hilotzak deshilobatzeko prozesua eta Aranzadik nola hasi eta bukatzen dituen lan horiek.

**Gaika dago antolatuta erakusketa, beraz?**
Bai. Lehen zatian prozesuan nortzuk parte hartzen duten ageri dira: senideak, batetik; eta Aranzadiko teknikoak bestetik. Bigarrenean hobiak aurkitzeko ze teknika erabiltzen ditugun azaltzen dugu; hirugarrenean, aurkitzen ditugun gorpuzkinak eta elementuak nola identifikatzen ditugun eta laugarrenean, nola entregatzen dizkiogun gorpuzkinak senideei, behin txostena egin ostean.

**Senideengatik jasotzen dituzue hilobiak aurkitzeko eskaerak?**
Bai, eurengandik edo gaiari buruz asko ikertu duen eta horretan diharduen talde batengatik, Intxorta 1937 kultur elkartea bezalakoengatik, adibidez.

**Zailtasunak izaten dituzue hilobiak topatzeko?**
Senideek badakite "hemen inguruan" lurperatu zituztela, baina inguru hori mugatzea zaila izaten da batzuetan eta parajeak ere asko aldatu dira ordutik hona. Palaz eta aitzurrarekin ibili izan garenean ezinezkoa izan da hilobiak aurkitzea, ez dakizu nondik nora hasi.
Adibidez, duela 32 urte, hilobiak aurkitzen saiatu ziren Abaigarren (Nafarroa), indusketa makinak erabilita, eta ez zuten lortu. Orain, georadarrak eta bestelako teknikak erabili ditugu eta senideek esandako lau hilotzak aurkitu eta identifikatu ditugu.

**Identifikazio lanak errazagoak dira?**
Egungo teknikekin ere ez dugu beti lortzen hilobiak aurkitzea eta identifikatzeko prozesua ere beti ez da perfektua filmetan bezala. DNA frogak egitea ere beti ez da posible. Behin, esaterako, Santanderren, bi gorpuzkin aurkitu genituen, baina bietako baten ezin izan genuen DNA froga egiteko ezer atera, eta ezin izan genuen identifikatu.

**Senideen aurpegiak bestelakoak izango dira gorpuzkinak bueltatzerakoan, ezta?**
Bi motako negarra izaten dute senideek, biak emoziozkoak, baina ezberdinak: eskaera egiten dutenean tristurak eragindako negarra da, eta senitartekoen gorpuzkinak jasotzen dituztenean, berriz, pozak sortzen diena.
Azken negar horietan egoera ezberdinak bizi izan ditugu: batzuetan banan banan lurperatu dituzte, eta beste batzuetan aldiz, elkarrekin, azken urte askotan ere elkarrekin egon direlako. Horrek erakusten du sentimendu asko mugitzen direla lan tekniko horren bueltan.

**Erreparoa zaio oraindik lehen gertatutakoa gogorarazteari?**
Batzuek beldurra diote oraindik, bai. Ez da gertaera baten ondorioa, baizik eta gertaera horrek ekarri zuen ondorengo urteetan bizi izateko modua.
Erakusketako argazki baten ikusten da emakume bat hobi baten ondoan. Bost lagunen gorputzak daude hobi horretan eta horietatik bat emakume horren aita zen, herriko alkatea zena, eta beste bat bere anaia zaharrena. Familiarekin bakarrik ibili ginen ikertzen, inor ez zitzaion hurbildu emakume horri, eta hori oso gogorra da.

**Memoria historikoari beldurra zaio, beraz.**
Hainbat tokitan bai. Palentzian, Zamoran edo Burgosen, adibidez, hainbat familia herritik atera behar izan ziren, "gorriak" zirelako, eta bizirik jarraitu zutenekin zer gertatu zen, nola bizi behar izan zuten jakitea ere garrantzitsua da.

**Euskal Herrian ez ezik, Espainian ere egin dituzue deshilobatze lanak. Zenbat eskaera jaso dituzue eta zenbat gorpuzkin aurkitu?**
Eskaerak 200 inguru izan dira eta aurkitutako gorpuzkinak, berriz, asko. Denak taldeka edo multzoka lurperatuta aurkitu ditugu, bitik aurrera.
Erakusketako zoruan lankide batek hobi bati ateratako argazki erreala dago. Hobiaren benetako tamaina ikusten da eta 29 pertsona daude hor. Tartean daude Aranda De Dueroko eta ondoko herri bateko alkateak eta zinegotziak. Argazki horrek zirrara sortzen du eta denak gonbidatuko nituzke erakusketa ikustera joateko.

**Zuen lana egiteko oztoporik izan duzue?**
Ez. Batzuetan gehiago lagundu digute beste tokietan baino, baina oztoporik ez dugu izan.
Senideengandik, berriz, esker onak jaso ditugu, bai, behintzat, eskaera egin dutenengandik.

**Ze eskaera duzue orain esku artean? Non egingo dituzue hurrengo lanak?**
Nafarroara goaz berriz. Bi tokitan topatu behar ditugu hilobiak eta aurkitzen baditugu, jakinaraziko dizkizuegu guztioi. Horrez gain, Ezkaba mendian hasitako lanak bukatu nahi ditugu eta maiatzean eta ekainean han ibiliko gara.
Beste lan bat ere egingo dugu laster, Teruelen, baina oraindik ez dugu finkatuta noiz hasiko ditugun lanak, egingo ditugula bakarrik. Kasu horretan, baina, bestelako hildakoak dira hilobietan daudenak.

**Bukatu aurretik, Lourdes, Batasar Garzonen inguruko galdera, derrigorrean. Gerra zibileko miaketen harira auziperatu dute Garzon epailea. Zein da zure iritzia gai horren inguruan?**
Uste dut gauza asko nahasten direla eta bereizketa ere zaila dela. Pertsona, epailea, eraman duen kausa, eraman duen modua ... gauza asko daude aztertzeko, baina uste dut bidez kanpokoa dela. Hainbat gauza mugatu, zehaztu behar dira.
Baina zer da, epailearen kontra egindakoa edo epaitu nahi zenaren kausaren kontrakoa? Eta hor zalantzak sortzen dira, batez ere ikusita norengandik datorren akusazioa. Lege kontuekin lana egiten dutenak ez badira ados jartzen legeak interpretatzerako orduan eta nola aurrera atera behar diren jakiteko orduan, zer esango dugu herritarrok?
Hala ere, argi dago kontu hau ez dela garbia.

**Etzi emango duzu hitzaldia?**
Bai. Guzti honetaz hitz egingo dugu Aroztegin 19:00etan.

ERAKUSKETA
**"Tamaina errealeko hilobi bat dago erakusketan eta 29 gorputz daude bertan"**

LANA
**"Egungo teknikekin ere beti ez da posible hilobiak aurkitu edo gorputzak identifikatzea"**

ESKAERAK
**"200 bat eskaera jaso ditugu guztira eta aurkitu ditugun gorpuzkinak asko dira"**

GARZON
**"Bidez kanpokoa da akusazio hori eta argi dago kontu hori ez dela garbia"**




**Oihane Isasi,** Goiena Telebistako errealizatzailea, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> BERGARAN ETA OÑATIN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista

***Ikustekoa!***

**kale inkesta**

# Aste Santuko oporraldia atzean utzi berri dugu. Zuretzat ba du kutsu erlijiosorik?



**Igor Loiti**
Langilea
Bergara

Niretzat ez du inongo zentzu erlijiosorik, opor hutsak moduan hartzen ditut. Hau da, gozatzeko egunak dira niretzat, besterik ez. Gurasoek-eta erakutsi digute Aste Santua dela, baina ni ez naiz sinestuna.



**Mireia Arakistain**
Langilea
Bergara

Niretako opor hutsak dira eta ez naiz Aste Santua dela-eta antolatzen diren ekitaldietara joaten. Nire gurasoek ere ez dute egun horietan egiten diren ohiturak jarraitzen eta eurendako ere opor hutsak dira.



**Beatriz Guridi**
Erretiratua
Bergara

Mezetara joateko ohitura daukat, baina egiten diren prozesio asko zirko batzuk direla uste dut. Hemen egiten diren prozesioak ez dira turismora begira eginak. Hala ere, iritzi guztiak dira errespetagarriak.



**Salome Altuna**
Erretiratua
Eskoriatza

Lehengo erara bizitzen dut Aste Santua, eta mezetara joateko ohitura daukat. Elizkizunetara jende gutxi joaten da, gehienek opor moduan hartzen dute-eta. Baina ez joateko erabakia hartzea ere ondo ikusten dut.

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Txakur kaken gaineko arautegia indarrean jartzeko**

Arrasateko irakurle batek idatzi digu esanez kokoteraino dagoela txakur kakaz. "Erdigunean bizi naiz eta egunero aurkitzen ditut txakur kakak kalean; ezin da hori jasan". Horren aurrean, Udalari eskatu dio "behingoz jabeei txakurren gaineko arautegia bete arazteko". Txakurrak gustuko dituela esan digu, baina halako jarrera duten jabeak ezin dituela jasan.

ARETXABALETA
**> Arkuperen kultura eskaintza, gustukoa**

Aretxabaletar bat gurekin harremanetan jarri da Arkupe kultura etxearen zerbitzua txalotzeko. "Bazen ordua herrian filmetaz eta bestelako ikuskizunetaz areto egoki baten gozatzeko. Esango nuke Arkupe dagoenetik herria zelanbait berpiztu egin dela", azaldu digu. Eta, horrekin lotuta, jakinarazi du Arkupek eta herriko saltokiek elkarlanean abiarazi duten zozketa eta sariketa kanpaina oso positiboa iruditu zaiola. "Bide batez, herriko saltokiak eta herrian egiten diren ikuskizunak indartzea oso ideia ona da".

ARRASATE-ARETXABALETA
**> Errepideko zuloak estaltzeko premia**

Hainbat mezu bidali dizkigute ohartaraziz Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidean zulo handiak daudela. "Badakit lanean dabiltzala, baina komeni da halako zulo batzuk estaltzea, segurtasunagatik ez bada ere", azaldu dute.

**usteak uste**

**Iker Barandiaran**

# Gaiztoen herria ote da?

Azken aldian Aramaiok hedabideetan lekua izan du (ez guztietan, jakina) edo, hobe esanda, inoiz baino albiste gehiago sortarazi ditu. Eta ia kasu guztietan atzean AHT dago.

Urtarrilean mendi zati bat errepide nagusira jausi zenean, munduak zeharo ahaztu zuen Aramaion jendea bizi dela eta egunero joan-etorriak egiten dituztela. Hala, hedabide gehienek ez zuten hori landu eta AHTko lanen ardura duen ADIFek ezta erakundeek ez zioten arazoari ganorazko konponbiderik aurkitu.

Ordutik partxez betetako bidezidor batetik barrena dabil joan-etorriko zirkulazio guztia. Eta, paradoxikoki, etzi, Aramaioko alkatea epaituko dute Gasteizen, 2007an Aramaion AHTren gaineko herri galdeketa egin zutelako. Orduan %98a proiektuaren kontra zegoen. Gaur egun, zenbat egongo litzateke?

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

# Hondakinen kudeaketa dela-eta

"Gipuzkoar bakoitzak 2009an aurreko urtean baino %6 zabor gutxiago sortu zuen". Biztanleko 589 kilo zabor pilatu ziren, aurrekoan baino 36 gutxiago; eta %39a birziklatu zen. Aldundiak Sasietako Mankomunitatearekin hitzarmen bat sinatuko du bosgarren edukiontzia indarrean jartzeko."

**'www.noticiasdegipuzkoa.com'**
> 2010-04-10


noticiasdegipuzkoa.com
Cada guipuzcoano generó en 2009 un 6% menos de basura que el año anterior
SE PRODUJERON 589 KILOS DE RESIDUOS POR CIUDADANO, 36 MENOS, Y SE RECICLÓ EL 39%
La Diputación firmará un convenio con la Mancomunidad de Sasieta para implantar el quinto contenedor

Ostiralean Gipuzkoako Foru Aldundiak zabaldutako datuen arabera, 2009an Gipuzkoako herritar bakoitzak 589 kilo hondakin sortu genituen, aurreko urtean baino 36 kilo gutxiago. Debagoienan hondakinen gutxitzea %6,45ean eman dela azaldu dute, baina hondakinen gutxitze honek krisiarekin eta ondoriozko kontsumoaren gutxitzearekin zerikusia izan dezakeela azaldu dute.

Birziklatzeari dagokionez, %39a birziklatzen omen da eta Suedia, Belgika, Grezia eta Espainiaren birziklatze datuekin konparatuz, positiboki baloratzen da hondakinen kudeaketa. 5. kontenedorea, hondakin organikoena, gure bailaran Aretxabaltan bakarrik dagoena, Gipuzkoan beste zonalde batzuetan zabaltzeko apustua egina dagoela dioskue.

Datu hauen positibotasuna aldarrikatu nahi izan badigute ere, niri susmagarria iruditzen zait Usurbilgo Itunari buruz ezer ez aipatzea eta atez ateko zabor bilketa sistema Usurbilen ematen ari den emaitzak ikusirik eta orain Hernanin eta beste udalerri batzuetan martxan jarriko dela ikusirik, oraindik 5. kontenedorearen hautuari soilik eustea. Usurbilgo Itunak organikoaren bilketari ematen dion garrantzia handia izanik ere, atez ateko sistemaren abantailak datu itxaropentsuagoekin hornitu ditu: bilketa selektiboa %85ra iristen da, eta inpropioen kopurua marginala da, konpostaren kalitatearen onurarako; emaitzak berehalakoak dira: Usurbil %76ra iritsi zen lehenengo 4 asteetan; hondakinen gaikako bilketa-sistema merkeena da eta Gipuzkoan 477 lanpostu sortuko lituzke. Eta azken datu esanguratsua, gaikako bilketa eta konpostajea herri guztietan tartekatuko dituen sistema jarrita, Zubietako erraustegiaren beharra 6 urtetan desagertuta egongo litzateke. Ostiralean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak izugarri hobetuko lirateke. Nork irabaziko lukeen eztabaida? Gipuzkoarron osasunak, dudarik gabe. Gure bailaran ere eztabaida gizarteratzeko ordua iritsi delakoan nago, gure hondakinen kudeaketan arduratsuagoak izan gaitezen.

**"Atez ateko zabor bilketa sistema aintzat ez hartzea susmagarria da"**

**"Hondakinen kudeaketaren eztabaida, noizko?"**

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jon Berezibar, Julen Iriondo, Jokin Bereziartua **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Ekin Emakumeak Elkarteak 15. urteurrena ospatzeko, ekitaldi ugari eguaztenetik aurrera > 14



**> OÑATI**
San Lorentzoko igogailuen lanak aurrera doaz; aurreikuspena da urte amaierarako bukatzea > 18



**> ARAMAIO**
Txikiendako ziburu berriak jarri dituzte Bañera parkean; 56.000 euroko kostua izan du lanak > 20

**ARAMAIO** > INGURUMENA ETA LEHEN SEKTOREA

# 'Baserri barri' proiekturako eraikina egiten hasiko dira datorren hilabetean

**EKOIZLEAK**
Herriko ekoizleen produktuak batuko dira eraikin horretan

**GERTUTASUNA**
Produktu horiek inguruko herrietan saltzea da asmoa

**3,5 MILIOI**
'Aramaio aurrerakin proiektua'ren barruan dago sartuta; 3,5 milioi behar dira horretarako



Mendixola gainean egingo dute ekoizleendako eraikina; dena ondo baldin badoa, datorren hilabetean hasiko dira obrak. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO

Proiektu potoloa du esku artean Aramaioko Udalak: *Aramaixo aurrerakin proiektua*, hain justu ere. Aramaioko alkate Asier Agirrek eta Ingurumen zinegotzi Jon Errastik azaldu dute asmoa dela hori lau urteko epean martxan jartzea eta horretarako, 6 milioi euro bideratuko direla.

Egitasmo hori, aldi berean, hiru proiektutan dago banatuta. Batetik, biomasa galdararena dago. Agirreren esanetan, "Udalak egindako energia ikerketak ondorioztatu du udal eraikinek zein etxe partikularrek gastu handia dutela gasa eta gasolioarekin. Egurra erabiliaz, Ibarra berotuko genuke". Biomasako galdararen berokuntza sistemak ahalbideratuko luke hori, kultura etxearen ondoan egurra erretzen duen galdara handia jarriz. Horretarako aurrekontua 2,4 milioi euro ingurukoa da.

**LEHEN SEKTOREA**

Bestetik, *Aramaixo baserri barri* dago. Udalerriko lehen sektorea bultzatzea bilatzen du horrek. Horretarako, hainbat mekanismo jarriko dira indarrean. Tartean, bertako ekoizleak (eztia, okela eta baratzeko produktuak ekoizten dituenak, besteak beste) zigilu baten barruan elkartu nahi dituzte. Alkatearen arabera, "ahal dela gertuko merkatuan jarri nahi ditugu produktuak. Gure helburua ez da produkzio handia egitea, baizik eta bertako eta inguruko herrietara kaleratzea. Hori aurrera ateratzeko, hainbat pausu finkatu dira; hala nola, eraikin bat egitea, produkzio kopurua zehaztea eta langileak jartzea". Jarraian, gutzi hori martxan jarriko litzateke. Guzti hori egiteko, 3,5 milioi euro behar dituzte.

**LAGUNTZAK ESKATUTA**

Alkateak aurreratu digu biomasa galdara jarri ahal izateko, laguntzak eskatu dizkiola Jaurlaritzari eta orain erantzunaren zain daudela.

Bestalde, lehen sektorea bultzatzeko, dagoeneko bi arlotan hasi dira lan egiten. Batetik, produktugile guztien materiala batu eta kaleratuko duen eraikina egiteko tramiteekin hasi dira. Dena ondo baldin badoa, datorren hilabetean hasiko lirateke Mendixola gainean obra horiek egiten, E-Planaren laguntzarekin. Errastiren esanetan, "Udalak ez zeukan herri inguruan lurzorurik eta hortaz, Diputazioarekin permuta egin dugu; 7.000 metro karratu inguruko lurzorua da". Bestetik, eraikina egiteaz gain, erakustoki bat ere jartzekotan dabiltza, hiltegian.

**MAIATZEAN, HERRITARREKIN**

Udalak dagoeneko lehen aurkezpen bat egin du, erakunde publikoendako. Baina, herritarrek ere horren gaineko informazio zuzena izan dezatela nahi dute eta hori dela-eta, beste bi aurkezpen egitea aurreikusi dute udal ordezkariek; bata *Aramaixo aurrerakin proiektu* osoarena, eta bestea, biomasa galdararen berokuntza sistemarena; azken hori Ibarrako herritarrei zuzenduta egongo da bereziki, beraiei eragiten die-eta. Agirrek jakinarazi du ziurrenik maiatzean egingo dituztela batzar horiek.



Eguazteneko boleibol txapelketako partaideak Iturripe kiroldegian.. TXATXILIPURDI



Lacasitosez gainezka dagoen pastela, Santa Marinako lokalean. JOSETXO ARANTZABAL



"Joku zikinak" Santa Marinan. TXATXILIPURDI



Biteri plazan gaztetxoak prest, Urkulura igotzeko egubakoitzean. TXATXILIPURDI

**ARRASATE** > GAZTE TXOKOAK ETA LUDOTEKAK

# Kirola, jolasak, pastelak eta pizza goxoak, Pazko Asteko menuan

Jolas eta ekintza bereziekin josi dute Pazko Astea Txatxilipurdikoek

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Pazko Astean Txatxilipurdikoek zerbaiti tarterik uzteko asmorik ez badute izan, hori aspergura izan da. Kirolzale, saltsero eta gozozale gaztetxoenek ez dute aitzakiarik izan Gazte txokoetan. Bizikleta eta boleibola izan dute aukeran kirolaren zaletuek. Eguaztenean boleibolean bota zuten izerdia Iturripeko kantxan eta ostean bazkaria egin zuten gaztetxoek. Bizikleta hartzeko txanda egubakoitzean egokitu zen Urkulura egindako txangoan. Ostean, horiek ere askaritxoa egin zuten Erguingo lokalean indarrak berreskuratzeko.

**ESKUAK ZIKINTZERA**

Izerdia bota bakarrik ez, ondo pasatzeko bestelako aukerak ere izan dituzte Arrasateko ume eta gaztetxoek oraingo astean. Esandako moduan, saltseroenek ere izan zuten euren eguna egubakoitzean bertan pizza eta pastel goxoak egiteko Santa Marinako ludotekan. Hori bakarrik ez, saltseroagoek "jolas zikinak" egin zituzten ludoteka berean. Batzuek eskuak orearekin eta azukrez zikintzen zituzten bitartean, beste batzuek goitik behera irinez betetzeko erreparorik ez zuten izan.

**BERGARA** > UMEAK

## Artista txikiak, eta magia egubakoitzean

Pazko Astean Bergarako txikienek Seminarioko patioko arkupeak kolorez betetzeko aukera izan zuten eskulan tailerrarekin eta baita lortu ere. Aurpegiak margotu, muralak egin, marrazkiak... artista txikienek gozatzeko moduko arratsaldea izan zuten Udalaren eskutik.

Koloreen fantasia, baina, Seminarioan ikusi ziren eskulanen hasiera besterik ez zen izan. Egubakoitz arratsaldean magia ikuskizuna izan zuten Zabalotegi aretoan Eriz magoarekin, eta haren txantxa, jolas eta trikimailuekin amaitu zuten asteko egitaraua.



JOSETXO ARANTZABAL



MIREIA BIKUÑA

**ANTZUOLA** > ERRETIRATUAK

# Urteko kontuak onartu dituzte batzar orokorrean

Urteko kuota euro bat igotzea onartu zuten zapatu arratsaldean Torresoroan

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Urteroko batzar orokorra egin zuten Antzuolako erretiratuen elkartekoek zapatu arratsaldean 50 bat kiderekin. Kontuak irakurri, onartu eta kuotaren igoera adostu zuten 7 eurotik 8ra, ekintzen gastuei aurre egiteko.

**EKINTZA UGARI**

Aratusteak, txistorrada, urteko bazkaria... joandako urtearen balantzea egin eta datozen hilabeteetarako prestatzen dabiltza dagoeneko. Bilera, ohi moduan, giro paregabean eta lunchrearekin amaitu zuten Torresoroan.



Erretiratuen batzordeko kideak. JOSETXO ARANTZABAL



Klaustroetan dago erakusketa. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > LIBURUAREN EGUNA

# Afrikatik bidaia, literatura gidari hartuta Kulturaten, hil amaierara arte

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Afrika hitza osatzen duten sei hizkiak baliatuz, kontinentetik zeharreko bidaia da Kulturateko klaustroetako proposamena. Liburuaren eguna aitzakiatzat hartuta (apirilaren 23an da, zehazki Liburuaren Nazioarteko eguna), antolatutako erakusketa da *África, casa de palabras*. Literatura, geografia eta kultura nahasten dira erakusketan, hilaren 25era bitartean zabalik egongo dena 17.30etik 20.30era bitartean.

**JOLASAK**

Erakusketan azaldutako hizki bakoitza da gida eta, hain zuzen, letra bakoitza jolas txiki batekin dator, betiere, kultura eta sentsibilizazioa nahastuta. Afrikan kokatzen diren eleberri ezagunak, hizkuntza ezberdinak edota geografia bera ezagutzea da helburua.

**ARRASATE** > OSPAKIZUNA

# Obrak amaituko direla-eta, afaria egin zuten Santa Marina auzokoek txaranga eta guzti

Egubakoitzean deialdia egin eta zapatuan kale berrituan afari herrikoia egiteko geratu ziren auzotarrak. Auzoko lanek urtebete iraun dute

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Urtebetez obrek eragindako zarata, eragozpen eta ezerosotasunak amaituta, afari-merienda antolatu zuten zapatu iluntzean Santa Marina kalekoek. Burrunbada itzela atera zuten obren amaiera iragartzeko eta ostean afaria egin zuten kalean bertan.

Umorerik ez zaie falta auzoan eta hori dela-eta, jaiak antolatu ohi duen txarangak deialdia egin eta afarirako mahaiak ipini zituen kale berrituan. Bakoitzak oturuntzarako bere janaria ekarri eta festarako gogo handiarekin auzotar talde batek turuta, danbor, akordeoi eta gutzi ospatu zuen. Obren zaratak, hortaz, txarangaren burrunbadak ordezkatu zuen zapatu iluntzean.

**GUZTIZ AMAITU BARIK**

Hala ere, obrak amaitzeko oraindik berdeguneen txukuntzea falta da, datozen egunetan egingo dutena.Urbanizazio lanak, baina, amaituta eta txukun geratu dira.




Auzotarrak, obrak amaitu direla-eta, topa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**Marije Salterain, Lourdes Ugalde, Maite Uribarren eta Izaskun Olaizola** > Ekin Emakumeak elkartea

# "Emakume erdaldunek euren burua garatzeko duten beste aukera gura ditugu"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Ekin Emakumeak elkarteak 15. urteurrena bete du aurten. Eta hori ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte. Etziko, eguaztena, egin dute lehenengo hitzordua; azkena, berriz, apirilaren 30eko jaialdia da. Kontuak kontu, historian atzera egin eta elkartearen gainean berba egin dugu Marije Salterain eta Lourdes Uralde sortzaileekin, Maite Uribarren eragilearekin eta Izaskun Olaizola zuzendaritzako kidearekin.**



Marije Salterain, Lourdes Uralde, Maite Uribarren eta Izaskun Olaizola, elkartearen egoitza aurrean. GOIENKARIA

**15 urte dira Ekin elkartea sortu zenutela; baina zer da Ekin eta zer dela eta sortu zen?**

Elkarte egin zenetik 15 urte dira, baina badira 25 urte, AEDren barnean, lantaldea osatu eta aktibitateak antolatzen hasi ginenetik. Euskara ikasten zebilen emakume taldea ginen, euskaraz bizi nahi genuen, baina euskaraz ezer gutxi zegoen orduan, eta geu hasi ginen hitzaldiak eta ikastaroak euskaraz antolatzen. Horrela, Arrasateko beste emakumeei ere euskaraz bizi izateko bidea eskaini genien, lagunartean kafea hartzea baino zerbait gehiago, etxean zeuden andre asko –orduan ez zuten lanik egiten– kaleratu genituen.

**Zelako ekintzak egiten zenituzten hasiera hartan?**

Helburua euskaraz bizi izatea eta emakumeak horretara erakartzea zen. Beraz, denon gustukoak izan zitezkeen ekintzak antolatzen saiatu ginen: eskulanak, sukaldaritza, hitzaldiak, irteerak, taloak jaietan e.a. Era horretan, taldea sendotuz joan zen. Antolatzen genituen zenbait ekintzatan guziontzat lekua topatzeko ere nahiko lan izaten genuen.

**Zer eman dizue elkarteak?**

Proiektu inportantea martxan jartzea lortu genuen. Horrekin batera, ederki pasatzen genuen lagun giro ederrean, nahiz eta batzuetan leher eginda bukatu eguna; adibidez, taloak egin behar zirenean.

**Eta zein da elkartearen gaur egungo helburua?**

**"Etxean zeuden andre asko –orduan ez zuten lanik egiten– kaleratu genituen"**

Emakume erdaldunek euren burua garatzeko duten beste aukera izatea emakume euskaldunok. Emakume euskaldunen artean euskararekiko motibazioa eta erabilera lantzea dugu helburu. Eta baita ere emakume erdaldunen artean euskararekiko motibazioa sortzea eta ezagutza bultzatzea. Izan ere, ezin dugu ahaztu emakumeok hizkuntzaren transmisioan dugun garrantzia, eta euskara gure hizkuntza dela.

Helburuok oinarri, hainbat ekintza egiten ditugu, adibidez: eskulanak, tailerrak, erakusketak, kultur-aniztasun jaialdia, etorkinei bereziki zuzendutako programa ere badugu….

**Zer esango zenieke Arrasateko emakumeei?**

Animatu egin nahi ditugu, lehenik eta behin, gu ezagutzera; hainbat alor ditugu eta guztietan egiten ditugu ekimenak: Kultura eta Aisialdia, Ingurune Soziala, Hezkuntza eta Osasuna. Bestalde, Ekinen proiektua konpartitzen dugun elkarteko bazkideoi, bereziki, esan nahi dizuegu aukera duzuela zeuen ukitua emateko elkarteko lan-talderen batean parte hartuz.

## Egitaraua

**14, eguaztena**
**19:00** *Emakumeok Arrasateko historian* hitzaldia (Ana Ugalde historialaria) Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

**21, eguaztena**
**19:00** *Sutondoko ipuinak* ipuin kontaketa (Vanessa Gonzalez). Kulturateko Jokin Zaitegin.

**30 egubakoitza, jaialdia**
**17:00** Talo postua eta ume eta nagusiendako tailerrak Seber Altube plazan.

**Kulturaten**
**17:00** Orratz-lanen eta eskulanen eta lehengo argazkien erakusketa.

**Kulturaten**
**19:00** Miren eta Bea Bi Gira taldeko partaideen kantaldia.
Ekin elkartearen sortzaileei omenaldia.
Goikobaluren saiotxoa.
Luntxa.

**OBRAK** > GELMA-OSPITALE GUNEA

# Laster hasiko dituzte Zaldibarko pasealeku berria egiteko obrak, E Planaren kontura

**U.M.** > ARRASATE

Gelma gunea eta Ospitale gunea lotzeko pasealekua eraikitzeko obren lehiaketa deitu eta obrak ahalik eta lasterren hasi gura ditu Udalak, behin Estatuko E Planaren onespena jaso ostean bost hilabetean hasi eta bukatu gura du-eta obra osoa.

**URBANIZAZIO LAN HANDIA**

Gelmako etxebizitzetan hasi eta erreka gurutzatu ostean, ospitale guneraino iritsiko den oinezkoendako pasabidea gura dute eraiki. Ibilbide horrek, besteak beste, zubia izango du, eta errekaren bestaldean berdeguneak egokitu gura dituzte. Ingurua dagoen moduan, horrek urbanizazio lan handia eskatzen du.


Ibaia zeharkatuko duen zubia eraikiko dute. U.M.

Xehetasunen arabera, adibidez, Nafarroa etorbideko hainbat erakin bota egin beharko dituzte: SUDCek biltegi moduan erabiltzen duena eta txabola batzuk.

Bestalde, deigarria da, adibidez, pergola bat eraikiko dutela, oinezkoen ibilbide osoan.

Obra egiteko 865.131.26 euroko aurrekontua kalkulatu dute.

> GIZARTEA

### Zapatuan Arrasateko baserriko produktuak izango dira, baserritarren hileroko azokan

Apirilaren hirugarren astearekin batera iritsi da herriko baserritarren hileroko hitzordua: Seber Altubeko azoka. Oraingo asteko zapatuan, 09:00etan ipiniko dituzte saltokiak, 14:00ak arte. Udaberriarekin batera, gainera, kolore eta barietate gehiago ikusiko dugu baserritik kalera ekarriko dituzten produktuen artean. Ohi moduan, 10-12 bat baserritarrek ipiniko dute postua; eta urte honetan egin dituzten gainerako azoketan moduan, oraingoan ere erosleen artean baserriko produktuz betetako otarrea zozketatuko dute azoka amaitzean.

> OBRAK

### Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko proiektuaren dirulaguntza eskaera Jaurlaritzari

Espainiako Gobernuaren E Planaren antzera, Jaurlaritzak Hiriber programa abiarazi du, "lehentasuna duten auzoak eta hiri-eremuak hobetzeko". Bada, Arrasateko Udalak erabaki du Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko bidearen proiektua aurkeztea programa horretara. Hiriber programaren baldintzetako bat da udalerri batek ezin duela jaso milioi euro baino gehiagoko dirulaguntza. Gazteluondo eta Arrasate pasealekuaren arteko bidearen egitasmorako 827.544,18 euroko aurrekontua aurkeztu dute.



AGAKOko kideak, martxoaren 30ean, 19. urteurrenerako ekitaldien berri ematen. MONDRABERRI

**GAZTETXEA** > URTEURRENA

# 19 urte, eta bazterrak astintzen segitzeko asmoz

'Gu gara erregaia, pospolua eta garra' lelopean, "alternatiba eraikitzen" jarraitu gura du AGAKOk; hil osorako egitarau ezin oparoagoa antolatu dute

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

11 urte ospitale zaharrean eta beste zortzi urte Uarkape udal pilotalekuaren atzealdean, Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak –AGAKO– 19 urte bete ditu apirilean. Ia bi hamarkada pasa dira, eta beraz, badago zer ospatu. Hala, leloa beste hainbat urteurren ospatzeko modukoa da: *Gu gara erregaia, pospolua eta garra!* Izan ere, "inoiz baino kementsuago" dago AGAKO.

**IA EGUNERO ZERBAIT**

Honezkero urteurren ospakizunetan murgilduta dago gaztetxea. Eta nola, gainera. Izan ere, apirileko edozein egunetan gaztetxera hurbiltzen denak izango du zer egin, aurten ez dituzte-eta ekitaldiak aste bukaeretara mugatu. Ia egunero egongo da zerbait, hortaz. Hori bai, ekitaldi potoloenak asteburura begira antolatu dituzte. Egun bereziena hilaren 24a izango da, egun horretan ospatuko dute-eta Gaztetxe Eguna. Goizetik hasita, poteoa, herri bazkaria, bertso saioa, ginkana eta gaupasa egingo dute.

**LEHENGOEI AIPAMEN BEREZIA**

Azkenik, AGAKOk atzera bota du begirada, aurrera egiteko. Hau da, 19 urteotan "alternatiba eraikitzen" jardun duten gazte arrasatearrak gogoan izan ditu: "Gurekin ez dauden txorien hegaldiak ez du etenik izango".

## Apirileko egitaraua

**13, martitzena**
**17:30** Gaztetxeen inguruko DVD emanaldia.

**14, asteazkena**
**18:30** Perkusio topaketa librea.

**15, eguena**
**16:00** Eskalada ikastaroa.

**16, egubakoitza**
**22:00** Asanblada eta ostean trikipoteoa.

**17, zapatua**
**19:00** *Putusein* fanzinearen aurkezpena.
**19:30** *Ekintza zuzena* aldizkariaren azken alearen aurkezpena.
**22:30** Los Quadrophenicos, La otra cara del rock, Gorroto eta Krisis taldeen kontzertua.

**18, domeka**
**17:30** *Transgender* zinema zikloa. *Follame* filmaren emanaldia .

**20, martitzena**
**17:30** Gaztetxeen inguruko DVD emanaldia.

**21, eguaztena**
**17:30** Elektrizitate ikastaroa.

**22, eguena**
**22:00** *Karpeto* eguna.

**23, egubakoitza**
**18:00** Espeleologia taldearen eskutik, diapositiba emanaldia.
**22:30** Zea Mays eta Xasta taldeen kontzertua.

**24, zapatua,**
**12:30** Gaztetxe Eguna: Poteoa, herri bazkaria, bertso saioa, ginkana eta gaupasa.

**25, domeka**
**12:00** AHT-ren kontrako Mendi Martxa.

**28, eguaztena**
**17:30** Informatikari buruzko emanaldia.

**30, egubakoitza**
**18:00** Asel Luzarraga euskal idazle presoaren inguruko hitzaldia
**22:30** Punkamiñe eta Interprete Desconocido taldeen kontzertua

**ERRALDOI ETA KILIKIAK**

# Hilaren 14ra arte aurkez daitezke kartelak

5 eta 9 urte arteko haurrek hartu dute parte lehiaketan; hilaren 24ko jaialdia iragarriko du

**J.B.** > ARRASATE

Jende faltari eta konpartsaren egoera latzari txikienengana joz eman dio buelta, neurri handi baten, Erraldoi eta Kilikien konpartsak. Izan ere, haurrendako erraldoi eta kilikiak egin ostean, konpartsak txikienengana heltzeko beste urrats bat eman zuen martxo amaieran. Haur Hezkuntzako bosgarren mailako eta Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailetako ikasleei zuzendutako marrazki lehiaketa antolatu zuen. Hau da, 5 eta 9 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako kartel lehiaketa abiarazi zuen. Bada, kartela aurkezteko azken eguna eguaztena izango da, apirilaren 14a.

Kartelak *Entsegua kalean 2010* izeneko jaialdia iragarriko du. Herri osoarendako jaia izango da eta apirilaren 24a, zapatua, aukera dute data moduan. Hala ere, oraindik ez dute egitaraua erabat zehaztu. Helburua izango da txikienek konpartsan egiten duten lana kaleratzea eta, bide batez, orain bi urte egin zuten jaialdiari jarraipena ematea.

**KARTELAK, TTUKUN DENDARA**

Umeek Ttukun fotokopia dendan –Ferrerias kaleko 23. zenbakian– entregatu beharko dituzte kartelak. Eta, noski, sariak ez dira faltako. Irabazten duenari txapela eta konpartsaren kamiseta emango diote.

> AURKEZPENA

### Josu Arteaga idazleak bere lehen liburua aurkeztuko du zapatuan

Josu Arteaga idazle arrasatearrak bere lehen eleberria aurkeztuko du zapatuan, hilak 17. *Historia universal de los hombres gato* da liburuaren izenburua; lotsagabea da idazkeran eta politikoki okerra izan daiteke askorendako. Hala ere, barre egiteko tarteak ere baditu.

Donostian eta Bilbon aurkeztu ostean, gaztetxean aurkeztuko du Arteagak lehen eleberria. Alberdania argitaletxearekin kaleratu du eta ohiko saltokietan zein internetez –*www.alberdania.net*– dago salgai liburua.

> IRTEERA

### Errioxara antolatu du irteera Abaroak, apirilaren 21erako

Datorren apirilaren 21erako irteera antolatu dute Abaroako erretiratuek. Errioxara egingo dute txangoa, Arnedora, hain justu. Egun osorako irteera izango da eta Arnedoko leku enblematikoenak bisitatuko dituzte, baita bertako oinetakoen erakusketa ere.

Bi autobus jarriko dituzte eta izena ematen duen bakoitzak 27 euro ordaindu beharko du. Eguazten honetan zabalduko da izenemate data, 10:30ean. Txartelak hilaren 19an banatuko dira, 11:00etan. Beraz, interesatua adi ibili dadila.

**KULTURA** > LITERATURA

# Literaturaz gozatzeko aukera zabala izango da Liburuaren Egunaren bueltan

Erakusketa, ipuin kontalariak eta mahai ingurua izango dira, bestak beste

**J.B.** > ARRASATE

Egitarau interesgarria antolatu du Udal bibliotekak Liburuaren Egunaren harira. Honezkero *Africa, casa de palabras* erakusketa bisitatzeko aukera dago Kulturateko klaustroan. Hilaren 25era arte egongo da. Horrez gain, leku berean baina eguaztenean, Alaitz Muro eta Agurtzane Villate ipuin kontalariak izango dira (18:30). Eta 27an, berriz, Ixabel Millet etorriko da Santa Marinako bibliotekara. Eguenean, apirilak 15, ahozkotasunaren gaineko nazioarteko jardunaldiak egingo dira Kulturaten. Goizean Kataluniako Nunila Lopez eta Kubako Mirta Portillo izango dira hizlari (11:00); arratsaldean, berriz, Argentinako Nora Lua eta Italiako Luciano Federico (19:30). Eta apirilaren 16an Juan Ignacio Montianoren *Todo vale* liburuaren aurkezpena egingo da Kulturateko aretonagusian (19:00).

**PAPERETIK, DIGITALERA?**

Hilaren 22an purian dagoen gaia landuko dute Jorge Jimenezek, Josu Landak eta Eneko Barberenak *Liburu elektronikoa* izeneko mahai inguruan. Eta, apirilaren 27an poesiaren txanda izango da. *Bi anai: komuneko paperean idatzitako poemak* ikuskizuna egingo dute Kulturaten, 19:30ean.

Oihane Oliveri > Historian doktorea

# "Etxekoandreei etxea gobernatzeko funtzioa ematen zitzaien"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Oihane Oliveri errenteriarra Historian doktorea da. Tesia egin zuenean hasi zen XVI. mendeko emakumeak aztertzen. Hala, Marina Lopez de Mallea bergarararekin egin zuen topo. Oraintxe aurkeztu berri du *Mujer, casa y estamento en la Gipuzkoa del siglo XVI* liburua.**

**Emakumeak aztertu dituzu.**

Azaltzen dut Gipuzkoako XVI. mendean emakume kapareek (hidalgoek) ze funtzio betetzen zituzten, batez ere etxeko gobernuaren inguruan. Gizarte hartan etxeak garrantzi handia zeukan: emakumea etxearen inguruan, eta leinuaren inguruan aztertzeak bide ematen du ulertzeko gizarte sistema hartan emakumeek ze funtzio betetzen zituzten.

Genero harremanak ere azaltzen ditut, gizon eta emakumeen artekoak; eta emakumeek betetako funtzioek ze harreman zuten Gipuzkoan XVI. mendean eratu zen gizarte sistema orokorrarekin. Hori dena egin dut Bergarako etxe baten bilakaeraren azterketarekin: Egino-Mallea etxea.

**Nola heldu zinen Marina Lopez de Mallearen bizitza aztertzen hastera?**

Emakumeak aztertu nahi nituen, eta aurkitu nuen protokoloetan Marina Lopez de Mallea; ikusi nuen dokumentazio asko zeukala. Merkataritzaren inguruko eskriturak emandako emakumea zen, etxearen salmenta eta baserrien errendamendua ere eraman zuen… ikusi nuen izan zitekeela eredu baliagarria eredu orokorragoa aztertzeko. Azterketa ez da bakarrik Marina Lopez de Mallearena, da etxe horren bilakaera XVI. mende osoan eta baita Bergarako eta Gipuzkoako beste etxe batzuekin izan zituzten harremanak… etxe horretako kideek Bergarako herrian bete zuten lekua eta abar.

**Bergaran eta Gipuzkoan boterea zuen emakumea zen?**

Ezin daiteke esan boterea zuenik… bere etxea gobernatzeko gaitasuna zeukan. Berak eta beste batzuek autoritate bat zuten; autoritate horrek balio zuen etxean gobernatzeko, eta garai hartan horrek isla izaten zuen esparru publikoan. Zentzu horretan, esan daiteke autoritatea izan zuten emakumeak izan zirela; etxe boteretsuetakoak zirelako, eta etxekoandrearen figurari aitortzen zitzaion autoritate hori.

Beste botere maila batzuetan –adibidez, kargu politikoetan– ezin izan zuten parte hartu.

**Emakumeek ze paper jokatu zuten etxean eta etxetik kanpo?**

Garai hartan lan produktibo asko etxean egiten zen; baserriaren kasuan argi ikusten da hori. Baina berdin gertatzen zen artisautzan eta merkataritzan ere. Merkataritza antolatzeko modua etxekoekin egiten zen, familiako harremanetan oinarrituta.

Etxearen estrukturaren barruan zeuzkaten funtzio batzuk: oinordekotzari zegokiona, ezkontzari zegokiona eta etxeko gobernuari zegokiona. Etxeko gobernuari zegokion funtzio horretan etxekoandreari etxea gobernatzeko funtzioa ematen zitzaion.

> "Etxea gobernatzen zuten, baina politikan kargurik ezin zuten hartu emakumeek"
>
> "Ezkontzen ez ziren emakumeak estatus zibil zehaztugabean geratzen ziren"
>
> "Taldearen beharren arabera antolatzen ziren, gizabanako askatasun barik"

Marina Lopez de Mallea Bergarako merkatari leinu batekoa zen; burdina salerosten zuten. Denbora luzean Andaluzian egoten ziren; hortaz, bere senarra etxean ez zegoenean berak hartzen zuen etxeko gobernuaren ardura. Berak antolatzen zituen baserrien errendamenduak, berak egiten zituen lursailen erosketak…

Gero alargun geratu zen eta orduan bere gain hartu zuen etxearen gobernu osoa.

**Esan daiteke etxeak eurak emakumearen gotorleku ia bakarrak zirela?**

Politikan karguak ezin zituzten bete. Herrietan zeuden botere harremanetan kargu hartzen zuten, baina kargu politikoak ez zituzten bete, ez gobernu zibilean ezta elizako gobernuan ere. Botere bat zeukaten etxeko partaide ziren neurrian, besteetan ez zuten botere hori.

**Ezkontzen ez ziren emakumeen aukera zein izaten zen, moja sartzea?**

Bai, batez ere familia hauetan. Akaso hain boteretsu ez ziren familietan emakumeek lan egiten zuten, baina egia da ezkontzen ez ziren emakumeak geratzen zirela estatus zibil zehaztugabe baten. Geratu ahal ziren etxean, euren jaiotetxean; han bizi ahal ziren etxea oinordean jaso zuen senidearekin. Beste irtenbidea erlijioa zen. Batez ere, horrelako familietan komentuetara eramaten zituzten alabak.

Gizonezkoek aukera gehiago zituzten, ofizioren bat ikas zezaketen-eta. Familia hauetan ahalegintzen ziren ondo kolokatzen; militar bezala edo bidaltzen zituzten komertzioan aritzera.



Oliveri historialaria, liburuarekin. GOIENKARIA

**Aldea zegoen baserri xume bateko edo familia oneko emakumeen artean?**

Bai, egongo zen aldea! Baserrietan ere etxekoandrearen figura onartzen zen, familiaren antolaketa ez zen hain ezberdina. Ezberdina zen zeuzkaten baliabideak. Nik aztertu ditudan familiak etxe aberatsetakoak ziren; orduan, ez da berdina alargun geratzea dirua, lurra, patrimonioa eta baliabideak izanda edo ezer gabe.

Bizimoduan zeuzkaten aldeak ekonomiak markatutakoak ziren, ez hainbesteraino familiaren antolaketan.

**Esan daiteke garai hartan eskubide indibidualak hain presente ez zituztela eta familia eta leinutik bizi zirela?**

Bai, gizabanakoaren ideia Ilustrazioarekin sortutakoa da. Familiak, leinuak, taldeak… pisu handia zuten bakoitzaren bizitzan. Taldearen beharren arabera antolatzen ziren. Gizabanakoaren askatasun marjinak nahiko estuak ziren oraingo ikuspuntutik begiratuta.

**Emakumearen boterea nola aldatu zen ondorengo mendeetan?**

XVIII. mendera arte mantendu zen eredua, eta ondoren, aldatu egin zen. Alde batetik, ekonomian aldaketak izan zirelako; eta bestetik, gizabanakoaren ideia sortzen hasi zelako. Familiaren estrukturak aldatzen hasi zirelako… prozesu bat bizi izan zen eta emakumearen figura aldatu egin zen. Etxekoago bihurtu zen, baina gaur egun guk etxeko esparruari ematen diogun zentzuarekin. *Etxekoandre* hitzaren zentzua aldatu egin zen garai hartan.

Bestetik, emakumeak hasi ziren beren lekua aldarrikatzen gizabanako moduan.

---

**POLITIKA** > OSOKO BILKURA

## Jon Antzarekin gertatutakoaz kezka adierazi du Udalak

### Mozioaren bitartez babesa adierazi die senideei

A.E. > BERGARA

Jon Antzaren heriotzaren aurrean, harekin gertatutakoaz kezka adierazi du Udalak. Martxoko osoko bilkuran onartu zuten Antzaren aldeko mozioa. Modu horretan, senide eta hurbilekoei babesa eta elkartasuna adierazi die Udalak.

Antzaren aldeko mozioa ezker abertzalearen eta EAren aldeko botoekin, EAJren eta Aralarren abstentzioarekin eta PSE-EEren aurkako botoekin onartu zuten. EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen. PSE-EEren eta ezker abertzalearen ezezko botoak eta Aralarren abstentzioa izan zituen.

**BAIONAKO PROKURADOREA**

Anne Kayanakis Baionako prokuradoreari ikerketa sakona egiteko eskatuko dio Bergarako Udalak onartutako mozioaren bitartez, esanez ikerketan ez dezala "estatuen gerra zikinaren" hipotesia edo aukera "baztertu".

---

> EUSKARA

## Martin Gallastegi idazle eta euskaltzaleak eskuz idatzitako koadernoa eman dio Udalari

Martin Gallastegik dohaintza egin dio Udalari, Juan Luis Bikuñaren bitartez. Hain justu ere, honako izenburua duen eskuz idatzitako koadernoa eman dio: *Neurtitzetako azken-izki berdintsuak. Galastegi'tar Martin'ek*. Edukia alfabetikoki antolatuta dago, hitzen bukaeren arabera. Euskarazko hitza dakar eta ondoan gaztelaniazko itzulpena, eta badirudi olerki lanetan trebatzeko helburuarekin egin zuela.

Gallastegi 1909. urteko irailaren 9an jaio zen Moiua-aldeko baserrian. Euskaltzalea, idazlea, poeta, bertsolaria, eskultorea… Agerkari askotan artikuluak idatzi izan ditu. Gaur egun Zumaian bizi da, Otezuri egoitzan.

**KULTURA**

# Joseba Irazokiren emanaldia ostiralean

## Berako kantariak 'Euria ari du' diskoa aurkeztuko du Zabalotegin

**E.M.** > BERGARA

Urtarrilaren 10ean elurragatik bertan behera geratu zen Joseba Irazokiren emanaldia izango da egubakoitzean, apirilaren 16an, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Beratarrak bere azken diskoa, *Euria ari du* izenburukoa, aurkeztuko du Bergaran. Emanaldirako sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.

Apirileko kultur programazioari dagokionez, nabarmentzekoak dira era berean Apirilean Musika jaialdiaren VI. ekitaldia (hilaren 26tik 30era) eta Udaberriko erromeriak (lehen hitzordua hilaren 23an izango da). Zine-klubeko programazioaren barruan, eguenean, hilaren 15ean, *Los caminos de la memoria* eskainiko dute Zabalotegin, 20:00etan.

**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETA**

Bestalde, eguenean, apirilaren 15ean, bukatzen da Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak jasotzeko epea. Udaleko Euskara Batzordeak deitu du lehiaketaren 25. ekitaldia. Aurten gainera, eskola-irratia ere landu dezakete parte-hartzaileek gainontzeko ahozko generoekin batera: txiste, ipuin kontaketa, bertsoak... Argibidetarako, 943 77 91 66 telefonora jo dezakezue.




Kirol gunearen inguruko informazioa eraginkorragoa izatea da helburua. Gaur egun, 4.000 erabiltzaile inguru ditu Agorrosin kirol guneak. JOSETXO ARANTZABAL

**KIROLA** > UDAL ZERBITZUAK<

# Agorrosingo informazioa, SMS eta posta elektroniko bidez

## Maiatzaren 1etik aurrera doako zerbitzua eskainiko zaie erabiltzaileei, oharrak eta bestelakoak SMS eta posta elektronikoz bidalita

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Agorrosin kirol guneko abonatu eta erabiltzaileek SMS eta posta elektroniko bidez jaso ahal izango dute kirol instalazioaren gaineko informazioa maiatzetik aurrera. Hain zuzen ere, orain arte paretetan jarritako oharrak SMS eta posta elektroniko bidez banatuko dituzte aurrerantzean, informazioa eraginkorragoa izateko helburuarekin.

Urte berriko kirol tasak, ikasturteko ekintzak zein egutegiak eta ordutegiak, instalazioaren ezusteko itxiera jakinarazpena eta horrelakoetaz ohartaraziko dituzte erabiltzaileak. Mezuaren edo informazioaren premiatasunaren arabera, SMS edo posta elektronikoz bidaliko dute informazioa. Premia gehien dutenak, matxura bategatik instalazioen ixtea esaterako, SMS bidez zabalduko dituzte eta informazio orokorra posta elektroniko bidez.

**DATUAK BATZEN**

Apirilaren 12tik 30era erabiltzaileen sakelako telefono zenbakiak eta helbide elektronikoak jasoko dituzte. Eta, esan bezala, maiatzaren 1etik aurrera zerbitzua erabiltzen hasiko dira. Zerbitzua borondatezkoa eta doakoa dela azpimarratu du Kirol Zerbitzuak

**ASEBETETZE INKESTAK**

Bestalde, apirilaren 15era arte erabiltzaileek eskuragarri izango dituzte asebetetze inkestak betetzeko inprimakiak Agorrosingo harreran. Igerilekua, bainuetxea eta *fitness* gela baloratzeko aukera dute erabiltzaileek. Joseba Albisu kirol teknikariak emandako datuen arabera, 4.000 erabiltzaile inguru ditu Agorrosinek gaur.

Uda kanpainari begira hasi dira prestaketa lanetan dagoeneko. Kirol Zerbitzutik jakinarazi dutenez, ekainaren 11n hasiko da aurtengo uda kanpaina.



MUSIKA ESKOLA

# Antzerki aktore harrobi bikaina

Musika Eskolak antolatutako antzerki tailerra bukatu zen martxoaren azkenetan. Hamabi lagunek hartu dute parte eta hiru orduko lau saio egin dituzte, Aitziber Garmendia irakaslearen agindutara. Ikasleen arabera, oso aberasgarria izan da ikastaroa. Hala ere, motzegia gertatu zaie eta beste ikastaro bat egiteko gogoa azaldu dute. Aitziber Garmendia irakaslearen iritziz, Bergaran ez da talenturik falta antzerkia egiteko. Goian, ikastaroko partaideak Aitziber Garmendia irakaslearekin batera ikus ditzakezue.



LOKATZA

# Lokatzako saria, Jon Zabalarentzat

Lokatzak Gorlako sarian egindako zozketan 1.362 izan da saritutako zenbakia eta Jon Zabalak eraman du saria: urdaiazpiko bat (Jesus Iñarrak emandakoa) eta ardo kaja bat (Atxega ardoak). Argazkian, Jon Zabala saria jasotzen, Peio Garitano Lokatza Ziklismo Eskolako ordezkariaren eskutik. Lokatzak eskerrak eman nahi dizkie zozketan parte hartutakoei eta Gorlako igoeran laguntza eman zuten guztiei.

**ERRETIRATUAK** > BATZARRA

# Pake Lekuko batzorderako bost kide berri aukeratuko dituzte eguaztenean

Urteko Batzar Orokorra Santa Anan egingo dute 17:00etan, eta zazpi hautagaien artean batzorderako kide berriak aukeratuko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarteko bazkideek hitzordu garrantzitsua dute eguaztenean; hain zuzen ere, urteko batzar orokorra egingo dute, eta zuzendaritza batzorderako bost kide berri aukeratu beharko dituzte. Batzarra Santa Ana antzokian egingo dute: lehen deialdia 16:30ean, eta bigarrena 17:00etan.

Pake Lekuko 1.400 bazkideek jaso dute etziko batzarrerako deialdia eta hautagaien zerrenda gutun bidez. Berez, 1.600 bazkide ditu erretiratuen elkarteak, baina 200 bat 80 urtetik gorakoak dira, eta ez dute urteko kuota ordaintzen. Hortaz, ez dute botoa emateko eskubiderik.

**PRESIDENTE BERA**

Urteko batzar orokorra bi zatitan banatuko dute. Lehen zatian 2009ari errepasoa egingo diote; besteak beste, iazko memoria irakurriko dute, eta elkartearen kontuak izan dituen sarrerak eta irteerak azalduko dituzte. Gainera, 2010erako aurrekontua eta helburuak azalduko dituzte.

Bigarren zatian, zuzendaritza batzordea berrituko dute. 14 kidek osatzen dute batzordea, eta bosteri erreleboa hartzeko ordua heldu zaie. Euren lekukoa hartzeko zazpi hautagai ditu zuzendaritzak, eta batzarrean parte hartzen dutenek bost aukeratu beharko dituzte.

Pake Lekuko presidentea ez dute aldatuko, eta beste urtebetez Ana Mari Zumaldek beteko du kargu hori.

**HITZALDIA**

Bestalde, bihar hitzaldia egingo dute erretiratuen elkartean 17:00etan. Nagusilanen laguntzarekin afektibitatearen eta sexualitatearen gainean egingo dute berba. Hitzaldia gazteleraz egingo dute.



MIREIA BIKUÑA

## Aurrera doaz San Lorentzoko igogailuko lanak

San Lorentzon igogailuak jartzeko lanak aurrera doaz. Oraingoz bi igogailuak jarriko dituzten tokietan egiturak jarri dituzte, argazkian ikusten den moduan. Hain zuzen ere, lehena Artxubi tabernaren parean zegoen jolaslekuaren atzean jarri dute; eta, bigarrena, goiko plazatxoan. Azken horrek, bi solairu izango ditu pasarela eta guzti, auzoko goiko eremuraino heltzeko.

San Lorentzo auzoko irisgarritasuna hobetuko duen lanak otsail hasieran hasi zituzten, eta epeak betetzen badituzte, urte amaierarako bukatuko dituzte. Lanok egiteko 900.000 euro inguru gastatuko ditu Udalak, eta Lourdes Idoiaga alkatearen hitzetan, "auzoko 1.600 bizilagunek irisgarritasuna irabaziko dute %57 inguruan".

### oharrak

DEIALDIA

**> Odol-ateratzea egingo dute hilaren 16an**

Odol emaileen taldekoek beste deialdi bat egin dute hilaren 16rako. Donostiako mediku eta erizainak ikastolako aretoan egongo dira 18:00etatik 20:00etara. Hurrengo ateratzeak egingo dituzte maiatzaren 7an eta ekainaren 11n.

BIRZIKLAPENA

**> Etxeko olioa batuko dute hilaren 24an**

Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuan egongo da hilaren 24an 09:00etatik 13:00etara. Maiatzean bi bilketa egingo dituzte: 8an bata, eta 22an bestea.

ARTEA

**> Agustin Goenagaren erakusketa**

*Gabrielaren umeak, Mistralen Txileak* argazki erakusketa zabalduko du Goenagak gaur. Maiatzaren 2ra arte ikusgai egongo da 18:00etatik 20:00etara arte.

**LITERATURA** > OSPAKIZUNA

## Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte

Hilaren 19tik 23ra Liburuaren Astea egingo dute; eta bihar, haurrendako zientzia tailerra

**M.B.** > OÑATI

Nazioarteko Liburuaren eta Haur Liburuaren Egunak ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte datozen egunetan; hain zuzen ere, Liburuaren Astea egingo dute hilaren 19tik 23ra, eta bihar haurrendako zientzia tailerra.

Bihar, 18:00etan Mad Scienci taldearekin zientzia tailerra egingo dute 8 urtetik gorako neskamutikoendako. *CSI* telesailean egiten duten moduan arrastoak nola topatu, informazio nola batu eta erretratu robotak nola egiten diren ikasiko dute.

**AFRIKAKO IPUINAK**

Bestalde, Boniface ipuin kontalari afrikarrak hango ipuinak kontatuko ditu hilaren 20an: umeendako saioa 17:30ean egingo du, eta helduena 19:30ean. Gonbidapenak gaurtik jaso daitezke liburutegian.

Zinemak ere lekua izango du Liburuaren Astearen barruan. Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet protagonistak dituen *Revolutionary Road* pelikula emango dute hilaren 22an, 20:00etan.

Azkenik, hilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko dute. Egun horretan helduen liburutegian bildumatik erretiratu dituzten liburuak bazkideen eskura jarriko dituzte.

**JENDARTEA** > OHARRA

## Izatezko bikoteen erroldako izenematea, Donostian

Oñatiko Udalean zegoen erregistroaren funtzionamendua eta araudia eten egin dute

**M.B.** > OÑATI

Izatezko bikoteen erregistroan izena eman gura duten bikoteek Donostiarako joan beharko dute. Izan ere, Udalak 2007ko otsailetik indarrean zuen elkarketa zibilaren erregistroaren funtzionamendua eta araudia eten du, Gobernu Ordezkaritzaren aginduz.

**BIAK BATERA**

Aurrerantzean izatezko bikoteen erroldan izena eman gura dunetei informazioa bakarrik emango diete Udalean. Erregistroan izena emateko, ezinbestean, Donostiako Gizarte Gaietarako Sailera joan beharko dute bikotea osatzen duten bi pertsonak batera.



Toti Martinez de Lezea idazle ezagunak berbaldia egingo du eguaztenean. GOIENKARIA

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Sahararen gaineko filma eta Toti Martinez de Lezea astean Arkupen

Eguenean eraikinen osasunaren gaineko ikastaroa hasiko du Asier Agirre adituak; aurrez eman behar dute izena interesatuek Arkupen

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Opor egunak atzean utzi eta apirileko ekitaldiak hasiko dituzte gaur Arkupe kultura etxean. Hilabetea bukatu arte izango da Elgetako Manuel Montielen argazki erakusketa: *Gipuzkoako txakurrak herriz herri*. Horrez gain, azken filmak eskainiko dituzte: *Precious* (gaur); *Invictus* (aste bukaera); eta *En tierra hostil* (apirilak 23-25). Eta umeendako: *Planet 51* (domeka) eta *Lilly y la princesa hada* (hilak 25).

**ERAIKINEN OSASUNA, EGUENEAN**

Gaur, Saharan bizi duten egoeraren berri ematen duen *Un grito desde Sahara* filma emango dute (19:00) Iesbaa eta Nubi elkarteek antolatuta. Eguaztenean, ostera, Toti Martinez de Lezea idazle ezaguna izango da euskal mitologiaren gainean berba egiteko (19:30). Eta zapatuan, hilak 17, Ixabel Millet ipuin kontalariak *Martin txiki eta Marizikin* ipuina eskainiko die 3 eta 10 urte bitarteko umeei liburutegian (11:30).

Eguenean, gainera, eraikinen osasunaren gaineko ikastaroa hasiko dute (19:00-21:00).

Bestalde, hilaren 29an, eguena, Huhezinemaren sari banaketa ekitaldia egingo dute (19:00). Eta 30ean, egubakoitza, (22:00), bakarrizketa eskainiko die helduei Goio Arrietak: *Harri irratixe*. Sarrera 4 euro da.

**ESKORIATZA** > EUSKARA

# 'Musika airean' liburuaren gainean lehiaketa egingo dute

Liburuaren gaineko lau galdera erantzun behar dira gaurtik eguenera

Ondo erantzundakoen artean e-book bat zozketatuko dute

**M.A.** > ESKORIATZA

Karmele Jaio idazle gasteiztarraren *Musika airean* liburuan oinarritutako lehiaketa antolatu du Udalak. Liburuaren gaineko lau galdera egingo dituzte asteko lau egunetan eta lau galderak ondo erantzuten dituztenen artean e-book bat zozketatuko dute.

Gaur, hilak 12; bihar, eguaztenean eta eguenean argitaratuko ditu Udalak galderak eta parte hartu nahi dutenek hilaren 20a baino lehen lau galdera horien erantzunak aurkeztu behar dituzte. Galderok hiru lekutan agertuko dira: Udalaren webgunean –*www.eskoriatza.net*–; *Facebook*-eko Euskara Zerbitzuaren kontuan –*Facebook.com/eskoriatza-euskara*–; eta bibliotekako eta kultura etxeko informaziogunean.

Erantzunak ere hiru eratara bidal daitezke: *euskara@eskoriatza.net* helbidera; *Facebook*-eko kontura; eta zuzenean bibliotekan utzita. Zozketa hilaren 22an egingo dute, Karmele Jaiok kultur etxean (19:00) egingo duen hitzaldiaren ostean.

**ARETXABALETA** > MERKATARITZA

# Itziar Zubizarretarendako martxoko zozketako saria

Apirileko txartelak banatzen dabiltza eta saria izango da Zumaiako talasoterapian egun-pasa

**M.A.** > ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak hilero egingo du zozketa herriko hainbat dendatan banatutako zenbakiekin. Martxoan jarri zuen abian kanpaina eta martxoko saria dagoeneko jasota du irabazleak, Mila Zubizarreta aretxabaletarrak. 2.530 zenbakia izan zen saritua eta Kioskoan eman zioten txartela Zubizarretari. Baster-Alde jatetxean bi lagunendako afaria izan da saria.

**APIRILEAN TALASOTERAPIARA**

Behin apirilean sartuta txartel berriak banatzen dabiltza Aretxarte elkarteko dendariak. Hilabete bukaeran izango da zozketa eta orduan ere sari bikaina emango dute: Zumaiako talasoterapian egun-pasa bi lagunendako; hau da, bazkaria, ur zirkuitua eta masajea.

**UDALAREN PUNTUAK**

Udalak, berriz, *Merkataritza kulturan blai* ekimena jarri du abian hil honetan. Horrekin bat egin duten 37 dendetan puntuak dabiltza banatzen eta gero Arkupe kultura etxeko ikuskizunetarako eta zinema emanaldietarako trukatu ahal izango dira puntu horiek.




Kioskoko arduradun Alfredo Meabe saria ematen Mila Zubizarretari. M.A.

**ESKORIATZA** > DIRULAGUNTZA

# Santa Ana eta argiteria publikoa berritzea onartuta

Bi proiektuak onartu dituzte Estatu Fondotik bideratutako dirulaguntzarekin egiteko

**M.A.** > ESKORIATZA

Estatu Fondotik 440.105 euro bideratu dituzte Eskoriatzara bigarren E Planaren barruan. Diru horrekin bi proiektu egin gura ditu Udalak: Santa Ana komentua eraberritu eta argiteria publikoa hobetu. Bi proiektuok jaso dute oniritzia eta datozen asteotan hasiko dituzte lanak.

**LED TEKNOLOGIA**

Santa Ana komentuko kapera eraberrituko dute kultura eta gizarte ekimenetarako erabiltzeko. 399.299 euro bideratuko dituzte horretara lehen faseko lanak egiteko.

Bestalde, argiteria publikoa hobetzeko 40.805 euro erabiliko dituzte; Gaztañadui kalea eta Luis Ezeiza eskola inguruko argiteria berrituko dute. LED teknologia erabilita energia aurreztu eta eraginkortasun energetikoa lortzea da helburua.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Goiko irudian, Bañera parkean neska-mutikoendako jarri berri dituzten ziburuak. JONE INUNTZIAGA

**ARAMAIO** > AISIALDIA

# Txikiendako ziburu berriak jarri dituzte Bañera parkean

Aramaioko Udalak 56.000 euro bideratu ditu Ibarrako Bañera parkeko jolasgunea berritzeko

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak ziburu berriak jarri ditu Ibarrako Bañera parkean. Hain zuzen ere, bi guneetako bat berritu dute eta bertan lau ziburu jarri: malguekin gora eta behera egiten duen zalditxoa; barku pirata; baloiarekin jolasteko saskia; eta, azkenik, hiru lagunendako tokia duen kulunka. Aste Santu aurretik amaitu zituzten Bañera parkeko lanak eta Udaleko iturriek emandako datuen arabera, aurrekontua 56.000 euro ingurukoa izan da, besteak beste, lurzorua ere egokitu behar izan delako.

Bestalde, Pedro Ignacio Barrutia kalean, babes ofizialeko etxebizitzen urbanizazioarekin amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak batez ere adinekoei zuzendutako gimnasia aparailu batzuk jarri ditu.

**UDALEKUAK UZTAILEAN**

Bestalde, 3-12 urte bitarteko neska-mutikoendako udalekuak uztailaren 7tik 20ra bitartean izango dira. Izenematea (36 euro) udaletxean edo San Martin eskolan egin daiteke, maiatzaren 7a baino lehen.

Eta udalekuekin lotuta, begiraleak behar dituzte. 17 urtetik gorakoa izatea beharrezkoa da eta, besteak beste, begirale ziurtagiria (irakasle ikasketak), EGA eta umeekin eskarmentua izatea hartuko dituzte kontuan. Interesatuek ondoko telefonora jo dezakete argibide eske: 945 44 53 74. Begirale guztiek formazio berezia jasoko dute maiatzaren 22an.

**JAI BATZORDEA HILAREN 19AN**

Aramaioko San Martin jaiak prestatzeko lanetan dihardu Jai batzordeak dagoeneko. Hirugarren bilera hurrengo astelehenean, hilaren 19an, egingo dute udaletxean, 18:00etan.

**ZINEMA EGUBAKOITZEAN**

Egubakoitzean, hilaren 16an, *Yo, también* filma eskainiko dute kultura etxean. Ohikoa den bezala emanaldia 22:15ean izango da.

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Kukumarro lehiaketan izena emateko azken eguna maiatzaren 12a izango da

Lehiaketa maiatzaren 15ean izango da, San Isidro egunaren ospakizunean, 11:00etatik aurrera botika inguruan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Udalak dagoeneko jarri du abian kukumarro lehiaketa; hain zuzen, Kukumarro lehiaketa-erakusketan parte hartu gura duenak maiatzaren 12a baino lehen eman beharko du izena.

**HIRU MAILA**

Erakusketa-lehiaketan hiru maila izango dira: 12 urte artekoak, 12 urtetik gorakoak eta erretiratuak. Sariei dagokienez, 12 urte arteko mailan parte-hartzaile guztiek irabaziko dute saria; 12 urtetik gorakoen taldean, irabazleek 60 euro eramango dituzte; eta, erretiratuen taldean, irabazleendako 90 euro izango dira.

**SAN ISIDRO EGUNEAN**

Talde bakoitza gehienez lau lagunekoa izango da. Erakusketa-lehiaketa maiatzaren 15ean, San Isidro egunaren ospakizunean, izango da, 11:00etatik aurrera botika inguruan.

Iaz, umeak izan ziren partehartzaile gehienak. 12 urtetik gorakoen taldean Mariñe Etxenizek, Ane Letek, Amaia Ramirezek eta Alazne Irastortzak irabazi zuten. Txikietan, guztiek eraman zuten saria; eta erretiratuetan, talde bakarra egon zen.

**ELGETA** > IKASTAROA

# Azken egunak ogia egiteko tailerrean izena emateko

Zortzi orduko ikastaroa da eta apirilaren 24an egingo dute; baserriko ogia, ogi integrala eta sodabrea izeneko ogi irlandarra egingo dituzte

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Duela urte eta erdi hasi zen Juantxo Aranburu eibartarra ogia egiten. "Etxerako egiten dut, kiloko ogia egiten dut eta aste osoa irauten dit", azaltzen du Aranburuk. Ikasitakoa beste batzuei erakusteko asmoarekin antolatu dute apirilaren 24an egingo den tailerra. "Gaur egun ez du ia inork etxean ogia egiten. Jendeak ez daki, gainera, baina ez da batere zaila".

**IKASTARO GUZTIZ PRAKTIKOA**

Hiru ogi mota egingo dituzte tailerrean. Irin eta legamia motak desberdintzen ere erakutsiko dute. "Ikastaro guztiz praktikoa izango da", adierazi du Aranburuk. Prozesua, gainera, grabatu egingo dute *Irinaketaurunak* izeneko blogean ikusgai ipintzeko. "Gure lana da jasoko duguna, ez ikastaroa edo ikastaroko partaideak. Blogean ipiniko dugu gero".



Juantxo Aranburu eta Teba Gonzalez ogi tailerreko irakasleak. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > ERREPIDEA

# Herritar gehienak gustura daude semaforoekin

Gatzagako errepidetik pasatzen diren automobil gidariak haserre dabiltza

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Orain dela hilabete jarri zituzten Gatzagako errepideko semaforoak martxan eta herritar gehienak gustura daude semaforookin, herrirako sartu-irtenak seguruago egin ditzaketelako orain. Errepidetik pasatzen diren gainerako auto gidariak, ostera, ez daude hain gustura, semaforo gorria tokatuz gero, zain egon behar dutelako.

**NORABIDE BAKARRA**

Herria inguratzen duen errepidean norabide bakarreko pasoa dago semaforoak martxan jarri zituztenetik. Gasteiztik Eskoriatzarako norabidekoa gorri egonez gero, Eskoriatzatik datozenak bakarrik pasa daitezke, eta alderantziz. Hala, Gasteizera joaten den autobusak lasaiago pasa dezake herria inguratzen duen kurba itxia –aurrerago beste batzuk egon arren–. Herritarrei segurtasuna eskaintzeko jarri zituen semaforo horiek Aldundiko Errepide Sailak eta Udalak ez daki zenbat denboran izango dituzten martxan: "Laster deituko digutelakoan gaude, zer egiteko asmoa daukaten azaltzeko", jakinarazi du alkateak.

**ARLABANEN KAMIOI GEHIAGO**

Semaforoak egon arren, automobilak berdin-berdin pasatzen direla Gatzagako errepidetik iragarri du Eusebio Villar alkateak: "Inguruko herrietako gidariak hemendik joaten ohituta daude eta hori aldatzea ez da samurra izango".

Gainera, behin negua pasatuta, Arlabango errepidean ere kamioiak asko ugaritu direla esan du.



> FUTBOLA
Aretxabaletak penaltiz irabazi dio Zamudiori, eta bizirik jarraitzen du > 22



> ESKUBALOIA
Igoerako lehen garaipena lortu du Bergarak Trapagaranen kontra > 24



> SASKIBALOIA
MUk galdu eta falta diren bostak irabazi beharko ditu mailari eusteko > 25

# Anbototik Aizkorrira, Aloñan barna, Mariri segika

**MAIATZAREN 8AN** Zegama-Aizkorriren atariko, astebete lehenago jokatuko da Anbotoko proba

**AURRENEKOZ** Lasterketa bertikalen Euskal eta Espainiako Kopetako lehenengoa izango da

**PARTAIDETZA** Oihana Kortazar elgetarrak ezin izango du iaz lortutako txapela defendatu

### III. Anbotoko KM Bertikala

- **> Eguna:** Maiatzaren 8a
- **> Ordua:** 15:00.
- **> Distantzia:** 3,8 kilometro.
- **> Desnibela:** 1.092 metro: Arrazola (239)-Anboto (1.331).
- **> Partaidetza muga:** 300.



Oihana Kortazar, erdian, iazko Anbotoko lasterketan. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Anbotoko Kilometro Bertikalak emango dio hasiera gisa honetako lasterketen Euskal Kopari. Maiatzaren 8an izango da Anbotoko proba, eta izena emateko epea irekita dago dagoeneko –maiatzaren 2a bitartean–.

Hirugarren aldia izango du Atxondoko Arrazola auzotik abiatzen den lasterketak. Ibilbideak ez du aldaketarik izango: 239 metroko garaieratik irten eta 1.331 metroraino; Anbotoko tontorrera, biderik labur eta aldapatsuenetik –1.092 metroko desnibela, 3,8 kilometroko ibilbidean–.

Aldaketa lasterketaren eguna eta ordua aukeratzerakoan egin dute: domeka goizetik zapatu arratsaldera pasatu dute, bi arrazoigatik, antolatzaileen esanetan: batetik, parte-hartzaileak animatzera jende gehiago erakartzeko asmoarekin, goizean mendi buelta egin eta arratsaldean lasterketa ikusteko aukera emanaz; bestetik, korrikalariek domeka aprobetxatu ahal dezaten, nahi badute, astebetera jokatuko den Zegama-Aizkorriko ibilbidea ikustera joateko.

Maila handiko korrikalariek hartu dute parte Anbotoko lasterketako aurreneko bi edizioetan eta, antolatzaileek jakitera eman dutenez, partaidetza are hobea izango da aurten: egongo direla baieztatu dutenen artean daude, esaterako, Agusti Roc –iaz hirugarren– eta Raul Garcia –2008ko irabazlea–, lasterketa bertikaletako eta mendiko lasterketetako Europako txapeldunak, hurrenez hurren; eta baita Didier Zago iazko Anbotoko txapelduna ere, Euskal Herriko korrikalari onenetako askorekin batera.

**OIHANA KORTAZAR EZ**

Emakumezkoetan, Oihana Kortazar da Anbotoko Kilometro Bertikaleko egungo txapelduna; baina elgetarra ez da lasterketan iazko garaipena defendatzen egongo, aurten eten txiki bat egingo baitu bere kirol ibilbidean: "Badut pena apur bat ez korritzeagatik; izen handiko mendia da Anboto, bertan dugu, jende asko joaten da animatzera eta ederra izaten da".

Egongo direnentzat eta oraindik ibilbidea ezagutzen ez dutenendako gomendio gisa, Kortazarrek dio bere ustez oso garrantzitsua dela lasterketa egunaren aurretik aurretik bidea ikustera joatea: "Oso esplosiboa da, hasieratik joaten da topera; motza da, baina luze ere egin daiteke". Eguraldia ere aldagai garrantzitsua dela dio Kortazarrek, "Bustiarekin zorua oso labainkor bilakatu eta igotzea asko zailtzen duelako".

Anbotoko Kilometro Bertikala erlojuaren kontrako modalitatean jokatzen da. Arrazolatik irten eta porlanezko bidetik egiten dira lehen metroak; bidezidor bat hartzen da gero, eta Frailearen ertzetik heltzen da tontorrera.

**BI TXAPELKETATARAKO**

Ofizialki aurten egingo da aurreneko aldiz lasterketa bertikalen Euskal Kopa. Lau lasterketak osatuko dute txapelketa: Anbotokoaren ostean jokatuko dira Txindokikoa (ekainaren 19an), Izarraitzekoa (uztailaren 4an) eta Uharte-Arakil eta Beriain –San Donato– artekoa (irailaren 19an).

Baina Euskal Koparako bakarrik ez, Espainiakorako ere izango da baliagarria Bizkaiko lasterketa; kasu honetan ere txapelketako aurrenekoa izango da, eta gero etorriko dira Torreongo (Palentzia), Sierra Nevadako (Granada) eta Puig Campanako (Alicante) probak.

ESANAK

**"Ibilbidea aurrez ikustea inportantea da, eta baita zorua lehorra egotea ere; bustita asko zailtzen da lasterketa"**

**Oihana Kortazar** > Iazko irabazlea

## Becerra, Aloñako iazko irabazlea, Oñatiko irteeran aurten ere

Apirilaren 25ean jokatuko da Aloñako Igoeraren VI. edizioa. Izena lasterketa eguna baino astebete lehenagora arte –apirilak 18– eman ahal izango da, Oñatiko Turismo Bulegoan edo Internetez (*www.aloina.net*). 300 korrikalari izango dira gehienez irteeran, eta joandako zapatu eguerdirako 200ek zuten izena emana. Horien artean, Walter Becerra, iazko irabazlea eta orain arteko bost edizioetako denbora onenaren jabea. Antolatzaileek maila oneko lasterketa espero dute, eta dortsal guztiak edo gehienak banatuko dituztelakoan daude.

Ibilbidean ez da aldaketarik izango: 15,5 kilometro eta 2.200 metroko gora-behera metatua. Oñatiko plazatik (230 metro) abiatuko da lasterketa eta, San Juan ermitatik eta Lamiategitik barrena, Urteagainera iritsiko dira; Belarretik Aloñako gurutzera (1.238 metro), eta handik behera, Uribarritik, Lezesarritik eta San Estebango ermitatik plazara atzera ere.

**3. MAILA** > 34. JARDUNALDIA

# Futboleko legea: aukera galtzen duenak ordaindu egiten du gero

Lehenengo zatian galduta ibili zen UDA, baina aurkariak ez zuen ate aurrean asmatu

Bizkaitarrek penaltia ere egin zuten huts, eta gero horrelaxe jaso zuten gola



Imanol Rodriguezek egin zuen partiduko gol bakarra, penaltiz. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA**

**1-0**

**ZAMUDIO**

**Aretxabaleta** > Eriz, Amutxastegi, Gomez, Azkarraga, Luis, Mar (Zenitagoia, 87. min.), Eraña, Igartua, Agirre, Rodriguez (Uribeetxeberria, 70. min.) eta Perez (Urtzelai, 44. min.).

**Zamudio** > Uriarte, Aspiazu (Moreno, 47. min.), Cordoba (Basterretxea, 59. min.), Suarez, Larrinaga (Zulueta, 69. min.), Ispizua, Gojenola, Bilbao, Enjamio, Barrena eta Gonzalez.

**Golak** > 1-0: Imanol Rodriguez, penaltiz. Uriarte atezainak Igartuari egindako penaltia. Epaileak egotzi egin zuen atezaina.

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Azken bost jardunaldietan bi puntu bakarrik lortuta, jaitsiera postuetan eta behar gorrian ekin zion Aretxabaletak Zamudioren aurkako partiduari. Lehenengo zatia ez zen ona izan etxekoendako; itxura kaskarra eman zuen taldeak, taktikoki ez zen ondo jarri eta jokoan zuen nagusigoak hiruzpalau aukera garbi sortzeko modua eman zion kanpoko taldeari, huts egindako penaltia barne. Bi taldeek egindako merituak ikusita, asko izan zen atsedenaldira markagailuan berdinduta iristea.

Bigarren zatian zelai erdia sendotu zuen Igor Gordobilek: bost hilabete min hartuta egon ostean, Gotzon jarri zuen zelaian; taldeak hobera egin zuen, batez ere baloirik gabeko jokoan, eta baita jarrerari dagokionez ere.

Aretxabaletarrek berehala egin zuten gola. Haritz Igartua atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, eta hark penaltia egin zion. Epaileak egotzi egin zuen gainera atezaina. Imanol Rodriguezek sartu zuen penaltia.

Jokalari bat gutxiagorekin geratu arren, Zamudiok berdin jarraitu zuen baloia mugitzen, talde ona dela erakutsiz. Etxekoek izan zituzten partidua erabakitzeko bizpahiru aukera on, baina ez zuten asmatu eta markagailu arriskutsu horrekin jokatu behar izan zuten amaierara bitartean.

**BOLADA TXARRARI AGUR**

Zamudioren aurkakoarekin eten egin du Aretxabaletak hilabete pasa iraun duen garaipen gabezia. Otsailaren 28an etxean Laudioren kontra lortutakoa zuen azkena, eta ordutik hona bi berdinketa baino ez: azkena era mingarrian, aurreko jardunaldian, 95. minutuan Baskoniaren zelaian gola jasota.

2. B Mailan gertatzen denaren arabera, lau izan daitezke 3. Mailatik jaitsiko diren taldeak. Azken postu horiek saihesteko ahaleginean, egutegi zaila dute Gordobilen mutilek: Elgoibar eta Amurrio kanpoan, eta Portugalete eta Agurain –hau errazagoa– etxean.

**Igor Gordobil** > UDAko entrenatzailea

## "Bigarren zatian zelai erdia sendotzea izan da gakoa"

**J.I.** > ARETXABALETA

**Lehenengo zatia aurkariari "oparitu" ostean, atsedenaldian erabakitako aldaketek eragina izan zuten Zamudioren aurka.**

**Emaitzarekin gustura; eta egindako lanarekin?**

Lehenengo zatiarekin oso haserre amaitu dut, oparitu egin dugu; baina bigarrenean zelai erdia sendotu dugu eta beste jarrera bat erakutsi. Hori izan da gakoa. Bigarren zatikoa da jarraitu beharreko bidea. Lehenengoan gertatutakoa aztertu beharko dugu eta, hori hobetuz, ziur iritsiko direla emaitzak.

**Baina lau jardunaldi falta dira eta jaitsiera postuetan zaudete...**

Denak irabazi behar ditugu; baina nik ez dut horrelako konturik egiten. Orain Elgoibarrera goaz; oso talde indartsua da, gol asko egin ez, baina jaso ere gutxi egiten dituena. Talde beteranoa da eta estrategia jokaldietan iaioa. Baina lana ondo eginez gero aukerak izango ditugu.

**Animuz nola zaudete?**

Ondo. Kontua da gure benetako neurria ematea.



GOIENKARIA

## Hirugarren maila

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **63** | 34 |
| 2. **Amorebieta** | **61** | 34 |
| 3. Portugalete | **56** | 34 |
| 4. Beasain | **53** | 34 |
| 5. **Gernika** | **53** | 34 |
| 6. **Elgoibar** | **52** | 34 |
| 7. **Durango** | **50** | 34 |
| 8. **Baskonia** | **48** | 34 |
| 9. **Zamudio** | **47** | 34 |
| 10. **Amurrio** | **46** | 34 |
| 11. **Santurtzi** | **43** | 34 |
| 12. **Arenas Getxo** | **42** | 34 |
| 13. **Laudio** | **39** | 34 |
| 14. **Zalla** | **38** | 34 |
| 15. **Lagun Onak** | **38** | 34 |
| 16. **Eibar B** | **37** | 34 |
| 17. **Leioa** | **35** | 34 |
| 18. **Aretxabaleta** | **34** | 34 |
| 19. **Retuerto Sport** | **24** | 34 |
| 20. **Salvatierra** | **10** | 34 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Salvatierra-Elgoibar | 0-0 |
| Amorebieta-Beasain | 0-3 |
| Arenas-Laudio | 0-0 |
| Real Sociedad B-Gernika | 1-0 |
| Santurtzi-Lagun Onak | 2-0 |
| Leioa-Baskonia | 0-2 |
| **Aretxabaleta-**Zamudio | 1-0 |
| Retuerto-Durango | 1-1 |
| Amurrio-Portugalete | 1-2 |
| Eibar B-Zalla | 2-0 |

**Hurrengoa**

Elgoibar-**Aretxabaleta**





Jon Murua Mondrako aurrelaria, Real Unionen aurka. JOSETXO ARANTZABAL



Iker Arazkonaga Bergarako atzelaria Agorrosinen. J.A.



Mikel Palacios Aloñako jokalaria, Beti Gazteren aurkako lehian. J.A.

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > DENBORALDIKO AZKEN TXANPA

# 40 puntuen lasaitasuna lehen helburu, gureak goiko postuei begira

Denboraldia trakets hasi ostean, jokoa hobetu eta jaitsiera postuetatik urruntzen joan dira Mondra, Bergara eta Aloña; orain ahalik eta ondoen bukatzea da hiruren helburua

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Aste Santuko etenaldiaren ostean, zazpi jardunaldi eskas falta dira Ohorezko Erregional mailako 2009-2010 denboraldia amai dadin, eta gure taldeek denboraldia nola hasi zuten ikusita, pozik egon daitezke Andoni Azkargorta, Manu Diaz eta Pablo Diez; Mondrako, Bergarako eta Aloñako entrenatzaileak, hurrenez hurren. Izan ere, jaitsiera postuetatik gertu egotetik sailkapeneko erdiko postuetara pasa dira hiru taldeak: Aloña zazpigarren (40), Bergara zortzigarren (38) eta Mondra hamaikagarren (35). Hau da, jaitsiera postuetatik gertuen dagoena Mondra da, sei puntura.

**DENBORAZ ESNATU DA MONDRA**

Denboraldia hasi aurretik Andoni Azkargortak 2008-2009 denboraldiaren amaieran atzealdean izan zuten sendotasuna mantentzea nabarmendu zuen. Edozelan ere, hasierako jardunaldietan gol asko jaso zituzten eta defentsa sendotzeko erabaki irmoa hartu arte beheko postuetan izan ziren zerrajeroak. Hala, bost atzelarirekin jokatzen hasi zirenean, 15 partidutatik bederatzitan ez zuten aurkako golik jaso. Eta orduan egin zuten gora sailkapenean. Azkargortak adierazi du behin jaitsiera postuetatik irtenda, hasi direla lasaiago eta aurrera begira jokatzen. Bada, eskerrak denboraz esnatu direla.

Jaitsiera postuak sei puntu eskasetara dauden arren, Azkargortak ez du jaitsieraz berba egin nahi; "nazkatuta" dago sailkapeneko beheko aldera begiratzeaz. Gainera, motibaziorako aitzakiarik ez zaie faltako, bi jardunalditan jarraian Aloña eta Bergararen kontra jokatu beharko duteeta. Bi derbi oraindik, beraz.

**MAHONEROEN ITZULERA DUINA**

Bergara merezi duen tokira bueltatu da. Taldea igo zuten jokalari gehienak mantenduz, Manu Diazen mutilek mailari neurria ondo hartu diotela esan daiteke. Finean, itzulera duina egin du Bergarak. Emaitzei dagokienez, jarraikortasun falta izan dute mahoneroek. Talde lanean oinarritzen da Bergara eta intentsitatea jaitsi izan dutenean porrota ezagutu dute: "Erlaxatzen garenean talde ahula gara", dio Diazek.

Hala, denboraldia aurrera zihoan heinean, hobetu egin du taldeak; Diazek uste du "orain arteko momentu onenean" daudela. Kanpoko hiru lehiak nabarmendu ditu: Tolosa, Pasajes eta Mondra. Lehia garrantzitsuak, azken txanparako jarri duten helburua betetzeko: lehen hamarren artean geratzea.

**AULKIKO ALDAKETAK, MESEDE**

2008-2009 denboraldian oso lan txukuna egin ostean, urte amaieran taldea utzi behar izan zuen Josu Zubiak Aloña jaitsiera postuetatik gertu utzita; halakoa da futbola. Hala, Pablo Diez entrenatzaile berriak haize freskoa ekarri dio taldeari eta urtarriletik hona gora egin dute oñatiarrek.

Maila mantentzeko 40 puntuak lortu dituzte eta orain lehen bosten artean geratzea dute helburu. Horretarako lauzpabost puntuko aldea jan beharko diote aurrekoei eta horretarako ezinbestekoa izango da etxean Tolosa menderatzea. Azkenik, oso pozik dago Diez taldearekin, "lan miragarria" egin dute-eta.

## Sailkapena, zazpi jardunaldi falta direnean

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **57** | 27 |
| 2. **Pasaia** | **57** | 27 |
| 3. **Aurrera Ondarroa** | **54** | 27 |
| 4. **Tolosa** | **45** | 27 |
| 5. **Idiazabal** | **41** | 27 |
| 6. Oiartzun | **41** | 27 |
| 7. **Aloña Mendi** | **40** | 27 |
| 8. **Bergara** | **38** | 27 |
| 9. **Berio** | **37** | 27 |
| 10. **Trintxerpe** | **35** | 27 |
| 11. **Mondra** | **35** | 27 |
| 12. Hernani | **33** | 27 |
| 13. **Ordizia** | **31** | 27 |
| 14. **Hondarribia** | **30** | 27 |
| 15. **Real Union** | **29** | 27 |
| 16. **Beti Gazte** | **25** | 27 |
| 17. **EHU Vasconia** | **24** | 27 |
| 18. **Euskalduna** | **23** | 27 |

**Hurrengoak**

**Bergara**-Beti Gazte
Trintxerpe-**Mondra**
**Aloña Mendi**-Tolosa

NOLA IKUSTEN DUZU ZURE TALDEA AZKEN TXANPARI BEGIRA?



**Andoni Azkargorta**
Mondrako entrenatzailea

### "Lehen seiren artean geratzea da azken txanparako helburua"

"Azken zazpi jardunaldi hauei begira ondo ikusten dut taldea. Hala, ez dugu inorena ez den lurrean geratu nahi, eta azken txanparako helburu moduan jarri dugu lehen seien artean geratzea.

Denboraldiak aurrera egin ahala, hobetzen joan da taldea. Lehen jardunaldietan joko ona egiten hasi ginen, baina golak sartzea asko kostatzen zitzaigun eta guri oso erraz egiten zizkiguten. Atzealdea sendotzeaz bat egin dugu gora sailkapenean; hor egon da gakoa".



**Manu Diaz**
Bergarako entrenatzailea

### "Orain arteko unerik onenean egingo diogu aurre azken txanpari"

"Hasteko, beste garaipen bat behar dugu matematikoki maila mantentzeko, eta ahalik eta azkarren saiatuko gara garaipen hori lortzen. Azken txanpari taldeak bizi duen unerik onenean egingo diogu aurre. Jokalariak oso parekatuta daude euren artean eta lesioak edo bajak daudenean, ez dira zelaian islatzen. Gehienek izan dute euren maila erakusteko aukera eta horrek on egin dio taldeari.

Indibidualki ez ditugu izugarri nabarmentzen diren jokalariak, gure arrakasta talde lanean dago".



**Pablo Diez**
Aloñako entrenatzailea

### "Lasai gaude, eta orain arte moduan segituko dugu: astez aste"

"Oso pozik gaude, lasai, jarri genuen helburua lortu dugu-eta. Hau da, maila mantentzea ziurtatzen diguten 40 puntuak eskuratu ditugu eta oso albiste ona da hori. Orain, lehenengo bosten artean geratzea nahi dugu, lauzpabost puntutara daudenak harrapatu.

Taldeak miragarri egin du lan eta jokalariak izan dira egoera zailari buelta eman diotenak. Hemendik aurrea orain arte moduan jarraituko dugu lanean: partidu bakoitza astez aste prestatzen".

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETAKO IGOERA FASEA

# Lehia ezin estuagoan azken minutuan garaipena ere estu lortu dute etxekoek

Bi zatietan gol gutxi batzuengatik elkarri haginka jardun zuten amaierara arte

Azken minutuetako bi golek erabaki zuten aurreko bi zatietako borroka estua

SORALUZE BKE
**30-28**
TRAPAGARAN


Erasoan eta defentsan, bi taldeek erakutsi zituzten hortzak. JOSETXO ARANTZABAL.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA
Gogotik borrokaturiko garaipena eskuratu zuten Bergarakoek Labegaraietan zapatuan. Atsedenik hartzeko minutu bat bera ere ez zuten izan; ez etxekoek ezta Trapagarangoek. Bizkaitarrek ozta-ozta bizpahiru goleko aldeari eustea lortu zuten ia neurketa guztian zehar, baina bigarren zatiko azken minutuetan etxekoek guztia eman eta bi puntu soilengatik bada ere, garaipenarekin joan ziren aldageletara Soraluze BKE-koak. Tentsio beteko partidua .

Egiari zor, bizkaitarrek eutsi zioten bizpahiru puntuko aldeari ia partidu osoan, irabazteko itxuran. Bergarakoena, baina, oso gertuko jarraipena izan zen eta kontrako gol baten aurrean berehala erreakzionatu zuten etxeko markagailuan beste gol batekin. Hain pareko jardun zuten uneoro, ezen tentsioa lehen zatian hasi eta ikusi zen ez batzuek ez besteek ez ziotela neurketari aterabide errazik aurkitu. Guztia emanda, azken minutuetan borrokarik sutsuena etorriko zela jabetuta jokatu zuten talde biek. Gauzak horrela, nekea zer zenik ere ez.

**AZKEN MINUTUAK, ERABAKIGARRI**
Bigarren zatian ideiak garbiago, jokaldi pentsatuagoekin atera ziren etxekoak ,baina, hala ere, garaipena eskuratzeko moduko errentarik ez zieten eskuratzen utzi bizkaitarrek. Erlaxatzeko unerik gabe mailari eutsi zioten bi taldeek, baina azken minutuetan bergararrek ateratako ekimen estra hori erabakigarria izan zen; minutu pare baten faltan aurkariek beste ezertarako betarik ez zuten izan-eta. Hala, amaiera txistuarekin batera eta bi puntu eskaseko errenta borrokatua ikusita, eromena zabaldu zen harmailetan eta botatako izerdiak sarituriko garaipenaren ospakizuna. Trapagarangoak ere egindako lan onaz harro joateko moduan zeuden.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Zapatuan erakutsitako amorru eta kemenarekin, Euskadiko Txapelketako igoera fasean izerdi nahikoa botatzeko moduan direla erakutsi zuten etxekoek. Aurreko jardunalditik Egiaren kontra ekarritako porrota eta gero, animoei buelta ematea lortu zuten garaipenarekin. Setati eta tentsioari eutsita, txapelketan zehar zapatuan bezala hortzak erakutsita, kontuan hartzeko arerioak izango dira Bergarakoak. Deustuko Unibertsitatearen aurka datorren astean etxean ikusi beharko da hori.

Ainhoa Unamuno > Entrenatzailea

## "Lehenik eta behin gure lehenengo erronka taldea osatzea izango da, 14 lagun jokatzeko prest edukitzea"

**J.B.** > BERGARA
**Orain bi aste Kukullaga etxebarritarren aurka irabazi eta gero (28-25), partidu bikaina jokatu eta Euskadiko Txapelketako mailan geratuko dira Bergarakoak, puntu nahikoa eskuratuta. Jokatzeko gogoz bai, baina irailera begira taldea osatuko duten zalantzarekin daude orain eskubaloi jokalariak.**

**Partidu bikaina jokatu zenuten eta gainera mailari eustea lortu duzue azkenean. Ezustekoa izan zen?**
Partidura lasai joan ginen, ze pentsatzen genuen ordurako mailari eustea bermatuta geneukala. Zarauzkoek egingo zutenaren mende geunden, partidua baino lehenago esan ziguten ez zegoela hain argi, ze haiek irabazten ez bazuten geu kolokan uzten gintuzten eta horrekin sustoa hartu genuen. Sustoa bai, baina baita ere motibazioa, ze bagenekien Kukullagakoak arerio gogorrak izango zirela eta, azkenean, presioarengatik-edo, sekulako partidu ona egin genuen.

**Presio hori, hortaz, lagungarri gertatu zitzaizuen?**
Ez dakit, izan liteke. Askotan gertatzen da talde on baten kontra maila hobea ematea txarrago baten aurka baino; zelanbait, kutsatu egiten da maila hori, erritmoa itsatsi egiten da. Hasi eta jokaldi guztiak atera zitzaizkigun. Hori eta gure taldeko Erikak egindako lan ezin hobea. Taldeko jokalaririk onena da bera eta gaitasun handia du. Hain zuzen, 28 goletik 13 berak sartu zituen, beraz, imajinatu... Oso jokalari osoa da. Gainontzekook ere lan ona egin genuen. Dena geneukan alde eta ezin izan zen hobeto atera.


Ainhoa Unamuno. JOKIN BEREZIARTUA

**"Mailari eustea hain garbi ez zegoela jakiteak motibatu gintuen"**

**Garaipen horri esker datorren denboraldian berriz ere Euskadiko txapelketan egongo zarete. Berriz ere mailari eusteko borrokara?**
Lehengo erronka taldea aurrera atera ahal izatea da, lehenik eta behin: irailean 12-14 pertsona jokatzeko prest egotea. Ez da erraza, ze jende asko nahiko nagusia da eta lagatzekotan dago eta gazteak ez dira gerturatzen. Behin hori lortuta, gure helburua berriz ere mailari eustea izango litzateke, baina zaila izango da jokalari gutxirekin, ze lesio asko egoten dira, jendea kanpora joaten da... Orain jokatzen dauden gazteak igotzea izango litzateke gure nahia, baina oraingoz ez dute asmorik.

**Irailera bitartean baina ez zarete geldi egongo?**
Partiduekin ez dugu amaitu. Gipuzkoako Kopa dator orain eta denboraldi osoa maiatz aldera amaituko da.

**Ospatzeko moduko lorpena izan da mailari eustea?**
Noski. Azken urteetan igo eta jaitsi ibili gara eta nik beti konfiantza izan dudan arren, hortxe-hortxe ibili gara, puntu bakarrarekin kolokan. Baina poliki-poliki ondo jokatzen hasi ginen eta aurrera egiten. Taldea batzuek utzi eta gorabeherak egon ziren eta horrek ere eragin zuen, baina aurrera egin dugu eta hori ere kontuan hartzekoa da. Horrek esan gura du dugun taldea bera ere mantentzeko modukoa dela.

Javier Zurbanoren mutilek partidu txarra jokatu zuten San Ignacioren kontra: kanpoko jokoan gaizki egon ziren, bai erasoan eta baita defentsan ere

**LEHENENGO MAILA** > JAITSIERA FASEA

# Falta diren bost partiduak irabazi behar dituzte mailari eusteko

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Jakin bazekiten MUkoek zapatukoa partidu gakoa zela mailari eusteko aukerei begira, San Ignacio aurkari zuzena izango delako helburu horretan. Eta astean zehar horren jakitun egin zuten lan: aztertu zituzten kanpokoen saskiratzaile onenak geldiarazteko moduak, defentsako lan hori erabakigarria izango zelakoan; baina gero kantxan 35 minutuz ez zuten UPNAren jokoaren pisua zeramaten jokalariak gelditzen asmatu.

Barruko jokoan ondo aritu zen Zurbanoren taldea; kanpokoan, ordea, oso gaizki; erasoan bakoitza bere aldetik ibili zen sarri, diziplina gutxirekin, eta erabakiak hartzerakoan ez zituzten irizpide egokiak ibili. Ondorioz, jaurtiketetan ere oso gutxi asmatu zuten. Talde moduan funtzionatu ez izana larregiko zama izan zen arrasatearrentzat.

Javier Zurbano entrenatzailea ez zegoen gustura bere mutilek egindako lanarekin: "Gakoa izan da oinez jokatu dugula, korrika egin beharrean. Euren erritmoa jarri dute, eta erritmo horretan jokatu dugu guk".

Eta hala ere, beti markagailuan atzetik, baina azken unera arte partiduan egon ziren MUkoak, laurdenetako emaitzek erakusten duten bezala. Lau puntu atzetik ekin zioten azken laurdenari, baina nafarrek handitu egin zuten zuloa eta eurentzat izan zen garaipena.

**MAILARI EUSTEA, OSO ZAIL**

Bost jardunaldi falta dira jaitsiera fasea amaitu dadin eta, zapatuko porrotaren ostean, denak irabazi beharko dituzte arrasatearrek mailari eutsi ahal izateko: "Posible da, ze taldeak denboraldi honetako partidu batean ere ez du eman duen dena, eta noizbait izan behar. Izan daiteke lau garaipen nahikoa izatea mailari eusteko; baina hobe dugu denak irabazi behar ditugula pentsatu; banan banan, hori bai", zioen Zurbanok.

Datorren jardunaldian Fundacion Baskonia, sailkapeneko aurrenekoaren kontra jokatuko du Mondragon Unibertsitateak.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**65-73**
SAN IGNACIO UPNA

**Mondragon Unibertsitatea** > Moracho, X. Anasagasti, Arejolaleiba, Zuhaitz Gonzalez, Paul Isasa -hasierako bostekoa-, M. Anasagasti, Urtzi Rodriguez, Iker Barbero, Unai Barrena eta Xabi Igoa.

**San Ignacio UPNA** > Santesteban, Uriz, Zubiri, Erroba, Yusta -hasierako bostekoa-, Montesino, Vinagres, Cadenas, Dito eta Sesma.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengoa: 17-18. Bigarrena: 28-30. Hirugarrena: 46-50. Laugarrena: 65-73.



Erasoan antzu ibili ziren zapatuan Arrasateko mutilak. JOSETXO ARANTZABAL

**Xabier Anasagasti** > MUko jokalaria

## "Erantzukizuna hartuko duen jendea falta zaigu"

**J.I.** > ARRASATE

**Durangarra da Mondragon Unibertsitateko jokalari garrantzitsuenetako bat. Anasagastik ez ditu taldearen gabeziak ezkutatzen.**

**Gaur ere ez da posible izan.**

Nahikoa partidu parekatua izan da, baina hasierako minutu batzutan kenduta, gainerakoan behetik joan gara beti. Kosta egiten zaigu. Talde gaztea dugu eta, minutu on batzuk eduki arren, konfiantza duen eta erantzukizuna hartuko duen jokalari bat falta zaigu, partiduak ondo amaitzeko. Iaz bagenuen horrelako jendea; aurten ez, eta igarri egiten da. Irregularrak gara, bost minutuko partzial bikainak egiteko gai gara; baina gero kapaz gara jarraian huts eta hamarreko beste bat jasotzeko.



J.I.

**Zertan ez duzue asmatu gaur?**

Korrika egin beharreko partidua zen, eta nahikoa motel ibili gara. Gu gazteak gara, sasoi onean gaude, eta hori aprobetxatu behar genuen korrika gehiago egiteko; baina ez dugu egin.

**Euren erritmoan jokatu duzue neurketa osoan.**

Bai. Jaurtiketa libreetan ez ziren errebotera ere joaten, gure zain geratzen ziren atzean, kontraerasorik egin ez genezan. Euren erritmoan jokatu dugu guk ere, eta horregatik galdu dugu.

**Defentsan ere ez zarete nahi beste ondo ibili...**

Kaskar ibili gara, bai. Zulo asko uzten ditugu, eta kanpotik nahi izan duten guztia sartu digute.

**Gauzak jarri diren moduan, posible da oraindik mailari eustea?**

Ezinezkoa ez da. Baina egin behar duguna da denboraldi guztian aldatzeko gai izan ez garena aldatu. Hori ez da erraza izango.

**MAILA AUTONOMIKOA** > 24. JARDUNALDIA

## Behar baino arazo gehiagorekin, baina irabazi eta emaitzak aldeko gainera

Lizuan.comek galdu egin du eta bi garaipenera daude orain hirugarrenak

**J.I.** > BERGARA

"Irabazi egin dugun arren, nahikoa haserre bukatu dut partidua taldeak egindako lanarekin. Baina, hara non, gero jakin dut Lizuan.comek galdu egin duela, eta hori oso emaitza ona da guretako", zioen Xabier Igartua, Aloña Mendiren entrenatzaileak.

Disdira askorik gabe jokatuta ere irabazten jakitea bertute garrantzitsua da sarri, are gehiago jarritako helburuak lortzera bidean gehien inporta duena garaipena den denboraldiko azken txanpa honetan. Zapatuko garaipenari esker, eta azpeitiarren porrotarekin, bi garaipenera geratu da hirugarren postua. Beraz, geratzen diren sei partiduetan lau irabaztea nahikoa luke Aloña Mendik igoera ematen duten lehen bi postuetako bat ziurtatzeko; eta joandako 24 partiduetan oñatiarrek lau bakarrik galdu dituztela kontuan izanda, ez dirudi horren zaila. Eta hau guztia, gainera, Lizuan.comek falta zaizkion denak irabaziko dituenaren lekuan jarrita –zaila, Aloñarekin eta Santurtzirekin jokatu behar duela kontuan izanda–. Promozioa jokatzeko aukera ematen duen hirugarren postua, berriz, ia-ia ziurtatuta dute gorriek, garaipen batera edo bira.

**ZAPATUKOA, EZ NAHI BESTE ONA**

Erasoan ondo hasi zuten zapatuko partidua Valpok eta Aloñak. Eurek min asko egin zuten hiruko jaurtiketekin.

Bigarren laurdenean defentsak hobeto ibili ziren, eta portzentajeak ez ziren hain onak izan. Berdinduta zioan partidua, oñatiarrak aurretik, baina alde erabakigarririk lortu gabe.

Hirugarren laurdena ez zen ona izan; azkenengoan, ordea, 24 puntu egin zituzten gorriek: erasoan zuhur ibili ziren, jaurtiketa errazak lortuaz, eta defentsan ere ondo ibili ziren. Horrela lortu zuten azkenerako erabakigarria izango zen zuloa egitea. Aloñak hamargarren garaipena du jarraian.

CONSTRUCCIONES VALPO
**69-79**
ALOÑA MENDI

ESANAK

**"Talde honek erakutsi du baduela zerbait, ondoegi jokatu gabe ere irabazteko aukera ematen diona; mentalitate kontua"**

**Xabier Igartua** > Entrenatzailea

"Galdeanok esana zuen aukerak nituela; orain baieztatu egin didate", dio pozik Arrasatekoak

Liderrentzat lan ona egin eta bere burua erakutsi du etapetako azken unetara arte


Iban Velasco, Euskal Herriko Itzuliko azken eguneko erlojuaren kontrako saioan. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA** > ARRASATEKOAK 18. POSTUAN AMAITU DU

# Onenengandik gertu ibili eta berri bikaina jaso du Velascok Itzulian: Tourrean egongo da

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Euskal Herriko Itzuliko aurreneko egunean –Samuel Sanchezen txakalaldiarekin– Euskaltel-Euskadikoen zeru-gaina gogotik ilundu arren, etapek aurrera egin ahala joan da argituz, etorkizuneko eguzki berri izan daitekeen bati eta beste printza laranja batzuei esker. Eta, zalantzarik gabe, printza horietako bat izan da Iban Velasco arrasatearra.

Taldeko arduradunek aitortu egin diote egindako lana, eta datorren Tourrean egongo dela jakinarazi: "Oso pozik nago. Galdeanok esana zuen aukerak nituela, baina orain baieztatu egin didate". Lehenengo aldiz joango da Velasco Tourrera.

**HASI ETA BUKATU, LAN EDERRA**

Euskal Herriko Itzulian, lehenengo egunetik azkenekora –azkenaurrekora, azkenekoak erlojuaren kontra podiuma erabakitzeko balio izan zuen-eta batez ere– eman du Velascok bere maila handiaren berri.

Zierbenan hasi eta amaitu zen aurreneko etapan, azken garaipena lortzeko borrokan nortzuk ibiliko ziren erabaki zuen ibilbide gorabeheratsuan, onenekin egoteko gai izan zen arrasatearra. Samuel Sanchez talde-burua, baina, ezinean ibili zen, eta zuzendariak hari laguntzeko geratzeko agindu zion. Profesionaltasunez agindua bete, eta Velascok minutu eta erdiko atzerapena izan zuen helmugan; baina orduko erakutsia zuen onenen taldean joateko gaitasuna.

Eta Arrateko gainean amaitu zen etapan izan zuen berriz ere hori erakusteko modua: "Ixuako lehenengo igoeran eskatu didate jendea kontrolatzeko, ze Txurruka ihes egindа zihoan. Gesink eta Schleck zaintzen ibili naiz, eta Arrateko azken igoeran igarri dut ahalegin hori", zioen Velascok; hala ere, aurreneko 25en artean sartu eta minutu pasatxo baino ez zuen galdu helmugan.

Eta Orioko etapan beste hainbeste: onenekin egon zen aurrean, eta tiran ibili zen Joaquin Rodriguezek ez zezan denbora gehiegi hartu. Rodriguez podiumetik kanpo geratu zen azkenean, Beñat Intxausti, Velascoren taldekidearen mesedetan: "Oso ona da. 24 urterekin horrela badabil etorkizun handia duela esan gura du. Lider on bat izango du berarekin taldeak", zioen taldekide bizkaitarraren gainean. Bada, horretan eta taldearen beste lorpenetan zeresan handia izan du aurtengo itzulian Velascok.

**Iban Velasco** > Txirrindularia

## "Oso gustura nago, lan egin behar izan arren, aurrean ibili naizelako"

**J.I.** > BERGARA

**Zapatuan, Euskal Herriko Itzulia amaitu zen egun berean erantzun zituen Velascok gure galderak. Pozik suma zitekeen, Itzulian egindako lanagatik eta Tourrekoagatik.**


GOIENKARIA

**Itzulian egindakoarekin konforme egoteko moduan zaude...**

Oso gustura geratu naiz egindakoarekin. Une honetan maila ona daukadala erakutsi dut, taldearentzako lan egin beharra izan arren, aurrean ibili naiz egunero. Eta taldeak ere oso emaitza ona lortu du: etapa garaipena eta podiuma.

**Espero zenuen horrela ibiltzea?**

Katalunian ere ondo ibiltzetik nentorren, mendateetan beti hogei onenen artean. Itzulian ere espero nuen ondo ibiltzea, baina lehenengo etapan, adibidez, hain aurrean egongo nintzenik ez nuen uste.

**Pena, Samuelekin geratu beharra...**

Pena handia eman zidan, bai. Baina taldeko gizona naiz, eta nire eginbeharra da. Horrela banago, iritsiko zait nire aukera beste lasterketaren batean.

**Ze lasterketa egingo dituzu hemendik aurrera?**

Belgikako hiru klasikoak egingo ditut orain: Amstel Gold Race, Flèche Wallonne eta Liège-Bastogne-Liège. Ez dut orain arte halakorik egin, eta badut gogoa, ze sasoi onean nago. Gero atseden hartuko dut, uztailean Frantziako Tourrera joateko.


Eguneko irabazle Sanchez buru dela, taldetxoa Elgetatik pasatzen. ANDER MONEDERO

## Debagoienetik, aurten pasatu bakarrik

Debagoieneko errepideak Itzuliko laugarren etapan zapaldu dituzte aurten txirrindulariek. Kanpazartik, Bergaratik eta Elgetatik pasatu zen lasterketa. Goiko argazkian Euskaltel-Euskadiko Samuel Sanchez eta Beñat Intxausti ageri dira, tropela Elgetatik pasatu zen unean.

Baina tropelaren aurretik, bost laguneko ihesaldi bat igaro zen Elgetatik: Euskalteleko Amets Txurruka, Liquigaseko Ivan Santaromita, Milrameko Johannes Fröllinger, Saxo Bankeko Jakob Fuglsang eta Footon Servettoko Aitor Perez ziren aurrekoak. Tropelak harrapatu egin zituen, ordea, eta Arrateko helmugan Samuel Sanchezek irabazi zuen.

**LOKATZA**

# Gipuzkoa Klasikoa, zapatuan Bergaran

Gazte mailako herrialdeko talde denak eta 18 selekzio egongo dira

**J.I.** > BERGARA

Jubeniletan jokatzen den izen handieneko lasterketa da Gipuzkoa Klasikoa. Eta aurten ere ez dio bere sonari hutsik egingo. Zapatu honetan –hilak 17– korrituko da Bergaran, eta Gipuzkoako gazte mailako talde denak izango dira irteeran; eta hauekin batera, Iparraldeko bi talde –selekzio bat eta Baionako Aviron– eta Espainiako autonomia erkidegoetako hamazazpi selekzio ere bai. 150 txirrindulari inguru izango dira guztira, bost laguneko taldeetan.

XVI. edizioa izango du aurten klasiko honek. Gipuzkoako federazioak antolatzen du, eta urtero herri bati proposatzen diote lasterketa hartzea. Bergarak eta Lokatzak hartu dute aurten ardura hori.

**DUELA HAMALAU URTE**

Hamasei edizio hauetan Debagoieneko herri gehienek hartu dute Gipuzkoa Klasikoa. Bergarak bigarren aldia izango du hau: aurrekoa duela hamalau urte izan zen, eta Mikel Roldan aretxabaletarrak irabazi zuen orduan.

Aurtengo ibilbideak 114 kilometro izango ditu, ibarreko errepideetan. Kilometro gehienak lauak izango dira, baina azken txanpan Asentzio igo beharko dute. Zapatu arratsaldeko 15:00etan hasiko da lasterketa, Ibargarai kalean.

## Datozen karrerak prestatzen

Bergarako Lokatza txirrindularitza elkarteak batzarra egin du, datozen asteetan herrian izango diren lasterketak prestatzen joateko. Zapatuko Gipuzkoa Klasikoaz gain, beste hainbat proba hartuko ditu Bergarak datorren hilabetean.

Hauetako hiru Labegaraietan izango dira: apirilaren 24an infantilena, maiatzaren 1ean Gipuzkoako talde denak batuko dituen kadeteena eta maiatzaren 8an infantilen taldekako erlojuaren kontrako Gipuzkoako txapelketa. Maiatzaren 2an, bestalde, 3+5 zikloturisten aurreneko martxa korrituko da Bergaran.

Aitzol Lazkano eta Ibai Bolinaga > Pilotariak

# "Herri arteko txapelketarako talde txukuna ateratzeko moduan gaude"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Lazkano eta Bolinaga arrasatearrek Udaberri txapelketa poltsikoratu zuten Aste Santuaren aurretik, senior mailan. Kadetetan ere Etxezarretak eta Moronek txapela jantzi zuten eta gazte mailan Etxagibel eta Arabaolatza finalera iritsi ziren. Lan ona , horrenbestez. Txapelketaz haratago, pilotaren gainean berba egiteko elkartu gara Arrasateko taldeko pilotari nagusiekin.**



Aitzol Lazkano eta Ibai Bolinaga, Uarkapen, entrenamendu saioa hasi aurretik. XABIER URTZELAI

**Zer-nolako finala izan zen Udaberrikoa?**

Lazkano: Egia esateko, Zumarragako pilotarien aurrean nik ez nuen oso partidu txukuna egin [22-14]. Ibai izan zen ondo ibili zena, pilota dominatu zuena eta kontrarioak batera eta bestera ibili zituena. Gainera, aste barruan odola ematera joan zen, eta besoan ubeldura galanta zuen; antza, odola ez zioten ondo atera. Uste nuen suabe hasiko zela, motibo horrengatik aurreko egunean ez zelako entrenatu. Eta bai, zera! Lehenengo pilotakadan kolpe galanta.

Bolinaga: Egia da partidu gogorra izan zela, ordubete ingurukoa. Irabazi egin genuen, eta pozik etxera.

**Ibai, gorputzaldi onean zaude orain momentuan.**

Bolinaga: Bai, indartsu sentitzen naiz eta gustura nabil. Eskuetatik ondo nabil, arazo barik, eta hori garrantzitsua da. Baina uste dut hobeto ere egon naitekeela, badut hobetzeko tartea.

**Udaberri txapelketan AGTko pilotariok lan ona egin duzue; oinarri ona izan daiteke herri arteko txapelketarako.**

Lazkano: Maurik [entrenatzailea] jakingo du guk baino hobeto txapelketa horretarako ze talde dugun. Hasteko, badugu asmoa txapelketa horretan esku hartzeko, kategoria bakoitzerako badugulako nahikoa ordezkari. Eta gero, garrantzitsua da hasierako zozketetan ze kontrario tokatzen zaizkizun, hor zorte apur bat ere behar da.

Bolinaga: Ez dakit herri arteko txapela irabazteko moduko talderik izango ote dugun, baina bai txapelketa txukuna egiteko moduko taldea.

**Aitzol, orain dela urte gutxi Ordago enpresan ibili zara pilotan jokatzen; besteak beste, Mikel Goñi pilotari ezagunarekin. Urte haietatik ze oroitzapen duzu?**

Lazkano: Oso ona. Bizpahiru urte egin nituen Ordagon eta esperientzia ederra izan zen. Oso jende jatorra ezagutu nuen bertan, eta kilometro mordoa egiten genituen autoan pilotan jokatzera batera eta bestera joateko; ederto ibiltzen ginen eta oroitzapen oso ona dut.

**Ondoren, kanpora joan zinen urtebetez, ingelesa ikastera, eta etxeko taldera itzuli zara orain.**

Lazkano: Bai, eta itzultzerakoan kostatu egin zitzaidan berriro erritmoa hartzea, kanpoan nengoenean ez nuelako pilotan egin. Bueltan Arrasateko taldean hasi nintzen berriro, eta gustura nabil.

**Lehengo urte haietara itzultzeko asmorik bai?**

Lazkano: Pilotan jokatzeko modu erabat ezberdinak dira. Gazteagoak ere baginen, batera eta bestera ibiltzeko arazorik ez... Orain, berriz, partidu gehienak etxe inguruan jokatzen ditugu eta erosoagoa da.

**Aitzol, zelan ikusten duzu Udaberri txapelketan ondoan izan duzun laguna?**

Oso ondo dabil. 18 urte ditu eta lehenengo urtea du amateur mailan. Eta, hala ere, Udaberri txapelketan ez da hura baino hobeto jokatu duen atzelaririk egon. Aspaldian eskuetatik ere ondo dabil, eta orain ditu bizpahiru urte indartsu ibiltzeko. Ea zortea duen.

FINALA

**Lazkano: "Egia esateko, Bolinagak egin zuen partidu biribilari esker irabazi genuen finala"**

IRAGANA

**Lazkano: "Oso gustura ibili nintzen Ordagon egin nituen urteetan; batera eta bestera pilotan jokatzen"**

HARROBI LANA

**Bolinaga: "Pilotari gazte mordoa ibiltzen da hemen, eta urte gutxi barru ikusiko dugu pilotari onak datozela"**

**Bolinagaren etorkizunaren gainean galdetuko dizut.**

Lazkano: Gaztetatik oso garbi ikusten zen pilotari polita zetorrela, etxean ere pilotari oso onak izan ditu erreferente, eta nik uste dut jendeak komentatzen duen hori baieztatzen dabilela, etorkizunean izango duela aukerarik.

**Ibai, azkeneko elkarrizketan, profesionaletara iristeak ez zintuela askorik arduratzen komentatu zenidan. Berdin pentsatzen jarraitzen duzu?**

Bai; oraingoz, halaxe izaten jarraitzen du, oso urrun dagoen zerbait dela ikusten dudalako. Egia esan, orain momentuan beste gauza batzuk ditut buruan; esaterako, oso gustura nabilela Lazkanorekin jokatzen. Igartzen da esperientziadun pilotaria dela, partiduetan ikusten dut hori, eta ondo datorkit gauzak ikasten joateko.

**Beteranoak izango du gazterendako gomendiorik.**

Lazkano: Dabilen moduan jarrai dezala, eta momentu txarrak iristen zaizkionean ez dezala amorerik eman, jarrai dezala topera lanean.

**Ibai, datozen hilabeteotarako ze asmo dituzue?**

Debarroko txapelketa da gertuen daukaguna, eta hor ere Lazkanorekin osatuko dut bikotea. Ondo egongo litzateke, gutxienez, finalerdietarako-edo sailkatzea. Ondoren etorriko da herri arteko txapelketa, eta ea hor ere lan txukuna egiten dugun. Gero etorriko dira gainontzeko torneoak; ea zelan gabiltzan...

**Etxeko taldean pilotan jokatu bai, baina bertako pilotari gazteekin ere ari zarete lanean. Zer moduz?**

Bolinaga: Oso gustura. Martitzen eta eguenetan gazte mordoa ibiltzen da hemen, eta nahiz eta erreboltari samarrak diren gustura ibiltzen gara lanean. Gainera, kategoria txikietan oso pilotari onak ditugu, eta urte gutxi barru ikusiko da hori.

Lazkano: Neu astelehenetan etortzen naiz gaztetxoekin entrenatzera, eta ahalegintzen gara entrenamendu serio samarrak egiten.

**EKONOMIA** > UME BATEK DUEN KOSTUA

# Lehen 12 hilabeteetan ume batek 7.000 euroko kostua duela kalkulatu dute

Gastu batzuk umea jaio aurretik sortzen dira; amak behar dituenak, adibidez

Gastu batzuk kalkulatu arren, beste batzuk derrigorrezkoak dira, pixoihaletakoa adibidez


Emakume bat umeari fardela aldatzen ohe gainean. LUCREZILLA

DATUA

**600**

**EURO PIXOIHALETAN**

*Consumer* aldizkariak atera dituen kalkuluen arabera, 500-600 euro bitartean kostatzen dira ume batek lehen urtean behar dituen pixoihalak, eta gastu hori egin beharrekoa da.

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

*Consumer* aldizkariko Irati Jimenezek eman du datua GOITBko *Goiena Magazinea* programan: "Ume batek 7.000 euroko gastua du lehen urtean, lehen 12 hilabeteetan".

Datu hori emateko, umea jaio aurretik dauden gastuak eta derrigorrez egin behar izaten direnak aipatu ditu, besteak beste, Jimenezek.

**JAIO AURREKO GASTUAK**

"Badira gastu batzuk umea jaio aurretik egin behar direnak. Amak, adibidez, arropa eta oinetako erosoak jantzi behar ditu, eta horiek erosi egin behar ditu. Larruazalak, haginek eta ileak, adibidez, asko sufritzen dute haurdunaldian zehar, eta horiek zaintzeko produktu bereziak erosi behar izaten dituzte emakume askok", esan digu Irati Jimenezek.

Bestalde, umeak behar dituen elementuen artean bereizketa egitea ere komeni dela esan du *Consumer* aldizkariko Irati Jimenezek. "Umeak lo egin behar du eta ezinbestean erosi behar da umearen logela edo umeak lo egingo duen tokia, *moises*-a, kuma edo dena delakoa. Horiek prezio ezberdinak dituzte eta guraso bakoitzak ikusi beharko du zenbat ordaindu dezakeen. Bestalde, guraso berriek opariak ere jasotzen dituzte eta komenigarria izaten da denekin adostea opari horiek, bat-batean bost trona ez pilatzeko, adibidez. Umeak ez badu bularra hartzen, esnea erosi behar da eta hori beste gastu bat da. Esne berezia hartu behar izaten dute umeek lehen hilabeteetan; gutxi gorabehera 1.500 eta 2.000 euro arteko gastua izan daiteke hori".

Arropari buruz, diseinatzaileek umeen mundua gero eta gehiago izaten dutela kontuan dio Jimenezek, eta barruko arropak ere, bodi batzuk esaterako, diseinuzkoak izaten direla. Horiek, noski, ohikoak baino garestiagoak dira.

**DERRIGORREZKO GASTUAK**

Irati Jimenezen esanetan gurasoei dena gutxi pentsatzen zaie, batez ere lehen seme-alaba datorrenean. "Gastu batzuk kalkulatu daitezke, baina beste batzuk derrigorrezkoak dira, pixoihaletan egin behar dena, adibidez. 500-600 euro gastatzen ditu ume batek fardeletan lehen urtean, lehen 12 hilabeteetan".

**HAURDUNALDIA** > AMIOZENTESIAZ GAIN

# Down sindromea atzemateko proba berria

Amniozentesiak ez bezala, ez du inolako arriskurik eragiten eta haurdun dauden denei egingo die Osakidetzak

**O.E.** > ARRASATE

Down sindromea atzemateko proba orokortu egingo du Osakidetzak. Orain arte 35 urtetik gorako haurdunei amniozentesia egiteko aukera ematen zion Osakidetzak, baina proba berria haurdun dauden emakume guztietara hedatuko da. Emaitzaren fidagarritasuna %92koa da, eta, amniozentesiak ez bezala, ez du arriskurik eragiten.

Ospitaleetan eta osasun etxeetan abiarazi duten azterketa berria bi probaren bidez egiten da. Lehena haurdunaldiaren 9. eta 11. asteen artean egiten da, emakumeari odol analisi bat eginez. 11. eta 13. asteetan artean, berriz, ultrasoinuen bidez umekiaren garondoaren tolestura neurtzen da. Azterketa horien emaitzaren bidez, emakumearen hainbat eragilerekin batera uztartu ondoren -adina, arraza, pisua, familiako aurrekariak...-, fetuak anomaliak izateko arriskua aurreikusiko dute. Azterketa berriarekin, haurdunaldiaren 15. eta 16. asteetan izango dute emaitza emakumeek. Arriskua ikusiz gero, amniozentesia eskainiko dio amari Osakidetzak.


Haurdun dagoen emakume baten sabela. RAHEGO

> AUTISMOA

### Autistek ere eskubide berdinak dituztela aldarrikatu dute

Komunikatzeko eta harremanetarako arazoak dituzten pertsonak eskubide guztien jabe izan behar direla aldarrikatu dute hainbat elkartek Autismoaren Nazioarteko Egunean. Egun, 150 jaioberrietatik batek autismoa du. Autismoari aurre egiteko bide egoki eta aberasgarrienetako bat, haurrak bereziak ez diren eskoletara eramatea da, adituen esanetan. Horietan langile espezializatuak jarriz, autismoa duten umeen integrazioa errazten dela berretsi dute. Adituen arabera, 2020a baino lehen genetikan eta biokimikan hainbat erantzun lortuko dituzte eta horiekin, botikak sortu ahal izango direla uste dute.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com




**> JOSU ARTEAGA**
Arrasatearrak eleberria kaleratu du Alberdania argitaletxearekin **> 30**




**> BERTSOLARITZA**
Aramaiok garaipena, Arabako Koadrila arteko finalerdietan **> 30**



**> PUNK-ROCKA**
Gasteizko Segismundo Toxicomanok kontzertu dotorea egin zuen **> 32**

# Antzuolako andreen lanaren gogorra, mende osoko iruditan

**HERRIKO IRUDIAK**
50 bat argazkitan agertuko dute herriko emakumeen lana

**OLARANEN**
Zapatuan irekiko dute eta bi asteburutan egongo da ikusgai

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Emakume Langilearen Egunaren harira, Udaletik bertatik ateratako ekimen herrikoia antolatzeko asmotik dator erakusketa. *Emakumea eta lana, etxe barruan eta kanpoan* du izena bildumak eta datorren asteburuan eta hurrengoan (hilak 17-18 eta 24-25) egongo da ikusgai Olaranen ohiko ordutegian, arratsaldez. "Herriko emakumeen lana agertzen duen erakusketa polita izan zitekeela" iruditu zitzaiela azaltzen du Karmele Korta gizarte langileak eta horretarako antzuolarrei martxoan zehar etxean gaiari lotutako argazki zaharrak bilatzeko eskaera egin zieten, bai irudi zahar zein modernoak.

**ETXEAN ZEIN KALEAN**

Horrela, mende hasieran Donostiara neskame joandako emakume baten irudiarekin hasi eta gaur egungo laneko argazkietara, 50 bat aleko sorta osatu dute erakusketarako. Asko eta asko, herriaren historiari lotuta, baserri mundukoak direla argitzen du Kortak eta ikusten dela "emakumeek lan gogorra" egin izan dutela beti: baserrian, tabernan, lantegietan... Lan moduan sarri kontsideratu ere ez direnak jaso ditugu, esaterako, amama etxeko umeen zaintzaz arduratzen zen lehen, eta halakoak ere ikusiko dira". Lanari zuzenean lotutako irudiak aurkitzearen zailtasunaz ere jabetu dira antolatzaileak, hain zuzen, "argazkiak normalean lanetik kanpo atera ohi" direlako, dio Kortak, "aisialdian-eta". Horregatik, ez dute mugarik ezarri gura izan ez gaian ezta agertzen duten errealitatean ere. Lanaren gogorra, hortaz, baina emakumea objektiboaren aurrean hartuta, datozen bi asteburuetan Olaran aretoan erakutsiko dena. Urteetan hain agerian izan ez dena erakutsi eta historiaren alderik gertukoena ekartzeko, antzuolarrak dira-eta irudietako emakume langileak.







1. Taldea ezkontza baterako bazkaria gertatzen.
2. Emakumea ganaduarendako arbia astoan garraiatzen.
3. Neska arropa garbitzen.

**Josu Arteaga** > Idazlea

# "Herrietan istorio asko daude gordeta, baina laster betirako galduko dira"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Josu Arteaga arrasatearra ipurterrea da: hedabideetan idazten, musika jotzen... ibiltzen da. Egunotan, baina, albiste da Alberdania argitaletxearekin *Historia universal de los hombres gato* eleberria argitaratu duelako. Zapatuan gaztetxean aurkeztuko du liburua.**



Josu Arteaga arrasatearra bere lehen eleberria eskutan duela, etxean jarrita. JOSETXO ARANTZABAL

**Hirietatik kanpoko, herritxoetako, istorioak galtzera doaz?**

Bai. Patxi Irurzunek hitzaurrean esaten du liburuko kontakizuna baserri giroko neotremendismoa dela. Nik uste dut kaletarrok zeharo galduko ditugula herritxoetako istorioak, uste baino lehenago gainera.

**Batzuek esaten dute herrietan ez dela ezer gertatzen...**

Liburukoa asmatutako herria da; baina nahiz eta ematen duen herrietan ez dela ezer gertatzen, gordetako istorio asko daude, kontatu daitezkeenak edo gordetzekoak eta batzuk oso gordinak. Halako gauzak ez dira bakarrik hirietan gertatzen.

**Heriotza uneoro agertzen da liburuan. Zergatik?**

Gaur egun jendeari heriotzak beldur handia ematen dio, baina lehen heriotza modu naturalean ulertzen zen. Gaur egun jendeak ez du nahi gaixo egon, mina izan, sufritu... eta gauza guztietarako pastillak hartzen ditu. Lehen heriotza eta sufrimendua bizitzaren parte ziren.

**Noiz jan zenituen arrautzak azkeneko aldiz?**

(Barre). Protagonista, Fernando Amescoate, herritar xume bat da. Ez dauka kultura handirik eta konturatzen da arrautzek berari informazioa ematen diotela eta erabakitzen du arrautzak jateari uztea, beldurtuta.

> **"*La lengua de los gatos* ipuinetik abiatuta, 13 istorio sortu eta guztiak lotu ditut"**

> **"Jendeari heriotzak beldur handia ematen dio, baina lehen heriotza gauza naturala zen"**

**Liburu hau *La lengua de los gatos* ipuinetik abiatzen da. Zelan izan da prozesua?**

Izen hori duen ipuin bat idatzi nuen eta Hegoamerikako eta Espainiako Estatuko hainbat lanen artean lehen saria jaso zuen. Esan zuten oso gordina eta aldi berean polita dela. Hortik abiatu nintzen, eta horrekin batera, beste 12 istorio landu nituen; guztiek batera kontakizun indartsu bat osatzen dute, osotasunean ulertzeko modukoa.

**Kontakizuna derrigorrez Nafarroan kokatu behar zen, ezta? Nafarren izaeragatik? Zure sustraiengatik?**

Nafarren estereotipoa burugogorrena eta oso *bereak* izatearena da; literaturan horrek joko handia ematen du. Eta, tira, sustraiek ere eragiten dute.

> **"Nafar burugogorraren estereotipoak joko asko ematen du literaturarako"**

> **"Neure kabuz egin dudan *Marinel itsua eta itsasneskak* film laburra FANT jaialdirako sailkatu da"**

**Baserri giroko ohitura eta usadioetan asko jantzi zara liburu hau egiteko? Edo batzuk asmatutakoak dira?**

Ez, ez dira asmatutakoak. Gure gurasoek eta aiton-amonek bazekiten ortua zelan landu, ilgoraren eta ilbeheraren garrantzia, egurra noiz moztu, zenbat denbora behar duen behor batek erditzeko.... Liburuan agertzen diren halako kontuak familiatik jaso ditut.

**Esan dezakegu liburu hau dela galtzera doazen herri eta bizimoduen aldeko oihu bat?**

Bai, baliteke. Mundu hau niretzat arrotza da eta ez dauka zentzurik. Badira hemengo kaletar batzuk herrietara beste bizimodu baten bila joaten direnak, eta gero konturatzen dira hango bizitza oso gogorra dela. Nik esaten dut herrietako bizimodua ez dela oso erromantikoa: oso gogorra dela, eta gutako asko ez gaude prestatuta han bizirauteko.

**Orain arte zure idatziak La Banda del Abuelo musika taldean eta Eskuak Burura ekimenarekin argitaratu dituzu...**

Bai, batez ere kantuak egiteko idazten dut, baina tarteka idatzi batzuk kanpo gelditzen dira. Eskuak Burura ekimenarekin dagoeneko 15 bat liburutxo atera ditut, batzuk nireak eta beste batzuk ezagunenak.

**Eta orain, film laburrak...**

Bai. *Marinel itsua eta itsasneskak* izeneko lana nik neuk bakarrik grabatu eta muntatu nuen, eta Bilboko FANT jaialdirako sailkatu da!

---

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO KOADRILAK

# Ondo hasi dute aramaioarrek txapelketako finalerdia

## Arabako koadrila arteko lehenengo finalerdian puntuazio gehien lortu zuten aramaioarrek



Aramaioko lau bertsolariak, emanaldia bukatu ostean. ARABAKO BERTSO ELKARTEA

**I.B.** > ARAMAIO

Atzo, domeka, Arabako koadrila arteko txapelketako lehen finalerdia jokatu zuten Zigoitiko aretoan. Aramaioko taldea eta Gasteizko Kakiturri-Ehari lehiatu ziren. Aramaioko taldetik, Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Iker Agirre eta Xabi Igoa; eta Gasteiztik, Ricardo Gonzalez de Durana, Juan Mari Juaristi eta Felipe Zelaieta. Gai jartzaile, berriz, Lierni Altuna aritu zen.

Giroa bero-bero zegoen eta apustuak aramaioarren alde; are gehiago, entzuleak alde zituzten. Eta aurreikuspenak bete egin ziren.

**PUNTUZIOA ALTUAGOA**

Aramaiok 581,5 puntu eskuratu zituen eta Kakiturri-Eharik 568,5. Maila onean ibili ziren bi taldeak, baina aramaioarrak nagusitu ziren. Horretan zeresana izan zuten, adibidez, Manex Agirreren bertso batzuek –euskararen normalizazioaren inguruan- eta baita Andere Arriolabengoaren zenbait altxorrek ere. Gustura geratu ziren parte-hartzaile eta entzuleak. Hurrengo hitzordua hilaren 18an izango da Araiako Andra Mari aretoan.

# Herri Sahararraren giza Eskubideen aldeko astea Debagoienean

## Apirilaren 12tik 16ra

**EGITARAUA**

**APIRILAK 12 ASTELEHENA**

**19:00** Aretxabaletan *Un grito desde el Sahara* dokumentala, Arkupe kultura etxean. PTM/Mundubat-ek eskainita.

**APIRILAK 13, ASTEARTEA**

**18:30** Arrasateko Biteri ikastetxe nagusian AFAPRESA elkartearen (Saharar Preso Desagertu eta Senitartekoen Elkartea) hitzaldia Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean.

**APIRILAK 14, ASTEAZKENA**

**19:00** Oñatin *Un grito desde el Sahara* dokumentala, kultura etxeko areto nagusian.

**APIRILAK 15, OSTEGUNA**

**21:00** Eskoriatzan afari-tertulia Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean, Elizoste elkartean.
(Izenematea apirilaren 13a baino lehen: 626 63 91 64 edo 685 72 48 17; *nubielkartea@gmail.com* edo *iesbaa@gmail.com*)

**APIRILAK 16, OSTIRALA**

**20:30** Arrasaten Ismael Serranoren kontzertua, Amaia antzokian.
Sarrerak: *www.kutxa.net*

**LAGUNTZAILEAK:**

Oñatiko Udala
Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón
Euskal Fondoa
eskoriatzako udala
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Aretxabaletako Udala Kultura Saila
koma language services

**ANTOLATZAILEAK:**

Arrasateko Saharaen Lagunen Elkartea – Asociación de Amigos del Sahara de Arrasate
IESBAA Elkartea Aretxabaleta

**MUSIKA** > DISTURBIO ETA SEGISMUNDO TOXICOMANO

# Arabako punkaren bisita, bizi-bizi

**NON:** 3 aretoa.
**EGUNA:** Zapatua, apirilak 10.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Eskarmentu handiko talde arabarren *inbasioa* izan genuen zapatu gauean 3 aretoan. Aguraingo Disturbio eta Gasteizko Segismundo Toxicomano taldeek ez zuten aretoa bete, baina punkrock duina eskaini zieten euren jarraitzaileei. Gehiengoa arabarra zen, baina Arrasaten ere zaletuak dituztela erakutsi zuten.

Disturbio izan zen lehena; 23:30ak aldera hasi ziren. Giro hotza eta aurrealdean, taldeko lagunak mugitzen ziren bakarrak. Jarrera aldetik, baina, ezin zaie askoz gehiago eskatu. Oldarkor aritu ziren ordubete pasatxo iraun zuen emanaldian eta larregi mugitu ez baziren ere, sinesgarri egin zuten abestu zutena. Hala ere, soinua ez zen borobila izan; ahotsak ez ziren larregi entzuten.

**HOZTASUNETIK BEROTASUNERA**

Aguraingo laukotearen ostean, gaueko protagonisten txanda izan zen: Segismundo Toxicomano. Aipatzekoa da laukote gasteiztarrak sarrera erosita, *Una bala* disko berria oparitu zutela.

*Un, dos, tres, fuego* kantuarekin hasi ziren eta Disturbiok emanaldi osoan lortu ez zuen berotasuna lehen abestiarekin lortu zuten. Jarrera bizia, mugimendu asko eta agertokian batasuna; soinu aldetik indartsu. Ahotsek indar handia, une batzuetan gainezka egin arte. Ulertzekoa da saturazio hori, zuzenekoaren emozioaren emaitza denean. Emanaldiaren amaieran Cock Sparrer-en *England belongs to me* abestiaren *Euskadi vuelve a mi* bertsioa jo zuten, zaletuek burua gal zezaten.



Emanaldi osatua eskaini zuten Segismundo Toxicomano gasteiztarrek; ibilbide luzea daroate, eta igartzen da. J.B.

> MUSIKA ETA ANTZERKIA

### Umorea egubakoitzean eta Anger eta Gose zapatuan, Espaloian

Aste Santuko oporraldien ostean gogor dator Elgetako Espaloia. Egubakoitzean Kubak eta Euskal Herriak bat egingo dute umorea ardatz hartuta, Gurutze Beitia eta Gorka Aginagalde umoristen eskutik (22:30). Sarrerak hamar eurotan daude salgai.

Eta zapatuan, berriz, Arrasateko Anger eta Gose taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean. Kontzertu berezia izango da, ETB 3 katean ere ikusgai izango da-eta.

> MUSIKA

### Street Dogs taldearen birak geldialdia egingo du 3 aretoan

Massachussetts (Boston, AEB) hiriak eman duen beste talde handi baten bisita izango dugu egubakoitzean. Street Dogs da eta biran dator. Eta, jakina, Arrasaten ere egingo du geldialdia, 3 aretoan. 2008an kaleratu zuten *State of grace* diskoko kantuak zein taldea ezagun egin zuten ereserkiak joko dituzte. Aurretik herriko Never Surrender taldea igoko da agertokira. Sarrerak: 12 euro aurrez eta 15 bertan.

**HIRIGINTZA** > ETORKIZUNEKO GUNEAK

# Hirigintza estralurtarra

Errazagoa izango litzateke eta energia gutxiago beharko litzateke, gaur egungo hiriak berritu eta eguneratu beharrean, hiri guztiz berriak hutsetik sortuko balira.

Horretan oinarriturik, Venus proiektuak, egun eskura ditugun teknika eta baliabide sofistikatuen bitartez, hiri kontzeptu berri bat aurkezten digu. Proiektu hori urbanismo ikuspegi berri bat baino zabalagoa da; hautabide gisa aurkeztu du Jacque Frescoren taldeak, hautabide bat, konpetentzian eta baliabide eskasian oinarritutako ekonomia eredu bortitzak sortutako gizarte modernoari aurre egiteko.

Hiri hori, parke eta lorategiz inguratua, naturarekin orekan dauden teknologia merke eta garbienekin ibiltzeko diseinaturik dago. Hiri horretan ez legoke erregai fosilez mugitutako ezertxo ere; eta denok dakigunez, petrolio-enpresek gobernatzen duten ekonomia globalean horrelakorik bidera ezina da. Puntu horretan bilakatzen da proiektu hori utopia, eta bertan hasten da aurkeztu nahi diguten hausnarketa: diseinatzaileek diotenez, egun badugu horrelako hiriak egiteko teknologia eta baliabiderik.

**AISIALDIRAKO TARTEA**

Hiri honen antolakuntza erdigunean eraikitako domo biribil baten inguruan hedatzen diren eraztunez diseinatuta dago. Lehenbiziko eraikin honetan, sistema zibernetizatua, irakaskuntza, komunikazio sareen sistemak, ume zaintza eta osasun konplexua aurkituko genituzke.

Hau inguratzen duen lehenbiziko eraztunean, artea, antzerkia, erakusketak, emanaldiak eta beste hainbat kultura jarduera jasotzeko espazioak. Honi jarraituaz, hiriko diseinu, garapen eta ikerketa eraikuntzak, eta hauei itsatsiak, beti eraztunetan hedatuta, jantokiak eta beste erosotasunak. Ondoren, paisaia ezin hobe eta lorategiz beteriko eremu batean, etxebizitzak aurkituko genituzke. Bukatzeko, eta energia garbi eta berriztagarrien eraztunaren ondoren, ur kanal batez inguraturik, pestizidarik gabeko nekazaritza hidroponikoa garatuko den ustiategi bat.

Instalazioak denon eskura doan egongo lirateke eta teknologiaren helburua da jendeari eginbehar aspergarriak kendu eta aisialdirako denbora lortzea.



Venus proiektua: etorkizuneko hirigintzaren eredu? ARIZMENDI

PROIEKTUAREN ZEHAZTASUNAK

Venus proiektuak politikariak soberan dauden sistema zibernetizatu bati buruz hitz egiten digu. Teknologia berri honek ez lituzke biztanleen bizitzak iradokiko ez monitorizatuko, jarrera hau iraingarri ikusten baitu Venus proiektuak. Hau da *1984, Brave New World* edo *Blade-Runner* bezalako liburuek-filmek salatzen duten munduen aurkako planteamendua, teknologiak gizaki guztion potentzial espiritual eta intelektuala garatzeko eta behar izanak asetzeko egingo luke lan, ez gizartearen kontrol gisa.

Zibernetizazioa konputagailuen eta sistema automatizatuen arteko lotura da. Hori hirien, nazioen eta, azkenik, planeta osoaren zerbitzura jarriz gero, nerbio sistema autonomo global bat bezala ikus genezake. Adibidez, aipatutako nekazaritza eraztunetan, teknologia honek, ura, lurraren kimika, landatzeak, uztaroak eta abar kudeatuko lituzke, biziguneetan, ingurune garbiketa, birziklaketa...

Gainera, automatizazioaren akatsak atzemateko sentsoreekin bigarren mailako sistema *backup* bat jarriko litzake martxan, hiriko lehendabiziko sistema erori ezkero.

Proposamen hauek ameskeriak dirudite, eta hala da egungo diru sistemaren barne, utopia hau posible izateko, errekurtsoetan oinarritutako mundu ekonomia gauzatu beharko litzateke, non baliabide guztiak munduko biztanle guztien oinordetza izango liratekeen.

## Atal honetan...

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

GURE TALDEAK

## Never Surrender


Ezkerretik eskuinera, Asier Uribetxebarria *Atxi*, Andoni Iñurritegi *Pottoko*, Mikel Arriaran *Arri* eta Ander Durañona *Dura*. JULEN ELORTZA

# "Zuzenagoa, azkarragoa eta oldarkorragoa da disko berria"

'11 istorio, bROnCKa ta gau ero' diskoa atera dute Never Surrender arrasatearrek; musika eta ahots landuak eta hitz kritiko bezain sakonak ditu lanak

Martxoaren 2an jarri zuten salgai zortzi eurotan eta salmentak espero baino hobeak izan dira; orain diskoa aurkezteko zuzenekoak ematen dihardute

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Arrasateko punk-oi! taldeen artean beteranoetako bat da Never Surrender. Gero eta zale gehiago dituzte: horren adierazle da sei hilabetean Arrasateko gaztetxea birritan lepo-raino bete dutela. Azken diskoaren gainean jardun dugu laukotearekin.**

**Nondik dator diskoaren izena?**
Diskoan ezkutatuta dagoen abestiaren izena da; beste abesti nostalgiko bat gure nerabezaro garaiei. Horrez gain, laguntasunari egindako ereserki bat ere bada. Finean, *11 istorio bROnCKa ta gau ero* jotzen hasi ginenetik bizi izan duguna da.

**Zer aurkituko du entzuleak?**
Diskoa oldarkorragoa, azkarragoa eta zuzenagoa da. Aurreko diskoa [*Aurrerapenaren Izenean*] pertsonalagoa zen, barne sentimendu askorekin. Lan berria amorru handiagoarekin egindakoa da, eta protesta eta kritikek pisu handiagoa dute.

**Taldea asko heldu da musikalki. Zortzi urteko ibilbidea igartzen da, ezta?**
Musika aurreko diskoaren ildotik doa; lan berriak erritmo azkarragoak ditu, agian. Hori bai, ahotsak bereziki zaindu ditugu, aurreko lanean ahotsekin ez ginen-eta oso gustura geratu.

**Zergatik eman diezue halako garrantzia ahotsei?**
Finean, abesti bat entzuten duzunean ahotsaren doinua da barneratzen duzuna. Hau da, gustuko duzun kantu bat txistukatzen duzunean ahotsaren doinua da txistukatzen duzuna.
Gainera, garrantzi handia ematen diogu mezuari eta ahotsak ondo zaindu behar dira esateko duguna ondo uler dadin.

**Kritika eta protestak dira nagusi zuen abestietako hitzetan. Ezkorrak zarete, ala?**
Ez gara ezkorrak, egoerari buelta emateko idazten ditugu halako hitzak. Izan ere, badugu zer kritikatu, zeri aurre egin. Badiogu zer esan inguratzen gaituen gizarteari, krisi ekonomikoari eta Euskal Herriko egoera politikoari, besteak beste. Protesta hitzez gain, taldeari berari eta une zehatz batzuetan izandako sentimenduei ere abestu diegu. Une latzetan errazagoa egiten zaigu abestiak idaztea.

**11 kantuetatik bederatzi berri eta bi hasierakoak: iragana gogora ekartzeko saiakera, ala?**
Arantza bat genuen sartuta, batez ere *Denbora galdua*-rekin. Abesti hura gure lehen garaietako ereserki bat izan zen guretako eta gure lehen ikusleendako; hots, lagunendako. Orain argitaratzeko unea zela pentsatu genuen.




### Gazteen ahotsa, indartsu eta itsaskor

Jakin-min handia zegoen Arrasateko taldearen bigarren lan luzea entzuteko eta aurreikuspenak bete ditu. Oi! sustraiak ez ditu galdu ez, nabarmenak dira taldean abesteko lelo itsaskorrak, baina beste pauso bat eman du bestelako sonoritate eta tenpoak hartzen. Gitarrek are eta protagonismo handiagoa dute eta gai dira, esaterako, Ness-en gustuko riffetatik punk-rock ilun eta azkarrenera pasatzeko. Dena dela, abesti guztiak ondo gorpuztuta daude. Eta hitzei dagokionez; gazteen erradiografia zehatza.

Iker Barandiaran

**Norekin atera duzue?**
*108 records*-ekin, *do it yourself* [egizu zure erara]. Hau da, autoeditatu egin behar izan dugu. Gure musika zirkuituan diskoetxe alternatiboak dira nagusi, komertzialak ez direnak. Baina harremanetan jarri garen etxe gehienek une ekonomiko latzak bizi dituzte eta hain gaizki ez zeudenak beste proiektu batzuetan murgilduta zeuden gu heldu ginenerako. Haiekin diskoak elkartrukatuko ditugu, truke sistemaz: horrela, kanpoko taldeak hemen ezagutaraziko ditugu guk eta eurek gure diskoa zabalduko dute Europa aldean.
Atzerriko zigiluekin jarri gara harremanetan, kanpoan ere gure doinu berriak entzun daitezen.

**Euskaraz bakarrik abestea ez da muga atzerrira begira?**
Euskaldunak gara eta euskaraz bizi nahi dugu; gure mezua euskaraz helarazteko konpromisoa hartu genuen. Horrez gain, gure burua ere kontzientziatzeko balio behar du.
Gainera, hainbat talde daude euskaraz abestuz mundu osora zabaldu direnak. Beraz, gure musika zabaltzeko euskara ez da sekula traba bat izango.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraiki. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean, 93 metro koadroko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera begira eta ondo kokatua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta bakoitza 32 metro koadroko bi terraza. Eguzkitsua. 297.500 euro. Isabel. 690 07 85 83.

**Atxondo.** Etxe ia berria salgai: sukaldea, 3 logela, saloi handia, komun bat eta balkoi handi bat. Oso eguzkitsua. Prezioa: 225.000 euro. Negoziagarria. Itxaso (648-28 53 59).

**Ajo (Kantabria).** Bi solairuko etxea, altzariz hornitua, salgai Ajon (Kantabria). 3 logela, 2 bainugela, jangela egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua. Garajea. Lorategia. 222.000€. Harremanetan jartzeko: *m3rtx3@gmail.com* edo 629 41 23 19

**Berriatua.** Etxebizitza salgai edo alokatzen Berriatuan. 72 metro karratu. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Salmenta prezioa, 190.000 euro. 994-616 64 19 edo 94-613 90 56.

**Durango.** Etxea salgai. Deitu 696-66 00 58 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *kattalin4@hotmail.com* helbidera.

**Durango.** Atiko bat salgai Durangoko alde zaharrean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Duela urtebete erabat berriztatua. Guztiz jantzia. Bizitzen jartzeko moduan. Ainara: 659-42 58 90.

**Durango.** Ondo zaindutako etxea salgai: sukaldea, 3 logela, saloia, 2 komun eta bi balkoi handi. (6.solairua)Garaje itxiarekin. Prezioa: 320.000 euro (negoziagarria) Telefonoa: 94-616 62 97

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai Elorrion. Erreformatua, 124 m2, gas naturaleko berogailua, sukalde ekipatua, egongela, 5 logela, 2 komun, jakitokia,2 balkoi, garaje itxia. Derrigorrezkoa ikustea.Prezioa: 264.500 euro. 685-73 48 25

**Errenteria-Orereta.** Santa Klara kaleko 26an luxuzko etxebizitza salgai prezio onean. 57 metro karratu. 220000 €. Xehetasun gehiagorako sartu *santaclara2628.blogspot.com*-en edo deitu 943-31 42 00 edo 692-06 93 93 telefonora.

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxei kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoietatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. 645-73 50 59 (Maite).

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko Arkuetabide kalean, lehen ezkerra. 98 m2 eta oso orientazio ona. 696-19 43 17 edo 626-70 30 93.

**Irurtzun.** 3 logela, egongela, bi balkoi, sukaldea eta komuna. Jantzita. 699-02 03 63.

**Irurtzun.** Irurtzunen pisua salgai. 90 m2. Bajera, trastelekua, bi logela, sukaldea jantzita, egongela oso handia eta komuna. 608-87 20 79.

**Mallabia.** Baserria salgai toki polit batean 20.000 metroko lur zatiarekin. 655-70 26 47

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Jantzia. 240.000 euro. 652-70 12 49

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. 659-53 87 62.

**Ordizia.** Kanpoaldera ematen duen 80m²ko etxebizitza. 3 gela, egongela, sukalde handia, bainugela, balkoia eta berogailua ditu, garaje itxia aukeran. 186.313 euro. Bizitzen jartzeko moduan. 676-03 06 13.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m²) Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukaldea eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazkoa. 658-72 92 88.

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! 695-70 18 58.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com* edo *www.goiena.net/sailkatuak*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zumarraga.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. 162.300 euro. 638 33 03 01.

### 102. EROSI

**Altsasu.** Apartamentu edo pisu txiki baten bila nabil Altsasu edo ingurutan. 660-33 23 63 (Oihana).

### 103. ERRENTAN EMAN

**Baserria alokairuan.** Gernikatik kilometro batera dagoen baserria alokairuan. Oso erosoa, hiru logela eta bi bainurekin. Interesatuak jarri harremanetan: *olaeta_bel@hotmail.com*

**Conil (Andaluzia).** Hiru apartamentu eder hirurak garajearekin alokagai Conilen (Cadizen). 653 73 34 57

**Bermeo.** Alokatzen dut pisu bat Bermeon, portutik gertu dau, logela bat dauka. 635 71 46 13.

**Durango.** Gela bat alokagai Durangon. 630 76 18 28

**Lekeitio.** Etxebizitza alokatzen da Lekeition. Uda sasoirako edo urte osorako. 70 metro karratutako etxebizitza; bi logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Lekeitio erdialdean kokatua. 647 70 71 12.

**Oñati** erdialdean hiru logelako etxebizitza errentan. Komun bat. Bi balkoi. Berogailua. Jantzia. 670 30 60 98

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. 650 62 12 94

**Bergara.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartu nahi dugu urte beterako. 629 33 26 34

**Durango.** Alokatzeko hiru logelako pisu bila gabiltza Durangon. 690 20 85 49

**Durango.** Neska euskalduna konpartitzeko pisu bila. 635 20 47 45

**Durango.** Alokatzeko pisu bila dabilen neska euskalduna. 635 20 47 45

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu 635 20 25 76 telefonora.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuek deitu: 619 78 63 41

**Bergara.** Bergara erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta bestea handitxoagoa. 943 03 62 00 edo649 63 23 24

**Bergara.** 2 logelako apartamentuan, logela bat ematen dut errentan. 250 euro gastuak barne. 626 86 67 36

**Bilbo.** Logela alokatzen dut Deustuko pisu atsegin batean 3 hilabetetarako. Sukaldea, bi komun, saloi izugarri handia eta lau logela. Hiru pisukide izugarri atsegin eta anbiente jatorraskoa. Ibaitik gertu, bizikletaz 20 minutuan Alde Zaharrean eta metro, Bilbobus zein tranbia ere gertu. 255 hilabeteko, fakturak barne. 620 66 67 84 edo 94 447 66 52.

**Donostia.** Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitu batean. Berdin ikasle edo langile. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 943 65 16 92, hartu ezean mezua utzi.

**Donostia.** Epea: gaurtik aurrera, epe luzerako (urte bat gutxienez). Lekua: Antigua, Gros, Erdialdea ala Amara. Prezioa: 300 eta 450 euro artean pertsona eta hilabeteko. Erretzaileak: Balkoian mesedez. Gutxi gorabeherako adina: 25 eta 30 urte artean. Iragarki honen bidez elkar ezagutu dugun lau gazte gara eta antzeko beharrak ditugu epe luzerako etxebizitza bati begira. Pisuak begiratzen hasi gara, eta denok gauza berberaren atzetik ez gaudenez, gure egoeran dagoen jende gehiago ezagutu nahi genuke. *pisukideak@gmail.com*, 626 22 92 58

**Durango.** Gela bat alokagai Durangon. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 76 18 28

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Harremanetarako telefono zenbakia: 688 61 57 79

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ibargarai 37an 17 metroko garajea salgai. 636 09 93 93 edo 626 81 71 28.

**Urretxu.** Kalerrota-Gernikako Arbolan. Plaza bakarreko garaje itxia salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 688 65 28 70

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje plaza bat alokagai Durangon Azoka plazaren ondoan. Harremanetarako telefono zenbakia: 619 18 77 99

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat hartuko nuke errentan Bolun. Harremanetarako telefono zenbakia: 658 73 35 96.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 24 40 54.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALGAI

**Elorrio.** Pabiloi bat 360 metro karratukoa, bestea 600 metro karratukoa. 657 79 39 93

### 301. ERRENTAN EMAN

**Durango.** 72 metro koadro. Lanean hasteko prest. Ekipamendu guztiekin. Egoera onean. 659 97 25 01

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Dublin (Irlanda).** Gure haurra zainduko duen Au Pair baten bila gabiltza. Familia euskal-irlandarra. Euskaraz hitzegitea ezinbestekoa da. Astean bost eguneko lana. Dublin inguruan. Baldintzak jakiteko bidali mezu bat: *igorgon@gmail.com*.

### 402. ESKAERAK

**35 urteko** mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria ikastaroa egin dut eta esperientzia dut. 634 85 69 78.

**Bergara edo Arrasate.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 53 27 17 edo 616 84 13 07.

**Arrasate edo Bergara.** Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637 18 07 23.

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619 78 63 41

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. Deitu 647 16 40 49 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. Harremanetarako telefono zenbakia: 699 54 17 27

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 619 78 63 41 zenbakira.

**Arrasaten edo Bergaran** umeak zainduko nituzke; esperientzia daukat. Harremanetarako telefono zenbakia: 696 84 19 51.

**Azpeitia.** Asteburuetan partzialki tabernan lan egiteko esperientziadun neska euskalduna eskaintzen da Urola ingururako. Deitu 647 82 58 52 telefono zenbakira. Eskerrik asko.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu 654 98 69 14

**Bergara.** Astebukaeratan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak. 699 09 46 26

**Bergara eta Arrasate.** Emakume gaztea erizain laguntzaile lan egiteko gertu. 943 76 52 34 edo 677 09 72 68.

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. 654 98 69 14

**Bergara.** Emakumea gertu zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Rakel. 663 65 76 85.

**Beasain.** Orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da adinekoak nahiz haurrak zaintzen, garbiketan nahiz etxekolanak egiten...Erreferentzia onak ditut. 649 07 31 33

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Rakel. 663 65 76 85

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 656 73 64 51

**Bergara.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. 600 24 58 27.

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia:656 73 64 51.

**Bergara.** Neska gertu zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59.

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Lantxoak egiteko eskaintzen naiz: elektrizitatea, margotu, iturgintza eta abar. Gorkagatik galdetu. 692 26 27 69

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakume gaztea erizain laguntzaile bezala lan egiteko gertu. 943 76 52 34 edo 677 09 72 68

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Emakume euskalduna prest edozein lanetarako. Edozein ordutegi. 646 87 36 57.

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Interesatuek deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 606 78 35 94

**Debagoiena.** Mutil brasildarra, 35 urtekoa, sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile lanetarako gertu. Zerbitzari laguntzaile ikastaroa egin dut Gamarrako ostalaritza eskolan. 945 56 27 80 edo 634 85 69 78

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko asteburu zein jaiegunetan, egun osoan. Klinika laguntzaile tituluduna eta etxean bertan bizi izateko gertu. 943 74 82 09

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Harremanetarako telefono zenbakia: 637 18 07 23

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo elkarteak-eta garbitzeko. Egun osorako prest. 607 68 58 76.

**Debagoiena.** Aste bukaeretan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak egiten. 699 09 46 26.

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 691 03 25 02.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. 943 71 46 24

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Arrasaten edo Bergaran umeak zainduko nituzke, esperientzia daukat. Harremanetarako telefono zenbakia: 696 84 19 51

**Debagoiena.** 35 urteko mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertunagusiak zaintzeko. Geriatria ikastaroa egin dut eta esperientzia dut. Harremanetarako telefono zenbakia: 634 85 69 78

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. 689 88 97 66.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo asteburuetan. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo elkarte eta abarrak garbitzeko. Egun guztian zehar prest. 607 68 58 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 691 03 25 02

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m² + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN**
**943-16 20 48**
**Ikusi lan eskaintzak:**
**w w w . i k o l a n a l d i . c o m**

**Debagoiena.** Mutila gertu margolaritzan, eraikuntzan edo tabernan lan egiteko. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea harategian lan egiteko gertu. Zatikatze lanetan trebea. Gerardo. 610 91 33 40 edo 943 53 36 72

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 606 78 35 94 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil gaztea tabernan lan egiteko gertu. 689 93 58 41.

**Debagoiena.** Mutila gertu margolaritzan, eraikuntzan edo tabernan lan egiteko. 697 88 35 62.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko asteburu zein jaiegunetan, egun osoan. Klinika laguntzaile tituluduna eta etxean bertan bizi izateko gertu. Itsaso. 943 74 82 09.

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60.

**Donostia.** Neska euskalduna naiz eta Donostian goizez lan egiteko prest nago: tabernan, dendan, haurrak zaintzen, jangela batean...Interesatuta dagoenak bidali mezu bat *apalago@hotmail.com* helbidera edo deitu 677 78 34 66 telefonora.Sara.

**Donostia.** Haurrekin esperientzia handiko pertsona haurrak zaintzeko prest. Magisteritzan diplomatua eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua. 628 04 15 26

**Durangaldea.** 26 urteko neska euskalduna astelehenetik ostiralera goizetan umeak edo ezindu psikikoak zaintzeko prest. Arlo bietan esperientzia handia duena. 607 34 06 59

**Durangaldea.** Neska bat prest pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientzia zabala. Goizez edo arratsaldez. 688 67 65 88 edo 94 658 33 32

**Durangaldea.** Neska gaztea haurrak zaintzeko edota pisu edo ofizinak garbitzeko eskaintzen da arratsaldetan, ekainetik aurrera goizez ere bai. Interesatuak deitu: 615 71 62 32

**Eibar.** Neska brasildarra ontziak garbitzen, zerbitzari, umeak zaintzen, etxeak portalak edo tabernak garbitzen lan egiteko prest. 667 90 73 82.

**Gabiria.** 25 urteko mutila eskaintzen da garriolari bezala lan egiteko. C karneta 2009-07-16an aterea.Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 645 73 50 85

**Lizartza.** Adineko pertsonak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da, gidatzeko baimenduna. Harremanetarako deitu sakeleko telefono zenbaki honetara: 699 97 26 99

**Lantxoak egiteko** gertu: elektrizitatea, margotzea, iturgintza, eta abar. Gorkagatik galdetu. 692 26 27 69.

**Mutil gaztea** harategian lan egiteko gertu. Zatikatze lanetan trebea. Gerardo. 610 91 33 40 edo 943 53 36 72.

**Mutil** brasildarra, 35 urtekoa, sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile jarduteko gertu. Zerbitzari laguntzaile ikastaroa egin dut Gamarrako ostalaritza eskolan. Deitu 945 56 27 80 edo 634 85 69 78 zenbakira.

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92.

**Sakana.** Astean zehar eta larunbatetan haurrak zainduko nituzke, arratsaldez. 679 07 36 55.

**Sakana.** Haurrak eta edadetuak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nagoen emakumea naiz. 651 47 27 21.

**Sakana.** Emakume bat Sakanan lan egiteko prest. Autoa dut. 660 01 44 83.

**Urretxu.** Asteburuetan etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut. 638 75 51 29 (Celina).

**Zarautz.** Andre euskalduna, etxeko lanetarako prest, asteazken eta ostiralerako. Esperientzi haundia. Harremanetan ipintzeko deitu telefono zenbaki honetara: 634 45 91 59

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako,asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Kimika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Batxilergoko azken ikasturtea. 649 07 97 90

### 502. EMAN

**Arabiera** eskolak ematen ditut. 654 98 69 14.

**Bergara.** Kimikan lizentziatu batek matematika, fisika eta kimika eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. 648 06 79 85

**Debagoiena.** Eskola partikularrak Irakasle ikasketak dituen neska, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. 655 71 39 27

**Donostia.** Heziketa Berezian diplomatua eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua klase partikularrak emateko prest dago Donostian. Interesatuak, deitu telefono zenbaki honetara: 628 04 15 26

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.

**Eskola partikularrak.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei eskola partikularrak emateko. 655 71 39 27.

**Sakana.** LH magisteritza irakaslea, astez haurrak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest. 676 22 20 52.

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka.Maila ezberdinak.Irakasle tituluduna. Telefonoa: 664 16 02 68. Posta elektronikoa: *continental56@hotmail.com*

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A3 2.0 TDI** 140 zaldikoa. 5 urte eta 88.000km dauzka. Gris ilun kolorekoa. 5 ate eta serieko ekipamendua dauka. 15.000 euro. 646 30 52 55 edo 943 76 52 63

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. 660 33 77 16.

**Mitsubishi Montero luzea salgai.** Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbaki honetara: 625 70 79 94. Xabier.

**Nissan Micra automatikoa salgai.** Nissan Micra automatikoa salgai. Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000 kilometro. 649 19 64 04

**Opel Vectra 1.800 16v autoa salgai.** Opel Vectra 1.800 16V autoa salgai. Mendeurrenekoa. Ekipamendu osoa eta bola. 170.000 km. 2.000koa. Gomendatzeko modukoa. 2.200 €. 662 02 92 78

**Opel Zafira 1.9 cdti salgai.** Opel Zafira 1.9 cdti salgai. Harremanetan jartzeko deitu 615 00 97 23 telefonora

**Opel Zafira salgai.** Oso egoera onean dago. Furgoneta handiagoa erosteko saltzen dugu. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 688 65 15 29Idatzi mezu bat posta elektronikora: *peregaina@gmail.com*

**Peugeot 307 1.6 gasolina salgai.** 2005eko azarokoa, 36.000 kilometro. IAT 2011 arte. Klimatizagailuekin eta oso egoera onean. Garajean gordetakoa. 8.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu 677 33 31 67 telefono zenbakira. (Iratxe)

**Renault Megane autoa salgai.** 1.900 Turbo Diesela. 100 ZP. 2000koa. Aire girotua, beira-igogailu elektrikoak, ixte-sistema zentralizatua, direkziolagundua, ispilu automatikoak eta ABSa. 2.200 euro. 635 74 27 43

**Seat Leon salgai.** Seat Leon FR salgai. 2005eko ekainekoa. 57.000 kilometro. Sabai solar elektrikoa. Serieko aurrealdeko 2 fokoak eta 4 llantak opari. Beti garajean eta oso ondo zaindua. Extra ugarirekin. 12.000 euro. 657 733720 edo 646 323683.

**Suzuki Samurai 1.3** autoa salgai. Beste gurpil joko bat opari. Egoera onean. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 72 72 41.

**Opel Combo Tour 1.7 diesela salgai.** Opel Combo Tour 1.7 diesela salgai. 1996koa, 160.000 km. Egoera onean, garajean lo egin du beti. Osagarriekin (CDa, irratia, kortinak, bandeja....). Maletategia leku handiarekin. 1.500 euro negoziagarri. 653 74 24 78 edo 943 79 12 00.

**Volkswagen Multivan Confortlive 2,5 TDI.** Volkswagen Multivan Confortlive 2,5 TDI 130CV 3 urte eta 60.000 kilometro, guztiz prestatua eta berria bezala dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 620 58 86 33

### 602. EROSI

**125 cc-ko motorra.** Erabiltzen ez duzun 125cc-ko motor hori erosiko nizuke. 647 31 64 41.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Akerra salgai.** 5 urteko aker ederra salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 637 536

**Etxeko oilaskoak saltzen dira.** 2-3 kilokoak. Zuriak 5 euro kiloa, eta gorriak 6. 655 99 84 02

**Txakurkumeak salgai.** Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetzeko dauzkate.Interesatuta egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 91 38 (Enrike)

**Txakurkumeak salgai.** Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (negoziagarri). Telefonoa: 677 85 05 85

**Txakurra salgai.** Mastin arrazakoa. Gaztea. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 79 62 63

**Zaldi hispaniar-arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. Harremanetarako telefono zenbakia: 616 00 34 29

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Setter eta Border Collie arteko gurutzaketa. Debagoienean Hiru hilabetekoak. Txertoak ipinita dauzkate. Harremanetarako telefonoa: 619 28 32 06.

**Arratoi txakurra oparitzen da.** Arratoi txakurra oparitzen da. Hiru hilabete ditu. Arra beltza. Harremanetarako telefono zenbakia: 686 07 61 60

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra aurkitu da Bergaran.** Txakur txikitxoa aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. 620 61 91 34

**Txakurra Dorraon.** Yorkshire arrazako txakur bat aurkitu zen larunbat gauean (otsailak 27) Dorrao inguruan. 659 15 97 24.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Armairua** salgai. 2 metroko zabalera. Ate japoniarrekin. 200 euro. 635 74 27 43.

**Akordeoia salgai.** Parrot etxeko tekletako akordeoia bere kaxarekin salgai. 96 baju ditu. Oso prezio onean. 669 27 35 49.

**Akuarioa** salgai. 100 litrokoa. Osagarriekin. 50 euro. 616 22 49 64.

**Boxeorako.** Boxeorako zakua salgai. 638 89 78 76

**Bergara.** Angiozarren 1.500 metro kuadroko lursaila salgai. Eraikitzeko baimena duena. Bi bizitzako etxea egiteko. 180.000 euro. Deitu: 647 51 52 54

**Bikotearentzako logela salgai.** Bikotearentzat logela saltzen da. 615 71 24 96 (Maite)

**Bikientzako aulkia.** Bikientzako McLaren markako aulkia. 2007an erosia. 655 74 22 41

**CDak salgai.** CDak salgai ditut 70eko hamarkadatik 2000. urtera artekoak: rocka, popa, bluesa, reggaea, eta abar. CD bat: 2 euroan; Bost CD edo gehiago: euro bat bakoitza. 606 26 62 44. Luisma.

**Ereño.** Lursail eraikigarria salgai Urdaibain Ereño inguruan (3.000 m2inguru). 619 02 75 38 (19:00etatik aurrera).

**Elurretarako llanta eta gurpilak.** Elurretarako llanta eta gurpilak. 155 zabaleko, 13 erradioko M+S 78Q neurriko bi gurpil eta llanta. 50 euro. Aramaio. Joserra. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76

**Egongelarako altzaria salgai.** Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabalera 40 zm. Telefonoa: 685 76 95 03

**Estufa katalitikoa salgai.** Venus etxeko estufa katalitikoa saltzen dut. Urtebete dauka eta ia erabili gabe dago. 50 euro. Deitu 669 27 35 49 telefonora.

**Eskiak salgai.** Dynastar Vitesse etxekoak, Lookfijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. Deitu:690 83 98 53

**Eskiatzeko ekipo berria salgai.** Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53

**Gitarra elektrikoa.** Academy markakoa. 60 eurotan. Gutxi erabilia. 626 94 16 42

**Gurpilak.** Ksyrium elite gurpilak salgai Shimanorentzako, kamera eta kubiertarekin; 600 km inguru dituzte. 325 €. Horiekin batera Selle Italia Thoork jarlekua opari. 626 89 15 94.

**Haurrak eramateko kanguroa.** Bular aldean haurrak eramateko kanguroa. 18 €. Harremanetarako telefono zenbakia: 655 74 22 41

**Haurraren kotxe aulkia,** Red Castel markakoa. Egoera onean. Maria Arregi. Telefonoa: 645 72 96 91edo 943 81 62 60. *oraingoa@telefonica.net*

**Haurrentzako eskailleretarako segurtasun barrera.** Hainbat luzeratarakoa. 40 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 655 74 22 41

**Haurrentzako moises antzeko sehaska.** Leander markakoa, hiru hankakoa. 2007an erositakoa eta 9 hilabetean bakarrik erabilia, egoera ezin hobean. Koltxoia, hiru hankakoa eta beloa barne, izararik ez. 190 euroan. 655 74 22 41

**Haurrentzako ohea eta sehaska.** Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm. Koltxoiak bi altueratan ipintzeko aukera du. Latex-eko Ikeakoa ez den koltxoia barne. 95 euro. 655 74 22 41

**Karro denda.** Inesca Dakota modeloa. 2001ekoa, 5 lagunentzako, bi logela eta erdian pasillo bat dago. Hozkailua karroan eramateko prestaturik dago. Aramaio. Joserra. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76.

**Koltxoia salgai 90 zm.** Koltxoia salgai. 90 zm. Berria. Prezioa adostuko da. 670 08 12 16

**Korrika egiteko zinta** elektrikoa salgai. Segurtasun gelditzea dauka. Tolesgarria. Erroberak eta pantailadun konputagailua. 400 euro. 619 52 98 04

**Kotxe kapota.** Bebe Confort etxeko kotxe kapota saltzen dut. 150 euro negoziagarriak. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93

**Kotxe kapota eta aulkia.** Silver Cross etxeko kotxe kapota bere poltsoarekin eta umea handia egiten denerako Bambino World aulkia. Dena 400 euro negoziagarri. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93

**Kotxerako 9-18 kg bitarteko aulkia.** Kotxerako aulkia 9-18 kg bitartekoa. 40 euro.Lourdes. 699 45 43 69

**Mahai luzagarria salgai.** 2 metrokoa. Egur eta kristalezkoa. 100 euro. 635 74 27 43

**Nikon D60.** Nikon D60 reflex digitala salgai. Ordezko bateria opari. Deitu 634 46 68 65 telefonora eta Manurengatik galdetu.

**Landareak.** 6 urteko landareak. Tuya Plicata eta Espela. 667 91 55 90.

**Llantak eta gurpilak.** Elurretarako. 155 zabaleran, 13 erradioko M+S 78Q neurriko bi gurpil eta llantak. 50 €. Aramaio. Joserra. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76.

**Mahai luzagarria** salgai. 2 metrokoa. Egur eta kristalezkoa. 100 euro. 635 74 27 43.

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Iaberria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara mesedez: 626 28 68 13

**Neguko gurpilak salgai.** Salgai ditut neguko lau gurpil bere llantekin. Gurpilen tamaina: 185/55 R14. Ia berriak, kilometro gutxi eginda. 679 31 75 59 Nerea.

**Ohe artikulatua.** Ohe artikulatua salgai, orain dela hiru hilabete erositakoa. Egoera onean. 639 95 75 69

**Ohea salgai.** XIX. mendeko ohe berritua salgai. Deitu 943 76 49 32 edo 650 01 01 83 telefono zenbakietara

**Ordenagailua.** Windows XP SP3 sistema eragilea. 1GB RAM. Antibirusa jarrita eta Office 2003 osorik, legala. 616 48 98 14 edo 943 79 23 69.

**Panasonic Lumix DMC-FZ50 argazki kamara salgai.** Bi urte inguru ditu, baina berria bezala dago, oso ondo zainduta. x12ko zoom optikoa, eta 10 Mb-ko erresoluzioa. Bideoa ere hartzen du. Litiozko bi bateria + kargadorea + 2 Gb-ko memoria txartela eta funda. 350 euro, bidalketa gastuak barne. Interesatuak, idatzi mezu bat *kalegrafia@gmail.com* helbideraedo deitu 647 35 42 03 telefono zenbakira

**Panasonic Lumix FZ 18.** Argazki kamera ia berria salgai. Lumix FZ 18, bi bateria eta zorroa. Prezioa adosteko. 615 70 77 10.

**Paseatzeko aulkia.** Paseatzeko aulkia. Ez dago asko erabilita. 50 euro. Lourdes. 699 45 43 69

**SP LTD** gorria salgai. Zorroarekin. Ia berria. 250 euro (negoziagarriak). 675 12 80 43.

**Snow taula** salgai, US-40 markakoa. Taula eta fijazioak 85 euro. Taulak 1,65 metro neurtzen du eta egoera onean dago. 671 92 06 49.

**Snow taula salgai.** 168 neurrikoa. Baita ere Burton fijazioak, 46 neurriko botak eta eskiak eramatekoa. Dena 250 eurotan. 661 73 37 91

**Sailfish Vibrant Neoprenoa salgai.** Sailfish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa. (165-178zm, 68-78 Kg). 665 71 47 83

**Telebista.** 28 hazbetekoa. Bi urte dauzka. 150 euro. 616 22 49 64.

**Ume txiki bat eramateko mendiko motxila salgai.** Ume txiki bat eramateko mendiko motxila bat saltzen da. Berria. 699 00 09 00

**Ume txiki batendako bizikleta salgai.** Ume txiki batendako bizikleta salgai. 3 urteko ume batentzako gutxi gora behera. 615 79 29 71.

**Urrea.** 24 kilateko urrea salgai. 656 75 76 98.

**Wii kontsola berria.** Wii Sports jokoa eta bigarren mandoa opari. 160 euro. 686 42 52 95

**Zeanuri.** 2.000 metro koadro dituzten hiru lursail eraikigarri dira, eta Gorbeia magalean, Ipiñaburu auzoan aurkitzen dira. 650 86 39 99.

### 802. EROSI

**Bertoko garagardoaren txapa** erosiko nuke. Kolekzioko Euskal Herriko txapen bilduma betetzeko dagoeneko desagertutako Bertoko garagardoaren txapak falta zaizkit. 695 45 21 94

**Bikiak paseatzeko aulkitxoa erosi nahian.** Bikiak paseatzeko aulkitxoa erosi gura dut. Harremanetarako telefono zenbakia: 650 573 607

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran edo inguruetan. Harremanetarako telefonoa: 669 17 09 51.

**Pastoralen liburuxkak erosten ditut.** Honako pastoralen liburuxka hauek erosiko ditut: *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioa adostuko dugu. Harremanetarako telefonoa: 656 72 68 70

### 803. EMAN

**Isats-pianoa .** Isats-pianoa ematen da debalde. Ia 100 urte dauzka, baina konponketa batzuk eginda, primeran geratuko da. Garraioa hartzailearen kontura. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 79 80 54.

### 806. GALDU

**Belarritakoa** galdu nuen Arrasateko alde zaharrean otsailaren 26an. Urre zuria. Balio sentimentala du. Aurkitu badituzu deitu 619 45 42 87 telefono zenbakira.

**Canon ixus 60 .** Martxoak 6 larunbata. Hernanin Canon Ixus 60 markako argazki kamara galdu nuen. Behintzat eguneko argazkiak berreskuratzea gustatuko litzaidake. Deitu 637 32 05 23 telefonora.

**Canon argazki kamera** galdu nuen zapatu gauean, martxoaren 20an, Arrasaten.Harremanetarako telefono zenbakia: 617 30 02 06. Aitor.

**Jertsea Durangon.** Otsailaren 27an laukidun jertse marroia galdun nuen Durangoko Uda Berri edo Gure Kabiya tabernetan. Aurkitu baduzu deitu mesedez 667 95 73 16 telefonora.

**Narruzko jaka baltza.** Martxoak 20. Larunbat gauean narruzko jaka beltz bat, beste narruzko jaka bategatik aldatuta jaso nuen Guay tabernan. Eskuetan dudana 36 taila da eta hartu duzuna S. Aurkitu badituzu deitu mesedez 637 32 05 23 telefono zenbakira.

**Poltsa eta poltsikoko telefonoa** galdu ditut Bergarako Zabalotegi aretoan. Aurkitu badituzu deitu 653 73 77 86 telefono zenbakira.

**Diru zorroa Etxarri Aranazen.** Diru zorro marroia galdu da Etxarri Aranazen. Giltzak eta dirua zeuzkan. Topatu duenak utz dezala Beleixe irratian.

**Txaketa Altsasun.** Adidas markako txaketa horia galdu zen otsailaren 23an Altsasuko Amandrea plazan. 948 46 84 62.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Pen Drivea aurkitu nuen domekan, martxoaren 28an. Argazkiak eta musika artxiboak dauzka.Deitu 675 70 10 63 telefono zenbakira.

**Irakurtzeko betaurrekoak** aurkitu nituen Arrasateko Santa Marina auzoan otsailaren 21ean. Zureak badira, deitu zenbaki honetara. Juanjo. 943 79 96 71.

**Giltza Etxarri Aranazen.** Koloredun giltza bat topatu da Etxarriko igerilekuetarako bidean. Galdu duena Beleixe irratitik pasa dadila.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera.

**Mutil bila.** 38 urteko mutila, 35-40 urteko mutil (ez gizon) bila. Konplejo gabea eta mendia, bizikleta zein afariak gustoko dituena aurkitzea gustatuko litzaidake. Bidali SMS bat zenbaki honetara: 699 89 58 38

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Sasimusika: ezohiko musika sorkuntzarako sare ireki bat.** Ezohiko musika sorkuntzarako sare ireki bat: Inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: Ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio gehiagorako: *ssasimusika.ning.com*

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
www.inmosalbide.com

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trastelekua eta igogailua. 47.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Erdigunean. 3 logelako etxebizitza. Laugarren solairua igogailurik gabe. 10 metro koadroko terraza politarekin. Oso prezio onean. 43.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Erdigunean. 2 logelako etxebizitza. Igogailua eta trasteleku txiki batekin. Oso egoera onean. 41.000.000 pezeta.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 44.500.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

ALOKAIRUAN
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 900€
**AMARA** Morlans. 2 logela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 850€
**GROS** Ramon Mª Lili. 2 Logela, sukaldea, 2 bainugela. 1.000€
**ERRONDO GAINA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bista ederrak. 850€
**GROS** Iparragirre. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750€
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 550€

SALMENTAN
**ALDE ZAHARRA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 42.800.000 pta
**GROS** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Kalera begira. 38.500.000 pta
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 40.400.000 pta
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 48.500.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2bainugela. Balkoia. Berritua. 54.000.000 pta
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 61.800.000 pta
**ERDIALDEA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 20m2 tako terraza. Txokoa. Berritua. 57.800.000 pta
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. 38.900.000 pta
**MARTUTENE** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 22.000.000 pta
**BIDEBIETA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 29.400.000 pta
**BUENABISTA** Apartamentu polita. Kanpora begira. Trastelekua. 35.000.000 pta
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Trastelekua. 25.950.000 pta
**TRINTXERPE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Igogailua. 34.400.000 pta
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora begira. 28.990.000 pta
**LEZO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Trastelekua. 30.990.000 pta
**ERRENTERIA** Polita. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 35.900.000 pta
**PASAI DONIBANE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 25.990.000 pta
**IRUN** 3 solairutako etxe bifamiliarra. 2 Garajea. Terraza. 65.000.000 pta

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | 6 | 8 | 5 | | | |
| | | | | 2 | | | 7 | 3 |
| 9 | 6 | 2 | 7 | 3 | | 5 | | |
| | 7 | 3 | | | | | | |
| 4 | | 6 | | | | 3 | | |
| | | 8 | 4 | 9 | | | 6 | 7 |
| | | | 2 | | | | | 6 |
| | | | 5 | | 8 | 2 | | 4 |
| 6 | 2 | | | | | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Edateko
Zaunka
Arabako herrixka
* Irudiko ikastola
EH-ko herrialdea
Begirada
Labore mota, irris
Gerrarako makina
Gudarostea
Zauriaren arrastoa
Pl., arrain mota
Aldiz
Bokala
Errioxako herria
Oinaze
Europako aintzira
Lur zati, mokor
Erregai mota
A birritan
Kanpo, landa
Oihu
Izaki bizkarroia
Bokala

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Non izan zenuen istripua?




## hizki salda

Bost txirrindulariren abizenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C | U | E | S | G | Z | A | T | I |
| I | Z | T | E | Z | U | D | Z | N |
| B | X | T | K | O | L | K | S | D |
| S | X | Z | D | Z | L | G | H | U |
| J | A | L | A | B | E | R | T | R |
| S | D | F | J | K | A | S | D | A |
| C | O | N | T | A | D | O | R | I |
| G | H | J | L | H | U | J | H | N |
| L | E | J | A | R | R | E | T | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C | U | E | S | G | Z | A | T | I |
| I | Z | T | E | Z | U | D | Z | N |
| B | X | T | K | O | L | K | S | D |
| S | X | Z | D | Z | L | G | H | U |
| J | A | L | A | B | E | R | T | R |
| S | D | F | J | K | A | S | D | A |
| C | O | N | T | A | D | O | R | I |
| G | H | J | L | H | U | J | H | N |
| L | E | J | A | R | R | E | T | A |

**Hieroglifoa:** Autobidean.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 3 | 4 | 6 | 8 | 5 | 9 | 1 | 2 |
| 5 | 8 | 1 | 9 | 2 | 4 | 6 | 7 | 3 |
| 9 | 6 | 2 | 7 | 3 | 1 | 5 | 4 | 8 |
| 1 | 7 | 3 | 8 | 5 | 6 | 4 | 2 | 9 |
| 4 | 9 | 6 | 1 | 7 | 2 | 3 | 8 | 5 |
| 2 | 5 | 8 | 4 | 9 | 3 | 1 | 6 | 7 |
| 8 | 4 | 5 | 2 | 1 | 9 | 7 | 3 | 6 |
| 3 | 1 | 7 | 5 | 6 | 8 | 2 | 9 | 4 |
| 6 | 2 | 9 | 3 | 4 | 7 | 8 | 5 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | E | ■ | Z | ■ | B |
| | | | A | D | A | U | S | I |
| | | | ■ | A | R | R | O | Z |
| ■ | A | ■ | K | R | A | B | A | K |
| O | R | B | A | I | N | A | ■ | A |
| ■ | M | I | N | ■ | Z | O | H | I |
| L | A | D | O | G | A | ■ | A | A |
| ■ | D | E | I | A | D | A | R | ■ |
| P | A | R | A | S | I | T | O | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Egunotan energia eta bizinahi handia izango dituzu, eta une oso dibertigarriak izango dituzu zure lagunekin. Zure sormena edo gaitasun artistikoa garatzeko garai aproposa.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Zure kontuetan eta harremanetan izan ditzakezun tentsioak tentsio, egun egokiak zure egoera fisiko nahiz animikoentzat. Eginbeharrak etxean.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure astia eta ideiak familiari zuzentzeko moduan zaude, baita bihar-etzirako planak egiteko ere. Izan zaitez naturarekin harremanetan, zoriontsu egingo zaitu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Diru arazoak argitzeko egun egokiak. Zure ekonomia bideratzeko egitasmoren bat prestatzea komeni zaizu, nahi ez duzun sorpresarik ez izatekotan.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lanerako une egokian zaude. Bidaiaren bat egitekotan bazara, esperientzia ikaragarria izango da. Agian, espero ez duzun elkartze erromantikoren bat izango duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Egunotan kontu handiz ibili esaten duzunarekin; eta batez ere, gauzak egiteko moduarekin. Zure kritikak ez dituzte behar bezala kontuan hartuko.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lan arloan esperantza handiak; behar gehiago eta ekoizpen handiagoa izan ditzakezu. Une egokia da indarra bildu eta aldarte onean egoteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zuhur jokatu zure nagusiekin, eta ez eman gerora zu edo beste norbaiten aurka erabil dezaketen informaziorik. Zure bikote kidearekin jeloskor eta posesiboa izango zara.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Jendarteko bizitzak bidaiatzera bultzatuko zaitu, baita zure bizimodua aldatu eta pixka bat osasuntsuagoa egitera ere. Ez egin hainbeste astakeria zure osasunarekin.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Saiatu egunotan larregi ez pentsatzen. Lagunekin, opariak eta konponbideak ekarriko dizkizuten aukera onak. Gau zoragarriak pasatuko dituzu familiakoekin.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zure gustukoa ez den edo zure gainetik dagoen jendearekin liskarrik ez izaten ahalegindu. Ikasketetan edo kultura jardunetan erraztasun handiagoa izango duzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Egun garrantzitsuak zure ekonomiarentzat. Bestalde, egunotan, espero ez zenuen baten batekin egingo duzu topo, eta horrek mesede egingo dizu.

## gazte zerbitzua

### LANKIDETZA

**> Euskadiko gazteak lankidetzan.** Garapen bidean dauden herrialdeetan udan egonaldiak egiteko programa. 20-31 urte arteko gazteei zuzendutako deialdia. Izena emateko epea apirilaren 7tik maiatzaren 6ra arte *www.gazteaukera.net* webgunean.

### BEKAK

**> Giza Eskubideak.** Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisionatua. Praktikak egiteko deialdia. Epea: apirilaren 30a.

**> Udako Ikastaroak.** UPV/EHU. XXIX. Uda Ikastaroetan parte hartzeko bekak. Epea: apirilaren 23a.

### LANA

**> Begiraleak.** Txatxilipurdi euskara elkartea. Uztailean antolatzen dituen udaleku ireki eta itxietan lan egiteko begiraleak behar dira. Baldintzak: 18 urte edo gehiago izatea eta euskara jakitea. Epea: maiatzaren 7a. *haurrak@txatxilipurdi.com*.

**> Begiraleak.** Aramaioko Udala. Uztailean antolatuko diren udalekuetan lan egiteko. Baldintzak: 17 urte beteta izatea. Baloratuko da: begirale titulua, magisteritza ikasketak, EGA titulua, umeekin esperientzia, Aramaiokoa izatea. Epea: maiatzaren 7a.

**> Sorosleak.** Gurutze Gorria. Zarauzko Gurutze Gorriak hondartzetan eta igerilekuetan lan egiteko lan poltsa ireki du. Epea: maiatzaren 2a.

### LEHIAKETAK

**> Kartela.** Donostia Kultura Festak Donostiako jaien Kartel Lehiaketa antolatu du. Epea: apirilak 31.

### AGENDA

**> Zinema.** Donostiako Udala. Giza Eskubideen VIII. Zinemaldian gazte epaimahaikide izateko aukera. Epea: apirilaren 8a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Irizar Jauregia • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 12



**> Eraikuntza lanetako prebentzioaz**
**19:45, 21:15**

Lotu planak eraikuntza lanetan prebentzioa bermatu nahi du. Hori aurkeztuko digu Jesus Uzkudunek (CCOO).

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



**> Gaurkotasuneko gaien inguruko elkarrizketak**
**19:45, 21:15**

Martitzenero, Eneko Azkarate kazetariak gaurkotasun handiko pertsonaia ezagun bati elkarrizketa egiten dio *Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:00** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



**> 'Ur eta lur', nekazaritzaren gaineko saioa**
**18:15**

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruko *Ur eta lur* saioa egiten du Nafarroako Xaloa telebistak; GOITBk ere ematen du

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 15



**> Kukai dantza taldearen '(SOK)2' proiektua**
**22:15**

Dantza garaikidea eta euskal tradizioa uztartzen dituen Kukai taldearen proiektu berria ezagutuko dugu *Gipuzkoakultura*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 16



**> Aste osoko ekitaldien berri izateko aukera**
**19:45, 21:15**

*Goiena magazinea*-n, asteko albisteei begiratua egiteaz gain, asteburuaren berri ere emango digu Arritxu Barruso aurkezleak.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoakultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Bi ipuin eta Arantzazuren gaineko liburu bat zozketatuko ditu irratiak**

Pamiela argitaletxearen bi ipuin, 3-8 bitarteko umeendako, zozketatuko dituzte: Leo Lionniren *Munduko etxerik handiena* eta Joxan Ormazabalen eta Iraia Okinaren *Zirkua Amets*. Helduendako liburuxka bat ere bai: *12 ikuspegi, Arantzazu gaur bisitatu, ezagutu eta gozatzeko*. Parte hartzeko, deitu: 943 25 05 05.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

### FIKZIOA

# Maiatzaren 23an bukatuko da 'Perdidos'

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

*Lost* (*Perdidos*) telesailaren zaleak urduri daude maiatzaren 23aren zain, egun horretan argituko baitira telebistako eta Interneteko naufrago ezagunenen inguruan dauden misterio guztiak, ABC kateak emango duen azken kapituluan. Sei urte daramate jarraitzaileek telesailaren gako guztiak euren kabuz argitu nahian. Bukaera gustuko izango ez duten beldur ere bizi dira zale amorratuenak.

Misteriorik ez dago, ordea, diru kontuetan: kapitulu horretan publizitatea egitearren, 30 segundoko 700.000 euro baino gehiago ordaindu beharko dute iragarleek, ohiko kapituluetan baino lau aldiz gehiago.

### 'ERREALITATE-TELEBISTA'

# Telebistako aurkezlea izango da Sarah Palin

**L.K.** > ARRASATE

AEBetako hauteskundeetan presidenteorde izateko hautagai izan zen Sarah Palin Alaskako gobernatzaile ohia telebistako izar izango da. Izan ere, Discovery Communications-en TLC katearen zortzi ataleko dokumental baten agertuko da Palin.

Saioak *Sarah Palinen Alaska* izango du izenburua, eta "Palin gobernatzaile nabarmenaren eta bere jaioterri Alaskaren gainekoa izango da", esan du Discovery kateak. "Discovery Communications asko pozten du Sarah Palini laguntzeak Alaskaren historia kontatzen", gaineratu dute telebista kateko arduradunek.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

KALUOKA'HINA, UHARRI SORGINDUA

Haurrei zuzendutako planetariumeko saio berria, martxoaren 13tik aurrera ikusgai, kutxaGuneko Planetariumean.
Enigmaz eta misterioz betetako abentura arriskutsu batean murgilduko gara eta bertan, urpean bizi diren izaki maitagarriz, eta, inoiz, arriskutsuz betetako mundua ezagutuko dugu…

**Karteldegia kontsultazeko:**
*www.miramon.org* edota 943 012 478





ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

# zorion agurrak



OÑATI
**Maite Garcia**
Martxoaren 28an, 23 urte. Zorionak Maite!!! Ondo ondo pasau eguna!!! 23 tirakada ta patxo haundi-haundi bat kuadrillakuan partez!



OÑATI
**Ane Ormazabal**
Martxoaren 29an, 17 urte. Zorionak Ane zure lagun Ekiñe ta Beñaten partez! Ondo pasa eguna!!



ARRASATE
**Oxel Arrieta**
Martxoaren 30ean, urtebetetzea. Pilota partidua edozeinen aurka jokatzeko gertu? Zorionak lankideen partetik.



BERGARA
**Naia Murgiondo Kortabarria**
Martxoaren 30ean, urtebete. Zorionak sorgintxo! Ondo pasa eguna eta muxu handi handi bat etxekoen partez.



ARAMAIO
**Alaitz Isazelaia**
Martxoaren 31n, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu ezazula zure urtebetetze egunean. Zorionak familiako danon partetik!



ARRASATE
**Magali Armendariz eta Kiara Dorronsoro**
Magalik martxoaren 25ean, 7 urte eta Kiarak apirilaren 1ean, 5 urte.



OÑATI
**Unai Sanz**
Apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, mutikote. Ondo pasa dezazula hainbeste itxaron dozun egun. Etxekuen partetik.



ARETXABALETA
**Irati Betegi Jausoro**
Apirilaren 2an, urtebete. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure lehen urtebetetzea. Muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA
**Oihane Garcia-Etxabe Murillo**
Apirilaren 2an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik, bereziki Yaiza eta Markelen partetik.



ARRASATE
**Unax Gonzalez Garzia**
Apirilaren 3an, 3 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta musutxo handi bat etxeko guztion partetik!



ARRASATE
**June Urionabarrenetxea Porcel**
Apirilaren 3a, urtebete. Zorionak, prexioxa! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetze eguna eta muxu potolo-potolo bat etxeko guztion partetik. Aupa Erreala!



ARETXABALETA
**Maider Idigoras**
Apirilaren 4ean, 15 urte. Zorionak, Maider, 15 urte honeigatik. Ondo pasatu eguna, zure lagun guztien partetik.



ARRASATE
**Oihana Ezkurra**
Apirilaren 4an, urtebetetzea. Urteroko old story bera da: goizean goizetik galeperrak 30 aldiz kantatu du, eta zera dio: izan zaitez zoriontsu! Liher, Zeke eta Itziar.



BERGARA
**Anouk Muruamendiaraz Arevalillo**
Apirilaren 4an, urtebete. Zorion potolo bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
**Manex Urrutia**
Apirilaren 4an, 10 urte. Zorionak Manex! Ondo pasau zure urtebetetze egunian, etxeko danon partetik.



OÑATI
**Leire Kortabarria**
Apirilaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak *banbina*! Eskularruak eta txapela kentzeko garaia heldu da!



ARRASATE
**Abel Parra Bermejo**
Apirilaren 5ean, 41 urte. Zorionak Abel! Ederto pasau eguna Salamankan, ekarri urdaiazpiko ta txorizo batzuk ospatzeko. Marrubizko 41 muxu potolo laguntxo guztien partez.
Kontuz kolesterolarekin!



ANTZUOLA
**Inar Cabo Mundiñano**
Apirilaren 5ean, 4 urte. Antzuolako piratak 4 urte beteko ditu. Zorionak, Inar! Musu handi-handi bat amatxo, aitatxo eta Ekhiren partetik. Ongi pasatu eguna!



ARRASATE
**Ioritz Astaburuaga Zabalo**
Apirilaren 5an, 9 urte. Zorionak etxekoen eta, bereziki, anaia Oihanen partetik!



ARRASATE
**Ibai Alberdi Segovia**
Apirilaren 5an, urtebete. Zorionak, sorgintxo, familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
**Martin Berezibar Arevalo**
Apirilaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta ondo pasau Port Aventuran! Pablo, Malen, Naroa, Nora eta Maialenen partetik.



ARRASATE
**Jon Barrenetxea Garzia**
Apirilaren 6an, 5 urte. Zorionak txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potoloak aitatxo, amatxo, Ane eta familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Xabier Kortabarria**
Apirilaren 6an, 2 urte. Zorionak, Xabier! Muxu handi-handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
**Naia Perez Marzan**
Apirilaren 7an, 7 urte. Zorionak, gure bihotza. Asko maite zaitugulako, muxu handi bat Iker, ama eta aitaren partetik. Ondo pasatu zure eguna Hugo, Andoni, Ander, Iago, Nora, Iker, Ekiñe eta Martinen partetik.



ARETXABALETA
**Iban Cabero**
Apirilaren 8an, urtebetetzea. Zorionak guapo! Ondo pasau zure egunian ta muxu asko zure familiaren partez, Eiderren urtebetetziakin batera ospatukou!



OÑATI
**Maddi Oleaga eta Izar Berasaluze**
Maddik apirilaren 8an eta Izarrek apirilaren 10ean. Zorionak bikote, etxeko danen partez; eta, marrubizko muxu handi bana Aritzen partetik.



OÑATI
**Oier Larrañaga Etxeberriarteun**
Apirilaren 10an, 2 urte. Zorionak, Oier. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Julen Lanzos Gastañaga eta Nagore Biain Gastañaga**
Julenek apirilak 11, 5 urte eta Nagorek apirilak 12, 3 urte. Zorionak bikote! Zuek bai artista parea! Atxabaltako Pirritx eta Porrotx! Muxu zakukada bat bakoitzarentzat. June, Malen, Ekaitz, Jokin eta Landerren partez.



ARAMAIO
**Amaiur Arana Ajuriagerra**
Apirilaren 12an, 6 urte. Zorionak printzesa! Ondo pasau zure urtebetetzea eta txokolatada ederra prestatu! Muxu handi bat etxekoen partez, batez be Uxuen partez!



ARETXABALETA
**Eider Cabero Del Fresno**
Apirilaren 12an, urtebete. Zorionak, Eider! Oso ondo pasau zure lehenengo urtebetetzien ta zoriondu aitatxo bebai! Muxu haundi bat etxeko danen partez!



ARETXABALETA
**Xubane Garai Lazkano**
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Urtebetetze egun politta eta alaia izan dezazula. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik! Muaaaaa.



ARETXABALETA
**Malen Kortabarria Iturbe**
Apirilaren 12an, 2 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna. Muxu handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
**Martxel Arriaran**
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak futbolista! Azkenean iritsi da eguna. Muxu pilo bat amatxo eta aitatxoren partetik!



ARRASATE
**Maialen Velez de Mendizabal**
Apirilaren 13an, 2 urte. Zorionak, guapisima! Jada bi urtetxo! Muxu pila bat familia guztiaren partetik!



OÑATI
**Peru Etxegarai Zelaia**
Apirilaren 13an, 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danon partetik.



ESKORIATZA
**Luz Maria Ignacio**
Apirilaren 13an, 35 urte. Zorionak zure lagunen partez. Egun zoragarria pasa dezazula. Muxu haundi bat.



OÑATI
**Lander Aranburu Gomendio**
Apirilaren 14an, 4 urte. Zorionak! Ondo pasa urtebetetze eguna eta ea laster Urbiara ttipi-ttapa igotzen garen berriro. Muxu handi bat etxekoen partez.



ARRASATE
**Oier Armendia Zallo**
Apirilaren 14an, 3 urte. Zorionak Oier! Gure "motorrista" azkarrari patxo eta besarkada haundihaundi bat guztion partetik!



OÑATI
**Julen Vizcaino**
Apirilaren 15an, 8 urte. Zorionak, Julen! Muxu haundi bat etxeko danon partetik. Ondo pasau zure eguna.



ARETXABALETA
**Beñat Zubizarreta Uribarren**
Apirilaren 17an, urtebete. Zorionak, gure pitxintxo! Amatxok eta aitatxok gure etxeko mutikotxuai patxo handi bat. Paaaaa!

## kuxkuxeroa



Jon Berezibar

# Liburuaren Astea, baina pantailan

Liburuaren Astearen atariko moduan, telebistara muturrak itsatsita emango dugu aste bukaera. Liburuak aurki pantailatik irakurriko ditugunez, iPad super-iraultzaile horrekin, esan digutenez, ez dago zertan "telebista itzali eta hartu liburua esaterik, urtero moduan". Ikuskizun eta emozio batzuentzat eta askorentzat siesta ordurako sedante, Euskal Herriko Itzulia izan dugu Pazko Asteko bazkalosteko ordu geldoen errege. Koroa gureko **Iban Velasco**ri ipiniko diogu, Tourrean

**"Aste bukaerako ekitaldi nagusia Barça eta Real Madrilen partidua izan da"**

ere izango dela jakin dugu-eta asteon, zorionak! Barça eta Real Madrilek piztutako ikusmira gainditzea ez dute lortuko, baina, txirrindulariaren bizikleta ihesek. Zapatu gaueko ekitaldia izan zen hura, zalantza barik, tabernak beteta eta txaloak Bartzelonako taldeari edonon. Haiei ere zorionak. Baina liburuez hitz egiten hasita, paperera joatea onena aitzakiarik ez zaigu falta. Kasu honetan zorionak arrasatear biri: **Josu Arteaga** eta **Juan Ignacio Montianori**. Atera berriak dituzte biek nobela bana. Eta, azkenik, zorionak baina proposamenaren bitxitasunarengatik Arrasateko Santa Marina auzora. Futbol eta telebistaz urrun, zer eta euren kaleko obren amaiera ospatu dute. Hori bai aitzakia ona.

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## jaiotakoak



**Inax Alvarez Pagaldai**
Eskoriatza > 3,750 kilo. Martxoaren 19an. Gurasoak: Leire (Eskoriatza) eta Juan Antonio (Eskoriatza). Argazkian, Inax jaioberria, aitona Antoniorekin.



**Pagoa Palacio Astigarraga**
Oñati > 3,970 kilo. Martxoaren 27an. Gurasoak: Marijo (Oñati) eta Miguel Angel (Oñati). Argazkian, Pagoa jaioberria, gurasoen besoetan.



**Andoni Garitano Arribas**
Bergara > 3,740 kilo. Martxoaren 27an. Gurasoak: Ramo (Bergara) eta Mikel ( Bergara). Argazkian, Andoni jaioberria, aitaren besoetan.



**Anai Madinabeitia Vazquez**
Arrasate > 3,280 kilo. Martxoaren 27an. Gurasoak: Larraitz (Arrasate) eta Iakes (Arrasate). Argazkian, Anai jaioberria, aitaren besoetan.



**Julen Aranburu Zubia**
Arrasate > 3,040 kilo. Martxoaren 29an. Gurasoak: Oneida (Aretxabaleta) eta Josu (Oñati). Argazkian, Julen jaioberria, lotan.



**Ekiñe Galdos Martin**
Arrasate > 2,800 kilo. Martxoaren 29an. Gurasoak: Vanesa (Arrasate) eta Aitor ( Arrasate). Argazkian, Ekiñe jaioberria, lotan.



**Ioar Gonzalez Fernandez**
Bergara > 2,580 kilo. Apirilaren 3an. Gurasoak: Maite (Burlata) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Ioar jaioberria, aitaren besoetan.



**Jose Luis López Mejia**
Arrasate > 3,400 kilo. Apirilaren 4an. Gurasoak: Estela (Bolivia) eta Joaquin (Arrasate). Argazkian, Jose Luis jaioberria, lotan.



**June Urtzelai Txintxurreta**
Oñati > 3,310 kilo. Apirilaren 4an. Gurasoak: Nerea (Oñati) eta Aitor (Oñati). Argazkian, June jaioberria, aitarekin.



**Maddi Alonso Berezibar**
Antzuola > 3,600 kilo. Apirilaren 5ean. Gurasoak: Ainhoa (Antzuola) eta Iñigo (Antzuola). Argazkian, Maddi jaioberria, amonarekin.



**Enaitz Zangitu Iturricastillo**
Bergara > 3,350 kilo. Apirilaren 6an. Gurasoak: Aitziber (Bergara) eta Ioseba (Bergara). Argazkian, Enaitz jaioberria, lotan.



**Julen Francisco Santana Polvora**
Arrasate > 3,220 kilo. Apirilaren 6an. Gurasoak: Ana Emanuel (Arrasate) eta Jose Francisco (Arrasate). Argazkian; Julen, ama eta Erikarekin.



**Udane Martinez Urtzelai**
Bergara > 3,460 kilo. Apirilaren 7an. Gurasoak: Isabel (Bergara) eta Manolo (Bergara). Argazkian, Alazne ahizpa eta amarekin.



**Manu Osorio Blanco**
Arrasate > 2,950 kilo. Apirilaren 8an. Gurasoak: Mertxe (Arrasate) eta Manu (Arrasate). Argazkian, Manu jaioberria, aitaren besoetan.



**Irati Altuna Barbero**
Aretxabaleta > 2,830 kilo. Apirilaren 8an. Gurasoak: Verónica (Aretxabaleta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argazkian, Mari Carmen amamarekin.



**Irati Perez Frades**
Abadiño > 3,600 kilo. Apirilaren 8an. Gurasoak: Monika (Abadiño) eta Koldo (Abadiño). Argazkian, Irati jaioberria gurasoak eta Ekainekin.



**Beñat Diez Bauzon**
Bergara > 3,300 kilo. Apirilaren 7an. Gurasoak: Rakel (Bergara) eta Enrique (Bergara). Argazkian, Beñat jaioberria, amaren besoetan.




Andres Osa 'Sakona' > Kazetaria

# "Dirua jokoan, beti egongo da polemika"

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Bere burua herri kiroletan jantzitakotzat jo dezaketen gutxienetakoa dugu *Sakona*. Ez kirolari moduan, kazetari eta kronikagile lanetik egindako urteengatik baizik. Bergarar honen biografia zabalaren pasarte bat besterik ez da hori.**

**70 urte eta erretiroaren atsedenaz gozatzeko asmorik ez?**

Jubilatua bai, baina ez erretiratua, ze behin erretiratzen hasiz gero, gureak eginda daude! Gustuko lanak ez du aldaparik.

**Bizitza erdi munduan zehar lanean eman eta gero, zaila izango da gelditzea...**

80ko hamarkadan itzuli nintzen eta ikastoletan sartu. Aurretik garapenerako bidean zeuden herrialdeetan egon nintzen Elizaren Nazioarteko erakunde batekin: Hego Amerikan, Madagaskarren, Korean, Portugalen...

**Apaiz?**

Ordurako utzia neukan apaizgoa. Oñatin ikasi nuen. Erakundeak nekazarien proiektuak laguntzen zituen diruz eta aukera eman zidan ezker zein eskuineko mugimenduekin lan egiteko. Hego Ameriketan iraultzen garaia zen hura.

**Aitaren aizkolari geneak, hortaz, ez zenituen jaso.**

Bazuen gure aitak aizkorarako dohain ikaragarria baina hura baserriko lanera dedikatzen zen. Baina bada familiako kontuan anaia ere aizkoran jardundakoa dugu-eta.

**Herri kirol kazetari belaunaldirik bada lekukoa hartuko duenik?**

Oso gutxi gabiltza eta gainera batzuek gauza asko ezagutu ere ez dute egiten. Halere, futbolean hainbeste hitz egiten duten horiek, zenbateraino ezagutzen dute kirola?

**Kirola bera eta pizten diren ika-mika sutsuak.**

Dirua eta jokoa dagoen lekuan beti egongo da polemika. Guztiaren gainetik dagoena da kirol sano bat eta, gainera, desafioa euskal izaeran oso errotuta dago.

**Zeu apustu zalea zaitugu?**

Neuk garbi esango dut: apustu egingo nuke irabaziko dudala jakingo banu. Normalean ez duzu jokatzen irabazteko bermerik ez duzulako eta galtzeko arriskua duzulako. Sekula ez dut izan jokatzeko grinarik, baina, zurikeriak gabe, jakinez gero irabaziko dudala, jokatu egingo nuke. Guztiok jokatuko genuke.

SOSLAIA

## Herria eta kirola

Urterik politenak Gernikako ikastolako zuzendari moduan egindakoak izan zirela dio Osak. Elizarekin lanean munduan zehar ia munduko txoko guztietan egon eta gero, etxera itzuli zen eta ordutik txikitatik maite izan duen horretan egin izan du lan. Ze, euskara, bertsoa eta herri kirola bat dira harentzat, euskaldunen errotan den zerbait. Eta, ezin du entzun herri kirola modernizatu gabeko jarduera hutsa dela. Uste hori da *Sakona*-rentzan benetan "atzean" geratu dena.



Andres Osa *Sakona*. GOIENKARIA

## ai, ene!




### Inspirazioa dutxan

Inspirazioak aurretik abisurik ematen ez duela gauza jakina da. Askori dutxarako orduan etortzen zaizkie musak bisitan, baina aurrerantzean hori ez da arazoa izango dutxaren horman eskegi daitekeen arbel *waterproof* horrekin.

http://www.gizmodiva.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Alferrikako milioiak

Patxi Lopezen gobernuak AHTren Bergara-Antzuola tartea egiteko azkeneko lizitazioak egin ditu; antza, "precio record" batekin: 125 milioi euro, 4,2 km.gatik. Hala zioen *El Correo* egunkariak egubakoitzean. Aldi berean, **Basagoitik Urkullurekin** Urdaibain beste museo bat egiteko akordioa lortuko duela iragarri zuen *El País*-ek. Akaso ez dela Guggenheim deituko, arabarrak eta gipuzkoarrak haserretu ez daitezen. Haserretu? Izatekotan ere, lehentasunik ez duten azpiegiturak bultzatzeagatik haserretu beharko ginateke herritar guztiok; batez ere, langabeziak gora egiten segitzen duen honetan, eta gizarte zerbitzuak, kalitatezkoak eta guztiontzat izan daitezen, administrazioak izaten ari diren finantzazio arazoak ikusita. Eta, bitartean, batzuek, **Matas** tarteko, hiru milioi euroko fidantza batzeko gaitasuna daukate. Ikaragarria!

Zapatuan **Francisen** Doctor Deseok diskoa aurkeztuko du Plateruenean; asteburuan ere ikusi dut Astra Gernikeko gaztetxien, bere taldekide **Aitor Agirianorekin**, eta **Txuma Murugarren**, **Aiora Renteria** (Zea Mays), **Joseba Barrenetxea** eta **Rafa Ruedarekin**; **Edorta Jimenezen** *Haragizko amoreak* liburuaren aurkezpenean. Milioirik ez zegoen dirutan, baina bikain geratu zitzaien ikuskizuna.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +12 | +5 |

Eguna fresko eta estali antzean hasiko bada ere, eguerdirako urdingune politak agertuko dira. Ipar ukituko haizea.

www.euskalmet.net



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51